

[a]
aztiker


Jendarte-ikerketa aplikatuak



**ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA
ZALDIBIAN: DISKURTSOAK ETA
HAUTEMATEAK, 2013.
Ikerketa Kualitatiboa**

Bezeroa: Zaldibiako Udala







-SARRERA-	5
-METODOLOGIA OHARRAK-	7
-AZTERLANAREN TESTUINGURUA-	12
-ANALISIA-	15
1 EUSKAL HERRIA ETA ESTATU ESPAINIARRETIK KANPOKO HERRIALDEETAKO ZALDIBIARREN MIGRAZIO PROIEKTUAK	16
1.1 EUSKAL HERRIA ETA ESTATU ESPAINIAR JATORRITIK KANPOKO ZALDIBIARRENMIGRAZIO PROIEKTUAK (ETORKIN BERRIEN MIGRAZIO PROIEKTUAK) ..	18
1.2 INTEGRAZIORA BIDEAN ABIAPUNTUA, INTEGRAZIO SOZIO-EKONOMIKOA.....	23
1.2.1 SOLDATAPEKO LANA, INTEGRAZIO SOZIOEKONOMIKOAREN GILTZA	24
1.2.2 ETXEBIZITZAREN LORPENA	28
1.2.3 ESKUBIDE SOZIALAK	30
1.2.3.1 HERRITARRAREN IKUSPEGIA. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK DITUEN HERRITARRA.	30
1.2.3.2 ESKUBIDE SOZIALAK. DIRULAGUNTZETATIK BIZI DIREN PERTSONAK DAUDE, EZ ETORKINAK.....	32
1.3 HARREMANAK ETA HARREMAN HORIEK ARGITZEN DITUZTEN ESTRATEGIAK	34
1.3.1 ABIAPUNTUAN EZBERDINTASUN POZISIO BAT	34
1.3.2 HARREMANEN NONDIK NORAKOAK.....	35
1.3.3 HARREMANEN AURREAN DAUDEN POSIZIOAK	38
1.4 EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREKIKO HAUTEMATEAK.	42
1.4.1 EUSKARAREN FUNTZIONALITATEAREN HAUTEMATEAK	43
1.4.2 EUSKAL KULTURARI DAGOKIONEZ	46
1.4.3 POLITIKAREN INGURUKO HAUTEMATEAK.....	47
1.4.3.1 POLITIKA = EUSKAL GATAZKA POLITIKOA.	47
1.4.3.2 POLITIKA = EGUNEROKO GAIEN INGURUKO POLITIKA	49
1.5 MIGRAZIO PROIEKTUEN HAUTEMATEAK ETA AUERRERA BEGIRAKO ESPEKTATIBA	50
2 ESTATU ESPAINIARREKO JATORRIA ETA EUSKAL HERRIKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK	52
2.1 KULTUR ERREFERENTZI EUSKALDUNA EDOTA GAZTELERADUNA DUTEN ZALDIBIARREN ELKARBIZITZAREN BILAKAERA.....	53



2.1.1	ELKARBIZITZAREN ZERTZELADAK 3 BELAUNALDIEN PERSPEKTIBAN	53
2.1.2	EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN GAINKO HAUTEMATEAK: BERE ESTATUSA ETA FUNTZIONALITATEAREN INGURUKO IKUSPEGIAK.....	57
2.2	ETORKIN BERRIAK BESTELAKO ZALDIBIARREN BEGIETARA.	65
2.2.1	ETORKIN BERRIEKIKO IKUSPEGIA	65
2.2.2	ETORKIN BERRIEKIKO HARREMANARI BURUZKO GERTURATZEAK ETA DISKURTSOAK	72
2.2.2.1	ELKARBIZITZA HARREMANAREN ESKUTIK DATOR	72
2.2.2.2	ESKOLA ETA LANA INTERAKZIO ESPARRU. AISIALDIAN ETA EREMU INFORMALEAN INTERAKZIORIK EZ.	76
2.2.2.3	UMEEN ARTEAN HARREMANAK NATURALKI	80
2.2.2.4	PERTSONEN ARTEKO HARREMANEN KRISIAREN ERAGINA	80
2.2.2.5	AISIALDIA ETA EREMU INFORMALEAN HARREMANETARAKO JARRERA.....	81
2.3	ESKUBIDE SOZIALAK	85
2.3.1	ESKUBIDE SOZIALEN INGURUKO ATALAN JASOTAKOAREN LABURPEN GISA	88
3	JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINETAKO ZALDIBIARREN ARTEKO ELKAR EAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK.....	90
3.1	DISKURTSOTAN ANTZEMAN DAITEZKEEN HARREMAN EREDUAK.	90
3.2	ANIZTASUNAREN BALIOAREN OINARRIAN, KULTUR ARTEKOTASUNAREN EREDURA GERTURATZEKO AUKERAK ETA OZTOPOAK ZALDIBIAN	94
4	AURRERA BEGIRA EGITEKO GOGOETAK.....	98
4.1	BI ALDAGAIEN INGURUAN HAUSNARKETA BEHARRA	102
-ERANSKINAK-		104
I. ERASKINA: ELKARRIZKETA GIDOIAK		105



-SARRERA-

ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN:
DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK, 2013

Orriotan **"Aniztasuna eta elkarbizitza Zaldibian: diskurtsoak eta hautemateak 2013."** ikerketa kualitatiboaren emaitzak aurkezten ditugu. **Aztikerrek** egin duen lan honen helburua izan da, jatorri, kultura nahiz identitate ezberdinetako zaldibiarrek dituzten hautemate eta diskurtso ezberdinak mahai gaineratu eta aztertzea. Hain zuzen ere, ezberdinekiko dituzten hautemate, estereotipo eta errepresentazio sozialen azterketan oinarrituta, kultura ezberdinen arteko elkarbizitzarako bide eta oinarriak azalarazi nahi ditugu.

Ahalegin horretan, hainbat elkarrizketa ireki burutu ditugu, 12 elkarrizketa ireki, hain justu ere. Erabilitako metodologiaren aurkezpena biltzen duen atalean ikus daitekeenez, besteak beste, jatorri, kultura, adin eta eremu ezberdinetan jarduten duten herritarrek parte hartu dute elkarrizketetan. Ondorioz, elkarrizketa kopuru polita egin dugulako batetik, eta topatu ditugun herritarrek askotarikoak izan direlako bestetik, informazio ugaria eta oparoa bildu dugu: asko, oso baliagarria eta aberatsa. Lan horren guztiaren emaitza da aurkezten ari garen txostena.

Txostena hiru zati nagusitan banatu dugu. Lehen atalean, etorkin berrien hautemate eta errepresentazio sozialak aztertu ditugu. Dituzten bizi proiektu eta migrazio proiektuen baitan ulertu nahi izan ditugu integrazio sozio-ekonomiko eta kulturalerako joerak eta bideak, hain zuzen ere. Aztertu dugu balizko integrazio bide horien egunerokoa, hau da, nola ehuntzen diren pertsonen arteko harremanak integrazio bide horiei eta migrazio proiektua sostengatu ahal izateko. Bigarren atalean, espainiar estatuko jatorria eta bertako jatorria duten zaldibiarren hautemate eta errepresentazio sozialak aztertu ditugu. Eta hirugarren atalean, behin jatorri eta kultur ezberdinetako zaldibiarren hautemateak arakatu ondoren, diskurtsotan nabarmentzen diren kulturen arteko harremanetarako ereduak landu ditugu.



-METODOLOGIA OHARRAK-

**ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN:
DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK, 2013**

LANDA LANAREN LABURPEN TAULA

Unibertsoa: Jatorri, kultura eta identitate ezberdinetako zaldibiarrek

Elkarrizketak: 12 elkarrizketa.

- Espainiar estatuz kanpoko jatorria duten zaldibiarrek: 3.
- Espainiar estatuko jatorria duten zaldibiarrek: 1.
- Euskal herriko beste herrialdeko jatorria duten zaldibiarrek: 1
- Bere gurasoak Espainiar estatuko jatorria duten zaldibiarrek: 2.
- Bere gurasoak jatorri euskalduna duten zaldibiarrek: 5.

Ikerketan parte hartu duten pertsonak guztira:

- 13 herritar.
- 4 gizon eta 9 emakume.

Data: landa-lana 2013. urteko otsaila eta martxoaren bitartean egin dugu.

Ikerketa kualitatibo hau egiteko, honako teknika erabili da: **elkarrizketa sakonak**. Jarraian, egindako elkarrizketen ezaugarri zehatzak zein izan diren aurkezten da, baina azal dezagun lehenago zein gogoeta egon den diseinuaren oinarrian.

HERRITARRAK SAILKATZEKO ERABILI DIREN HONAKO LAU ARDATZ HAUEN ARABERA DISEINATU DA IKERKETA KUALITATIBOA.

- ✓ **Batetik, jatorri, kultura edota identitate aniztasunaren ardatza** dago. Ardatz nagusia izan da lan honetan, azterketa gaiak finkatzen duen eremuan ardatz honek baldintzatzen ditu diskurtso ildo nagusiak. Hori dela eta, egin diren elkarrizketa irekien diseinua nagusiki, ardatz honen arabera da. Ardatz honen barruan honako banaketa egin da:
 - Espainiar estatuz kanpoko jatorria duten zaldibiarrek,
 - Espainiar estatuko jatorria duten zaldibiarrek,
 - Euskal Herriko beste herrialde bateko jatorria duten zaldibiarrek,
 - Guraso euskaldunetako zaldibiarrek,
 - Espainiar estatuko gurasodun zaldibiarrek.
- ✓ **Bigarrenik, elkarrizketatuaren genero ardatza** da. Generoak baldintza ditzake makina bat hartu-eman: bizitako gertaera eta bizipen ezberdinak, bizitza eta harremanak begiratzeko moduak, gizarte egituraren txertatzeko modu berezituak ... Hortaz, ikerketa hau ezin izan da burutu aldagai hau kontuan hartu gabe. Halaber, aipatu behar da, zaldibiarren kasuan perfil konkretu batzuetara iristeko aurkitu diren zailtasunengatik, pertsonaren sexuari baino beste ezaugarriei eman zaiela lehentasuna. Ondorioz, azkenean emakumezko gehiago elkarrizketatu dira gizonezkoak baino.

- ✓ **Hirugarrenik, seme-alaben ardatza** da. Alegia, elkarrizketatuak seme-alaba duen edo ez. Izan ere, adin txikiko seme-alaba izateak hainbat eremutan beste zaldibiarrekin harremanak izateko zubia den neurrian, eta hizkuntza ereduaren gainean hautuak egitera behartzen duen neurrian, azterketa honetan aintzat hartu da.
- ✓ **Laugarrenik, elkarrizketatuaren ama-hizkuntzaren ardatza eta parte hartze sozialaren** ardatzak izan dira kontuan. Zehazki, ama-hizkuntzaren ardatza erabili da etorkin berriekin egindako elkarrizketetan. Hain zuzen ere, banaketa nagusia izan da ama-hizkuntza gaztelera izan edo ez. Partaidetza sozialaren ardatza erabili da Zaldibian jaio diren pertsonen artean, horien artean bereziz elkarte batean ala mugimendu sozialean parte hartzen dutenak.

Beraz, ardatz nagusi hori, eta beste maila batean kokatu behar diren bestelako ardatzak, abiapuntu izanda, jarraian zehazten dugu nola banatu diren egindako elkarrizketak.

JATORRI, KULTURA EDOTA IDENTITATE ANIZTASUNAREN ARDATZAREN BAITAN, HORRELA BANATZEN DIRA EGINDAKO 12 ELKARRIZKETAK (13 PERTSONA).

✓ **Espainiar estatuz kanpoko jatorria duten zaldibiarrak (3 elkarrizketa)**

Elkarrizketa hauen bidez etorkin berriak elkarrizketatu ditugu, hainbat aldagai kontuan hartuta. Multzo honen barruan, aintzat hartu dugun aldagai nagusia ama-hizkuntza izan da. Hain zuzen ere, gaztelera izatea ama-hizkuntza edo beste ama hizkuntza izatea, azterketa honen helburuei begira, aztertu beharreko aspektua iruditu zaigu. Gauzak horrela, elkarrizketa bat ama-hizkuntza gaztelera dutenari egin zaio, eta beste biak gaztelera ez dutenei. Hortaz gain, Zaldibian igarotako urteen aldagaia dago. Aldagai honen barruan 5 urte baino gehiago daramatzaten eta ez daramatzatzenen arteko banaketa egin dugu: elkarrizketa bat 5 urte baino gutxiago daramatenei eta beste biak gehiago daramatenei.

✓ **Espainiar estatuko jatorria duten zaldibiarrak (elkarrizketa 1)**

60-70 hamarkadan bertaratu ziren etorkinak dira kategoria honetan bilatu direnak.


✓ **Euskal herriko beste herrialdeko jatorria duten zaldibiarrak (elkarrizketa 1)**

✓ **Bere gurasoetako batek ala aitona-amonetako batek bederen Espainiar estatuko jatorria duten zaldibiarrak (2 elkarrizketa).**

✓ **Guraso euskaldunetako zaldibiarrak (5 elkarrizketa).**

Adin tarte ezberdinak kontuan izan dira. Horretaz gain kontuan ere izan da herriarekiko ezagutza maila eta jatorri aniztasunarekiko gertutasuna, horretarako lan mota ezberdinetan erreparatuz.

Laburtuz, horrela banatuko dira elkarrizketa sakonak:



LANDA-LANA


Landa-lana 2013ko otsaila eta martxo bitartean egin da.

ELKARRIZKETA IREKIEN EZAUGARRI ZEHATZAK BILTZEN DITUEN TAULA

Ondoren ageri den taulan laburbildu dira elkarrizketatu diren herritarren ezaugarriak. Jarraitu aurretik, argi utzi nahi dugu honako hau: ezaugarri horien zehaztasun maila parte hartu duten herritarren anonimotasuna ziurtatzeraino iristen da, ez gehiago.

✓ **Elkarrizketak**

ZK.	HIZKUNTZA	SEXUA	IZAERA
ES1	Gaztelera	Gizona	Espainiar estatuz kanpoko jatorria duten zaldibiarra
ES2	Gaztelera	Emakumea	Espainiar estatuz kanpoko jatorria duten zaldibiarra
ES3	Gaztelera	Emakumea	Espainiar estatuz kanpoko jatorria duten zaldibiarra
ES4	Gaztelera	Emakumea	Espainiar estatuko jatorria duen zaldibiarra
ES5	Euskara	Gizona	Guraso euskalduneko zaldibiar jubilatua
ES6	Gaztelera	Emakumea	Euskal herriko beste herrialde batean jaiotako zaldibiarra
ES7	Euskara	Emakumea	Bere gurasoetako batek Espainiar estatuko jatorria duten zaldibiarra
ES8	Euskara	Emakumea	Guraso euskalduneko zaldibiarra, irakaslea
ES9	Euskara	Emakumea	Guraso euskalduneko zaldibiarra, gizarte arloan langilea
ES10	Euskara	Gizona	Bere aitona-amonetako batek Espainiar estatuko jatorria duten zaldibiarra, langabetua
ES11	Euskara	Emakumeak	Guraso euskalduneko zaldibiar nerabeak (2)
ES12	Euskara	Gizona	Guraso euskalduneko zaldibiarra





-AZTERLANAREN TESTUINGURUA-

GLOBALIZAZIOA, MIGRAZIOA, ANIZTASUNA ETA ESTATURIK GABEKO NAZIOAK

**ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN:
DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK, 2013**

Globalizazioa edota mundializazioa bezalako kontzeptuak hitzetik hortzera entzun eta erabiltzen dira azken bi hamarkadatan. Ez dira, ordea, aurrekaririk gabe sortu; izan ere, 60 hamarkadarako jada informazioaren gizarteaz hausnartzen zenbiltzan teorikoak "herrixka globalaz" (Marshall McLuhan) hitz egiten hasiak ziren eta. Dena dela, ez da 90. hamarkadara arte nabarmen agertzen izaera ekonomikoa, teknologikoa, sozial eta kulturala duen fenomeno hau.

Globalizazioa, beraz, komunikazioaren eta elkarrekiko dependentziaren hazkundean oinarritzen den prozesu ekonomiko, teknologiko, sozial eta kulturala da. Eskala planetarioan ematen da, eta merkatu, gizarte eta kulturen bateratze indartsu bat sustatzen du, zenbait eraldaketa sozial, ekonomiko eta politikoen eskutik.

Itzal eta eragin ekonomiko nabarmena izan duen globalizazio prozesu honek mugarri batzuk izan ditu. Batzuk aipatze arren, gogoan izan behar dugu 80. hamarkadan Thatcher eta Reaganek sustaturiko politika ekonomiko "berriak". Edota Berlingo harresia erorita, nagusitu den globalizazio eredu honek ez zituen oztopo askorik izan planeta osora prozesu horren ondorioak barreiatzeko.

Globalizazio prozesu honen baitan ulertu behar dira herrien arteko eman diren ezberdintasun ekonomikoen hazkundea. Hain zuzen ere, hego eta ipar hemisferioaren arteko ezberdintasunen hazkundea, baten aberastasuna eta bestearen pobrezia harremanetan egonik. Horrek guztiak ekarri du hego hemisferioko pertsonen migrazio mugimenduak kuantitatiboki handitzea eta denboran azkartzea. Horren emaitza da ekonomikoki garatuago dauden herrietan hego hemisferioko pertsonen etorrera, Europan nahiz Euskal Herrian.

Alabaina, globalizazio honek ekarri ditu beste ondorio batzuk. Hain justu ere, ondorio kulturalak, non bateratze eta uniformizaziorako joerak asko indartu dira. Korrante uniformizatzaile indartsu horren erreakzioz edo, modu paraleloan tokian tokiko identitate kolektiboak indartu egin dira, tartean identitate nazionalak. Euskal Herrian kokatuz jada, kultura estandar baten aurrean uniformizazio arriskuak sortu ahal dituen kezkez gain, globalizazioak bultzaturiko bizilagun berriak ekarri ditu gurera. Jatorri eta kultur ezberdinetako bizilagunak izaki, erronka berri bat nabarmentzen da: aniztasun hori jendarte hausturarako tresna izan ordez, jendarte kohesiorako elementua bilakatzea.

Horrenbestez, globalizazio honek ekarri dituen ondorioen aurrean, kolektibitateak eta herriak erronka berrien aurrean aurkitzen dira. Alabaina, ezin ukatu erronka horiek ez diela modu berean eta sakontasun berarekin eragiten estatu burujabea duten herri eta nazioei -horrek lotura horri dagozkion kudeaketa-tresna gutxieneakoak bermatzen baititu- eta estatutik gabeko herri eta nazioei. Bestela ikusita: tresna estrategiko hori ez duten herri eta nazioen aldean, estatua duten herriek egoera hobea dute prozesu horien bilakaeran, emaitzetan eta ondorio on nahiz txarretan eragiteko.

Bestela esanda, oraingo egoera historikoan, joan-etorriak, migrazioak eta, haien ondorioz, aniztasuna areagotzea erronka bat da elkarbizitzari dagokionez, baita gure gizartean ere. Gure herri eta auzoetako aniztasuna jendarte kohesio elementua bilakatzeko, aniztasun horren kudeaketa egokia behar da. Aniztasunaren kudeaketa egoki hori ez da eragile bakar

baten ardura edo erronka, are gehiago, hanka motz geratuko litzateke eragile ezberdinak(administrazioak,elkarteak, herritarrak ...) norabide antzeko batean posizionatuko ez balira.

Aniztasunaren kudeaketa egoki horrek, beraz, behar ditu eragile ezberdinen artean aniztasunaren fenomenoak kokatzeko oinarritzko sintonia batzuk. Baina horretaz haratago, behar ditu aniztasunaren elkar ezagutza eta aitortza oinarritutako politikak sustatzea. Politikak batzuk non aniztasuna sustatuko duten balore positibo moduan, eta, bestetik, pertsona guztien, dena delakoa jatorria, aukera berdintasuna eta desberdintasun eskubidea bermatuko dituzten.

Azterketa honen helburuak zeregin horietan kokatzen dira. Izan ere, aniztasun fenomenoaren oinarritzko sintonia hori sustatze aldera, zaldibiarren diskurtsoak aztertuz sintonia horretarako aukerak eta oztopoak aztertu dira. Eta era berean, pertsona eta kultura ezberdinen elkar ezagutza eta aitortza oinarritutako politikak bultzatzeko heldulekuak arakatu nahi dira, besteak beste.

Egungo testuinguruaz gain, azterketa honetarako garrantzitsua iruditu zaigu migrazio mugimenduek historikoki Zaldibian izan dituen beste olatua, eta horretan egon den bizipena ere aztertu eta jasotzea. Honela, 50-70 hamarkaden artean Espainiar Estatutik etorritako etorkinak eta hauekiko elkarbizitzaren nondik norakoak ere arakatu nahi izan dira, atal berezi bat honi eskainiz. Nolabait, garaiko migrazio olatu horren aurrean hartutako jarrera eta sortu zituen ondorioak ulertzeak egungo egoeran hobe kokatzeko aukera ahalbidetuko duelakoan.



-ANALISIA-


**JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE
EZBERDINETAKO ZALDIBIARREN ARTEAN ELKAR
EZAGUTZA, AITORTZA ETA BIZITZA**

**ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA ZALDIBIAN:
DISKURTSOAK ETA HAUTEMATEAK, 2013**

1

EUSKAL HERRIA ETA ESTATU ESPAINIARRETIK KANPOKO HERRIALDEETAKO ZALDIBIARREN MIGRAZIO PROIEKTUAK

zaldibiarren artean **Euskal Herrian jaiotakoek ehuneko oso altua** osatzen dute. Herritarren % 85,5a dira. zaldibiarren gainerako % **14,5a Euskal Herriko mugetatik kanpo** jaiotakoa da. Eta hauen artean **Estatu espainiarretik kanpoko herrialdeetako etorkinak % 9,2a** dira.



Espainiar estatutik kanpoko jatorria duten etorkinen jatorriari erreparatuta **gehienak Errumania, Afrika iparraldea eta Portugal**dar jatorria dutenak direla ikusten da.

Azken hamarkadetan etorritako pertsonak dira, immigrazio fluxu berriak. Eta datu demografikoei erreparatuta **biztanleriaren adin egitura gaztetzea eragiten dute**, jende nahiko gaztea izan ohi baita (kasu askotan haur edo gaztetxoekin).

Euskal Herritik kanpo jaiotakoak, estatuz estatu

	Kopurua	Ehuneakoak (%)
Espainiar Estatua	62	27,8
Errumania	59	26,5
Maroko	23	10,3
Portugal	15	6,7
Galiza	14	6,3
Dominikar Errepublika	7	3,1
Ekuador	6	2,7
Països Catalans	5	2,2
Txile	5	2,2
Alemania	4	1,8
Argentina	4	1,8
Bolivia	4	1,8
Argelia	3	1,3
Honduras	3	1,3
Nikaragua	3	1,3
Eskozia	2	0,9
Ekuatore ginea	1	0,4
Frantziar Estatua	1	0,4
Kuba	1	0,4
Peru	1	0,4
Guztira	223	100,0

Iturria: Aztiker, bigarren mailako datuen ustiaketa. 2012

1.1 EUSKAL HERRIA ETA ESTATU ESPAINIAR JATORRITIK KANPOKO ZALDIBIARRENMIGRAZIO PROIEKTUAK (ETORKIN BERRIEN MIGRAZIO PROIEKTUAK)

ZERGATIK EUSKAL HERRIA/ESPAINIA

Etorkin berriek Espainiara etortzen direla dute buruan, Espainia iparraldera. Bertaratzeko arrazoien artean 3 jaso dira:

- ✓ **“Espainia iparraldea” herri oparo gisa** irudikatzen da, lana badago eta ongi bizi da jendea. Kasu horietan **aukera kontziente** bat da.
- ✓ **Dei-efektuaren ondorioz:** jatorri berdineko beste pertsona batzuk bertan egonda lan egiteko deitzen dituzte.

“igual si viene es porque igual su tío o su primo o su hermano... o algún familiar que le, le busca trabajo”.ES_1

- ✓ **Bateratze familiarragatik.** Senar-emaztea hemen izanda ez da beste jomuga batean pentsatzen.

“y al final le gusta a mi marido para... venir paca. Y al ver la gustado mucho..te había trabajo también... Siempre... tenía trabajo. Y al final um... me pide para subir aquí. Y a he dejao todo ahí... y me vine pa'cá”. ES_2

ZER EZAGUTZEN DA EUSKAL HERRIAZ

Oso eskasa da Euskal Herriaz **aldez aurretik** daukaten **ezagutza**, kasu batzuetan ETA eta borroka armatuaren inguruan zerbait entzun dute, baina hortik aurrera ezer gutxi.

Normalean **aldez aurretik duten erreferentzia estatu-nazioarena** da. Espainiara doazenaren ideia dute, edo espainiar iparraldearena asko jota.

“...pues el País Vasco es, yo he venido aquí, para mi es el mejor país de España”. ES_1

Ez dago ezagutzarik paisaia eta herri tamainaren inguruan, **ez** eta bertako **kultur aniztasunaren inguruan**. Hori guztia behin bertan direlarik deskubritzen dute.

Zerbait dakitenak aldeztu aurretik familiako norbaitek emandako erreferentziengatik da, kontatu dizkieten gauzengatik.

MOTIBAZIO EKONOMIKOA OINARRI. BIZI HOBE BATEN BILA.

Faktore ezberdinek eraman dezakete pertsona bat migrazio proiektu batean murgiltzera; beste gauzen artean, arrazoi kulturalak, sozioekonomikoak, familiarrek, guda eta bestelako gatazkek edo katastrofeek.

✓ **Bizitza hobe bat lortzearen helburua:**

Zaldibian bizi diren estatu espainiarretik kanpoko etorkinek (aurrerantzean etorkin berriak) bizitza hobe bat lortzearen helburua dute. Bizitza hobe, lana izan ala lan baldintzen hobekuntzarekin lotzen da.

"Vine a buscar un lugar para trabajar y a vivir." ES_1

"seguro que hay una vida mejor, porque hay tanto trabajo ahí..." ES_2

"la finalidad de venir aquí es mejorar un poco y nuestra idea era traer a nuestros hijos"
ES_3

- ✓ Migrazio proiektuan zehar fase ezberdinak daude, erresidentzia egoera erregulatzearekin hasten dena kasu askotan. **Esperientzia migratorioaren garapeneko faseak bizitza hobe horrekin ulertzen dena baldintzatzen du.** Euskal Herrira bigarren salto batean etorri direnen kasuan, abiapuntua ezberdina da. Lan baimenak eta beharrezko paperak izanik, motibazio nagusia lanak izaten jarraitzen duen arren, lan baldintzei ere erreparatzen zaie.

"si tu viene aquí, hay trabajo, hay horas pa respetar pa trabajar... hay mas dinero para la hora también. Ahí ganas cinco euros pa la hora, aquí diez u ocho... como estaba antes. Siempre estaba todo el día, de la mañana hasta la noche, trabajando trabajando... no hay hora respetable para trabajar. Y eso me mata a mi también. ES_2

ZEREKIN AURKITZEN DIRA BEHIN EUSKAL HERRIAN

- ✓ **Inpaktu espaziala, ingurune-inpaktua;** paisaia ezberdina, menditsua, klima hezea, euria...

"Eh... eh... y allá, en... llega el día de nueve de diciembre. Y había nieve, lluvia... Toda la semana, casi diez días no había sol... Yo no acostumbraba sin sol..." ES_2

- ✓ **Talka kulturala:** ezberdintasunak hizkuntza aldetik, harremanak bizi eta sortzeko moduan, komunikazio estiloan, ohituretan, jokaeretan

Modu ezberdinetara bizi da eta inpaktu ezberdina du jatorrian dagoenarekin egiten den konparazioaren arabera. Honela, adibide bat jartzeagatik, euskaldunek hitz egiteko eraren aurrean **bi bizipen** ezberdin daude:

- Hego Amerikako jatorria duen pertsonarentzat bertako jatorria duten herritarrak zakarrak dira eta formak ez dituzte gehiegi zaintzen hitz egiterako orduan.

"Y eso porqué, porque es un chiquitito que... "gracias", "buenos días", "adios" o cosas así, el dice de una forma muy delicada, cosa que no hay aquí. Mucha gente no le da importancia a eso." ES_3

- Aldiz ipar Afrikatik datorren pertsona batentzat aldiz edukazio askorekin hitz egiten da hemen.

"los vecinos bueno... español vecinos ahí... cuanto se habla... con ellos, siempre hay palabras feas, mala... Tu sabe como habla ahí... siempre con alguna palabra tirada... Por ahí. Aquí no se puede hablar... Y aquí, son muy respetuoso..." ES_2

- ✓ **Gauzak egiteko modu ezberdinak eta sistema instituzional eta administratibo berriak.** Gizarte segurantzaren funtzionamendua, mugikortasun aldetik aukera ezberdinak, informazioa bilatzeko modu ezberdinak, ordaintzeko sistemak, burokrazia...

"allá si tienes un problema vas a la familia, y la familia te soluciona. Y... si vas a hacer algún tramite, siempre tienes a alguien "allá voy", y te dice de ir tú y preguntar. En cambio aquí todo tienes que ir tú, e informarte y conoces y... son dos sistemas de vida y de organización muy distintos. Muy muy distintos." ES_3

ZERK LAGUNTZEN DIE IRISTEAN

Harreman sarea funtsezkoa da informazioa lortzera begira. Harreman eta kontaktu horiek gauzak errazten dituzte, izan ezean zailtasun handiagoekin aurkituko liratekeela aipatzen delarik.

- ✓ Harreman sareen bitartez lortzen da **iritsi eta herrialdean kokatzeko behar den oinarritzko informazioa.**
- ✓ Harreman sare hori **jatorri bera duen pertsonak ala aldez aurretik etorritako inguruko herrialdeetako etorkinek** osatzen dute. Behin hemen, harreman sarea zabaltzen hasten da.
- ✓ **Lehen kontaktua iritsi baino lehen sortua** dago gehienetan. Behin Euskal Herrian, pertsona horiek dira lehen eta oinarritzko informazio beharrak asetzen dituztenak.

"fácil no es, de verdad que no es fácil, porque si tienes un conocido o, o lo que has dicho tu si vas uno y te informa lo que es y te puede echar una mano seria mucho mejor. Pero en mi tema pues, yo lo que fui, lo que pedí ayuda bueno, será al este, al que me consiguió el piso. y luego pues, luego de allí, conociendo gente y yyy teniendo mas relaciones con la gente, te hablas mas y... luego con la gente también nos llevamos bien. Se podía bueno, se podría..." ES_1

BIZI PROIEKTUAN ERAGIN GARBIA FAMILIAK.

Bizi proiektua pertsona batek bere existentziarako markatzen duen norabidea da. Bere baloreen baitan, bere beharrak ase eta desioak betetzeko garatuko dituen ekintzek osatzen dute proiektu hau. Bizi proiektuak aukerak eta norabide batzuei heldu eta beste batzuk baztertzea suposatzen du.

Pertsona hauen **bizi proiektuan familia ardatza** da, garrantzia handia du.

- ✓ **Jatorria eta beraien herrialdearekiko harremana eta lotura familiaren bitartez** mantentzen da. Era berean familia Euskal Herrian izateak bizi proiektuan eta hortaz, migrazio proiektuan garbi eragiten du.
- ✓ Askotan migrazio proiektuan familia zabalaren egoerak baldintzatzen du. **Batzuen kasuan, familiaren egoera ekonomikoari aurre egiteko ideiarekin ekiten zaio migrazio proiektuari.** Euskal herrira etortzean, hemen irabazten denaren kopuru bat ere bertara bidali behar izaten da. Horrek **beraien bizi kalitatean eragina** dauka, aurrezte ideia hori buruan uneoro presente bai dute.

SEME ALABAK EUSKAL HERRIAN IZATEA INFLEXIO PUNTUA.

Geratzeko erabakia hartze horretan **seme alabak dira giltza. Euskal Herria, etorkizun hobeago bat eskaini ahal dien** gune bezala ikusten dute.

Hobekuntza horren **ardatzean hezkuntzak** balio garrantzitsua hartzen du. Sem e alabek ikasteko aukera gehiago eta orokorrean gizarte jantziago bat dela irudikatzen dute.

"No también quiero una vida mejor pa mi hija, q y aquí que ha notao? Que todo el mundo tiene libro, a mano". ES2

Krisi egoerak kezka sortzen duen arren, geratu edo joateko lehia horretan **Euskal Herrian geratzea irabazten** ateratzen da **jatorriko herrialdeekiko konparaketan.**

"Es que no, no, no me iría. Por que ahora no soy solamente yo, son mis hijos. Ella ya está a punto de terminar el bachillerato, el otro está en el mismo camino...y de cara al futuro también. Si quieren estudiar algo, se que aquí tienen más oportunidad que en nuestro país". ES3

NOIZ ARTE EUSKAL HERRIAN

Migrazio proiektuaren garapenean iristen da momentu bat non galdera hori planteatzen den.

Euskal herrian **geratzeko denbora proiektatzerako momentuan eragiten dute:**

- ✓ Aldez aurretik egindako **espektatiben asebetetze mailak**: espektatibak ez badira betetzen, jatorriko herrialdera bueltatzeko desioa oso presente mantentzen da.
- ✓ **Pertsonaren baldintza familiarrak**: ezberdin baloratu daiteke egoera pertsona ezkondua badago, seme alabak baditu, seme alabak jatorriko herrialdean badaude.
- ✓ **Jatorriko herrialdean dauden harremanak eta familiarekiko loturak**.

Zaldibiako etorkin berrien artean **2 diskurtso ezberdin** nagusitzen dira:

- ✓ **Etorkizun batean beraien jatorrizko herrialdeetara bueltatzea pentsatzen dutenak.**

- Motibazio ekonomikoak bultzatu ditu etortzera eta bide horretan oinarritu dute beraien bizi proiektua Euskal Herrian. Asebetetze maila nahiko altua da.
- Aurrez ez da bueltatzeko datarik jarri.
- Bikote proiektua euskal herrian sortu da.
- Jatorriko herrialdearekin lotura mantentzen dute, adibidez bertan etxebizitza bat izanik.

"no es casi un día que no pienso en mi tierra. Y pienso volver algún día, porque me he hecho allí la casa y justo allí están mis padres y mis hermanos, mis tías y familia. Yo allí me siento como, en mi casa me siento (...). Cada uno donde a nacido le tira ahí, su tierra. Pues un día pienso volver.

P: ¿TU IDEA ES VOLVER?

R: si, no se cuando sera..." ES_1

- ✓ **Inolaz ere bueltatu nahi ez dutenak.**

- Motibazio ekonomikoak bultzatu ditu etortzera, eta horretan jarri dute indarra hasieratik.
- Lehen oztopoak gaindituta (lan esparruan egonkortasuna, egoera erregulatzea...) herri honek eskaintzen dituen aukerak eta jatorriko herrialdeak eskaintzen dituenaren arteko konparaketa bat egiten da. Euskal herria ateratzen da lehia horretan irabazle, bizi kalitatea bermatuagoa ikusten dutelako.

"la tierra que te ofrece un... lugar para vivir mejor... un trabajo al lado de mi casa, no cogiendo autobús ni nada, te respeta la gente, tengo una vida mejor para mi hija, tengo muchas amigas, ten buen sitio para que estudiar, para que voy mover de aquí? Para venir ir a... Imagínate esta situación es buena. Es mi país, mais tengo repulsa por la educación que tienes allí la gente. No respeta ni a la mujer casada, ni esta soltera, ni nada". ES_2

"Yo no quiero volver a mi país eh...no, no pienso volver. Y eso es lo que algunas veces mis amigos me preguntan y...bueno una pareja de amigos, compatriotas también que suelen venir, que son con los únicos que tenemos amistad. Ella está desesperada de irse allá, y yo le digo yo no, yo no me voy." ES_3

1.2 INTEGRAZIORA BIDEAN ABIAPUNTUA, INTEGRAZIO SOZIO-EKONOMIKOA

Atal honen sarrera gisa, integrazioaren bideak zeintzuk diren azaltzen da. Hain zuzen ere, etorkinaren ikuspuntutik, hiru integrazio bide daude integrazioaren pertzepzio subjektiboa eratzekoan:

1. **Integrazio sozio-ekonomikoa:** lan merkatuan eta gune urbanoan txertatzea.
2. **Integrazio kulturala:** kultura autoktonoaren ereduak jarraitzea, batez ere, hizkuntza autoktonoa.
3. **Integrazio politikoa:** euskal abertzaletasunaren helburu eta aldarriei atxikitzea.

Motibazio ekonomikoak dituzten etorkinen kasuan behar materialak asetzea izaten da lehen erronka. **Erronka horiek honelako bizi eremuetan multzoka daitezke:**

- ✓ **Soldatapeko lana**
- ✓ **Etxebizitza**
- ✓ **Zerbitzu publikoa eta eskubide sozialak**



Guzti honetan **harreman sarearen garrantzia funtsezkoa da esparru guztietan**. Iritsi eta lehen harrera eta oinarrizko informazioa lortzera begira bai, eta lana eta etxebizitza lortzerako orduan ere.

Harreman **sare hori** behin **Euskal Herrian** osatzen dute:

- ✓ **Aldez aurretik egindako kontaktuek:** Euskal Herrira iritsi baina lehen ia guztiek dute kontakturen bat. Jatorri berdineko norbait edo familiartekoren bat, edo lagun baten laguna.
- ✓ **Behin Euskal Herrian ezagutu diren herritarrak:** lankideak, herritarrak... Lanaren bidez jendea ezagutzen hasten da, sare hori handitzen doalarik. Gizarte honetan harreman sareen garrantziaz jabetuta, alderdi hau ere zaindu egiten da.

1.2.1 SOLDATAPEKO LANA, INTEGRAZIO SOZIOEKONOMIKOAREN GILTZA

Lana integrazio ekonomikoaren giltza bada ere, ez da nahikoa. Ez du segurtasun bat bermatzen, ez eta baldintza duintasun batean bizitzeko aukera ematen. **Migrazio proiektuaren faseak baldintzatzen du lanarekiko gerturatzea eta ikuspegia.**

Zaldibian dauden etorkin berri hauen kasuan, gutxi dira atzeritik lehen saltoan iritsi direnak, iristerako lehen **behar batzuk ase** zituztelarik. Horrek **aukera ematen die hobekuntza batean pentsatzeko**, beste behar batzuei bide emateko. Hala ere, lanarekiko lehen gerturatzean Euskal Herrian bide honetatik joan dira:

EDOZEIN LAN, EDOZEIN PREZOTAN

- **Hasierako momentuetan helburua lana egitea da, besterik ez.** Batez ere **ez da lanaren kalitatean eta baldintzetan erreparatzen**, batzuetan ez da horretarako eskubidea dagoenik ere pentsatzen.

"Dice "¿quieres trabajar, estas buscando trabajo? ¿No te importa que sea en cualquier cosa?" y yo "no, no, no, quiero trabajar" (...) "trabajadores las 24 horas, la limpieza, atención de los animales, dar comida, hacer los mandados... Estábamos sin descanso, trabajábamos la 24 horas... hemos estado allí mas de dos años". ES_3

- Lan baten beharrak edozein baldintzetan lan egitera behartu ditu; sarritan kontraturik gabe, egunean 24 orduz etengabe lanean...

"Trabajadores en las veinticuatro horas, en la limpieza, en la atención de los animales, dar comida, hacer los mandados que....

P: O SEA..¿ESTABAIS INTERNOS LOS DOS EN EL CASERÍO?

R: Si. Estábamos como te digo, sin descanso, las veinticuatro horas." ES_3

- **Etorkin berriek, hainbat oztopo aurkitzen dituzte beraien ibilbideetan, besteak beste tratatu txarrak, errekonozimendu falta eta prekarietatea.**

"Porque me pagaban muy bien y todo, pero la señora era terrible, jo... yo le decía "¿por que me grita tanto?", "para eso te pago me decía". Y ero muy duro. ES_3

- **Ez dira berdintasun posizio batean kokatzen bertako jatorria duten herritarren aurrean.** Mendekotasun jarrera bat antzematen da lan eremuan. Eremu honetan **ezberdintasunak ikusi eta batzuetan ulertu** ere egiten dira, beraiek agian berdina egingo luketela adieraziz. Baina kontraesan batean erortzen dira, gero aldarrikatzen delako ere errespetua eta berdintasuna. Edozein kasutan **enpatia jarrera bat azaldu nahia antzematen zaie**. Jarrera horretan **jatorriko herrialdean dagoen autoritate kulturak eragiten du**. Hierarkia oso markatua duten herrialdeetatik datozenak, errazago kokatzen dira menpeko posizio horretan. Eta errespetu eta beldur handiz aldarrikatzen dira gauzak.

"Hoy en día hay gente de aquí también que va buscando sus trabajos, entonces y hay veces al no encontrarlos dicen: no. Y yo les entiendo, es lógico que digan: esta emigrante le han dado el trabajo. Y no me lo han dao a mí y es lógico. Ellos están en su país, yo haría lo mismo, entonces yo les entiendo pero...de que nos dificulta mucho y de que no debería haber eso de que yo te ayudo a ti porque tú eres de mí país, no debería de haber si al menos estas como jefe o como directora". ES_3

O-TIK HASTEN DEN IBILBIDE PROFESIONALA

- **Iraganean egindakoak ez du islarik.** Ibilbide profesionalean EHra etortzeak apurketa suposatzen du, ikasitakoa jatorriko herrialdean gelditzen da.

"Allá en mi país yo hice contable, pero allá no he tenido tanta oportunidad. En cambio aquí es verdad sin título de bachillerato no me ha servido, es más he tenido que hacer la eso nuevamente" ES_3

- **Baina exigentziarik ez da jartzen lan eremuan eta onartutzat ematen da egoera hori. Eskertutzat ere.**

"y si trabajas con personas mayores con todo el respeto del mundo y con todo el agradecimiento por que gracias a ellos tienes es un trabajo. Y porque en un día puedes ser mayor y me gustaría que me dieran un buen trato también." ES_3

- **Lan berdinen aurrean ez zaie berdina exijitzen,** ez dira baldintza berdinetan epaitzen. Desabantaila egoera batetik abiatzen dira, beraien jatorria dela eta.

"Yo entiendo que digan: pues esta persona no trabaja bien, o esa persona es así que no se que...éso es una cosa. Pero tú como vas a poner en un puesto de trabajo a alguien que no tiene titulación si has exigido a otra que tiene que tener la titulación. La única diferencia que hay entre las dos es que ella es de aquí y yo no". ES_3

- **Etorkizun laboralaren proiektzioan mugak** ikusten dituzte. Baina **denborarekin lan balditzetan hobekuntzak ere exijitzen dira.** Kontratua izatea, gizarte segurantzaren alta ematea etab. Batez ere lehen adierazi bezala egoera legeztatua dagoen momentutik aurrera.

"la cuestión que era trabajar sin papeles y yo no quería esto no. Porque te puede ocurrir cualquier día cualquier cosa y no tienes ningún derecho, ningún... peligroso. Por eso me fui". ES_1

SEXUAREN ARABERAKO LAN BANAKETA

Euskal Herrian, lanbide kualifikatuetan baino, beraien kondizio eta gaitasun fisikoekin lotutako lanetan daukate sarbidea. **Sexuak ere markatzen du horretan diferentzia:**

- **Emakumeak eremu pribatuan** aurkitzen dute sarbidea batez ere. Zaintza eremuan eta garbiketan.
- **Gizonezko gazteen kasuan indarrarekin lotutako lanetan**, eraikuntzan eta lantegietan batik bat.

LEHEN TALKAK LAN EREMUAN

Lan eremua interakziorako lehen esparrua bada, ezberdintasunak nabaritzen diren lehen esparrua da. Besteak beste;

- **Lan esparruan garrantzia duten aspektuetan ezberdintasunak**

Euskal Herrian, lan eskuaz gain, **lan harremanei ere garrantzia** ematen zaiela ikusten dute. Efizientea izateaz gain, lankideekin ongi moldatzea, lan esparruan harremana zaintzea etab asko baloratzen den gaia da. Horrek kasu batzuetan talka egiten du jatorrizko herrialdeetan duten funtzionamenduarekin.

"Yo creo que yo para mi empresa querría una persona capacitada, una persona que me saque adelante el trabajo. Es bueno comentar el compañerismo, es buenísimo, pero hasta que punto te pones a valorar..." ES_3

- **Lan estilo ezberdintasunak**

Lana bera egiteko moduan, liderra izateko moduan, **lanaldi eta atsedenaldi momentuak izateko aukeran estilo eta eskema ezberdinak** antzematen dituzte.

"la manera de trabajar también es muy diferente. Comparando de aquí allí. Se trabaja en cada país, yo creo que diferente. de principio nosotros allí, la costumbre de almorzar no... yo he aprendido aquí. Y la manera de almorzar también, paramos y... media hora casi hablar y... se cuenta, se hablar lo que se hace y..." ES_1

- **Autoritatearen aurrean kokatzeko modu ezberdinak**

Hierarkiarekiko ikuspegia ezberdina ikusten dute Euskal Herrian, **nagusiekiko harremana irisgarriagoa dela hemen** hain zuzen. Zailtasun baten aurrean koordinatzaile baten gainera nagusi bat badago, berarengana zuzenean jotzea arraroa eta zentzugabea iruditzen zaie.

" no soy de ir directamente a los jefes, no me gusta ir porque si hay una persona que me ha llamado para trabajar prefiero acudir a donde esa persona y decir. No donde su superior porque es como pasar su autoridad y quiero respetar eso. Y me suelen decir las compañeras: ¿Por que no vas a donde el director? Y yo les digo : pero si el director a mí no me conoce..." ES_3

- **Lana aurkitzeko moduen inguruan: harreman sareen garrantzia.**

Euskal herrian **lana aurkitzeko orduan harreman sareek duten garrantzia** aipatzen da. Askotan, lan bat aurkitu ala ez kontaktuen kontua dela ikusiz. Honela, sare hori mantentzeko eta elikatzeko esfortzu bat ere egiten da.

KRISI EGOERAREKIN, ETORKIZUNA ZALANTZAN

Kezka sortzen du gaur egun bizi den egoerak. Kezka bi zentzutan:

- **Lan gutxiago** dagoelako orokorrean **guztien artean banatzeko**.
- **Orain arte** ziurtasuna eman dien lan esparruan jatorri euskalduneko langileak ere sartzen ari direlako. **“Inork bete nahi ez zituen lanak” eginda ziurtasun bat** sentitu izan dute, lana egon bazegoelako. Baina egoera **hori aldatzen** ari da **eta honek kezka** sortzen du.

1.2.2 ETXEBIZITZAREN LORPENA

Lan esparruan bezala, etxebizitzaren lorpenaren aurrean ezberdin kokatzen da pertsona proiektu migratorioaren fasea eta egoera pertsonalaren arabera.

HASTAPENETAN EXIJENTZIA GUTXI

Ezberdina da etxebizitzaren lorpena nola gerturatzen diren bikotean edo bakarrik ala seme alabekin datozenak:

- **Bakarrik edo bikotean datozen pertsonen kasuan:**

Etxebizitzaren lorpenean **funtsezkoa harreman sarea** da, aldeaz aurretik familiako norbait ala ezagun bat izateak ematen duen aukera.

"No había un lugar donde quedarme y ella me dice que su sobrina tenía un piso y que por ella no habría ningún problema por tener un tiempo hasta que yo consiguiese un trabajo. Fuimos y la prima no quiso que yo me quedara en el piso. Entonces fue ahí donde me vi yo en la calle. Y que hago....a donde voy a dormir...que hago aquí, es muy duro. Esta señora como me conocía, pues entonces hablo con la madre de esta chica y la madre de esta chica muy comprensiva, prácticamente le obligo a tenerme ahí, en casa." ES_3

Ez da gehiegirik exijitzen, dagoenarekin konformatzen da; pisua konpartituta hasiera batean, gela bat alokatuz etab.

"si, he vivido con el tres años, con la hermana también y, nos facilito mucho vivir con ellos. Ellos también ya tenían familia. Y luego con el jefe que trabajo me encontró aquí, y después ya me he puesto solo" ES_1

- **Seme alabekin datozenen kasuan ala seme alabak dauden momentuan:**

Lehen momentu batean edozer onartzen den arren, **baldintza ekonomikoak hobetzen diren heinean etxebizitza arloan ere aldaketak** ematen dira. **Gero eta hobekuntza gehiago bilatuz, erosotasunera begira** batez ere.

"en principio estaba en un piso donde estaba eeee, no estaba, el primero donde llegue hasta que nació el hijo, no tenía, el piso estaba bueno pero la calefacción y las ventanas tenía poco vieja, y aquí bastante, bueno no hace mucho frío, pero siempre bastante, en invierno hay frío. Siempre había frío, como yo estaba en el trabajo, la mujer siempre que tenía mas frío que yo. Después el segundo y allí estaban el, después no, después me cambie a un chalet." ES_1

ETXEBIZITZAREN LORPENEAN ZAILTASUNAK.

Etxebizitzaren lorpenean etorkin berria izateak izan dezakeen eraginaren inguruan galdetuta **denetariko esperientziak** jaso dira.

- **Batzuentzat** etxebizitza lortzea zaila izan da. **Atzerritarra izateak zailtasunak sortu dizkie**, baina batez ere **laguntza eskatzean izan duten esperientzia txarrarekin lotzen dute**.

"yo ya había ido a la iglesia también para... porque sabía que la iglesia tenía unos pisos, el párroco nos trato muy mal. Es más no quiso ni atendernos y gracias a este señor de caritas que sabía que nosotros no éramos personas problemáticas, ya estábamos tres meses viviendo aquí en nuestra habitación. El se movilizó, conocía a la asistente social y la asistente social también nos dio... Se porto muy bien con nosotros, además se reunieron con el padre éste, y nos lograron alquilar el piso".ES_3

- **Beste kasu batzuetan** etxebizitzaren lorpenera begira **atzerritarra izateak ez du eraginik izan**. **Konfiantza sentitu dute herritarren aldetik** zentzu horretan eta interakzioa modu naturalean eman dela aipatzen da.

"Y en la relación de buscar este, pues la gente cuando mi mujer contó, la gente también nos demostró que nos querida ayudar. Para echar una mano, nos ofrecían bastantes casas y buscar y interesarte y... con esto si que puedo decir que nos ayudaron." ES_1

EGOERA EGONKORTZEAN PLANTEAMENDU BERRIAK

Euskal Herriko **egoera egonkortzen den heinean** etxebizitza arloan ere aldaketak ematen dira, **alokairuan egotetik etxebizitza erosteko planteamendua** egiteraino.

Egoera ekonomikoarekin lotuta noski, baina etorkizuna hemen proiektatzen den heinean etxebizitza arloan ere beste egonkortasun bat bilatzen da. Honela, hasiera batean alokairuan egoteko joera dagoen arren, denborarekin babes ofizialeko etxebizitza baterako sarrera ala erosteko planteamendua izatera ere pasatzen dira (agian Euskal Herriko joera hori dela ikusita).

1.2.3 ESKUBIDE SOZIALAK

Eskubide sozialez, administrazio publiko ezberdinek eskaintzen dituzten hainbat zerbitzu publikoz (hezkuntza, osasuna...), eta babes sozialeko neurriez goatzeko eskubideaz ari gara.

Atal honetan etorkin berriek dituzten hautemateak jasotzen dira:

- Herritarren eskubide sozialei buruz oro har
- Eta bereziki etorkin berrien eskubideei buruz.

1.2.3.1 HERRITARRAREN IKUSPEGIA. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK DITUEN HERRITARRA.

Eskubide sozialei dagokionez, etorkin berriek irudikatzen duten herritarra **eskubide eta betebeharrek dituen herritarrarena** da, egungo "hiritartasun" kontzeptutik gertu dagoena. Gizarte sistema honen barruan herritarrak **hartu-eman logika batean kokatzen** dituzte, hau da. Ikuspegi hau izan **arren**, hartu eman **sistamarako sarbidea leku ezberdinetan** kokatzen da.

ESKUBIDEETARAKO AUKERA, BEHARRETATIK ABIATUTA BETEBEHARRETARA

Ikuspegi honen arabera norbanako gisa, eta **jatorria edozein dela ere, beharrak asetutak izan behar ditugu**. Horretarako **aukerarik ez badago, estatuak eskaini** behar dizkigu laguntzak.

"Si tú tienes una casa donde vivir y el emigrante no tiene, es lógico que puedan ayudar a esa persona" ES_3

Baina, **laguntza** horiek **jasotzeak betebehar batzuk sortzen** dituzte, pertsona hori **"zorretan"** geratzen da estatuarekin.

- Batetik nolabait **'itzuli' egin behar da** jasotako laguntza, behar izango duten beste horiek ere eskuratu ahal izateko.

"A mi hace unos años me ayudaron, ya ahora estoy devolviendo. Me duele "tengo que devolver", pero... me da rabia pero también soy consciente de que hay gente que necesita" ES_3

Itzultze horrek **ez du zertan materiala izan behar, herritar ooren mesedetan onuragarria den zerbaiten bidez ere** izan daiteke, adibidez pertsonen ibilbidea ezagutuz, aurreiritziekin apurtze bidean.

"si yo les estoy brindando una ayuda, para que le vaya mejor y se integre aquí, lo mínimo que puede hacer es colaborar un poco y comentar, cómo hace, cómo vive en su país, que le conozcamos un poco también. Entonces yo creo que si se fomenta eso cambiaría un poquito también el pensamiento con relación a nosotros".

ES_3

- Bestetik **esfortzua eskatzen zaio pertsonari** behar horiek asetzera begira. Hortik, diru-laguntzak jaso bai, baina **zintzotasunez jokatzeko ez duenarekiko haserrea.**

"Me da rabia, no me parece justo. Le digo: estudia un poco, superarte. Y ella que no. Para qué, dice. Y estamos así, y la hija igual, viviendo de ayudas. Porque se ha quedado sin trabajo y les digo intenten unir y vivir juntos... No no, cada uno vive en un piso. No me parece justo, qué quieres que te diga." ES_3

Era berean, **frustrazioa** sentitzen da **lan munduratzeko behar ekonomikoak asetzea baino zerbait gehiago ematen duela ikusten ez dutenen aurrean.**

"Le preguntó mi marido "por qué no quiere trabajar? si tiene trabajo mejor". Le dijo "para qué? Yo cobro novecientos euro al mes y con la ayuda económica doscientos no se que."

A: YA

*B: le dijo "por bocado, por despertar por la mañana... al coger autobús, el tren..."
Le dijo "es un trabajo. Te anima. Si no hace así, no va a irte... te cuestas te cuesta para irte..." Y en vez de decir "no, me quedo dormido y cobra mil doscientos no se que y... mejor". ES_2*

BETEBEHARRAK EMATEN DIZU ESKUBIDEETARAKO AUKERA

Ikuspegi honetatik abiatuta, ez dute zalantzan jartzen eskubide sozialak berdintasun batean izateko aukera dutenik, baldin eta **sistema horretan** sartzen diren. **Sarbidea lana, kotizazioa eta zergen ordainketaren bidetik dator.**

"Me considero como los demás, porque yo tengo que pagar todo lo que se paga y tienes que, que entrar en esto, lo que es un ciudadano y tenemos los mismo derecho". ES_1

"Porque allí hay unas leyes y tienes que cumplirlas. Si no cumples no...ellos tampoco te puede dar" ES_1

Bi kasuetan, **Estatuak paper garrantzitsua dauka eskubideen egikaritzan.** Edozein kasutan, administrazioa jotzen da laguntzen desorekaren lehen arduradun bezala. Eskubideen aukera berdintasuna zalantzan jarri gabe, behin ematen direnean administrazioak duen kontrol sistema eta egikaritzan ikusten da arazoa.

- Laguntzak emateko orduan **eskubide berdintasun bat bermatu behar du.**
- **Laguntzen inguruan egiten den jarraipena ere bermatu behar du.** Administrazioak egiten duen lana zalantzan jartzen da. **Kontrol diskurtsoak** sortzen dira honen inguruan, ematen denaren jarraipena egin ezean etorkinen irudia desitxuratzen dela iritzi baita.

"Como te digo, intentar controlar un poco. La documentación que vas a pedir que sea de tu origen de país, la dirección que tienes tú en la documentación, en el pasaporte. Si vas a dar una ayuda, por ejemplo del INEM, y yo vivo en Zaldibia, ir y pedir un informe al ayuntamiento, y a la asistente social, a ver cómo está esta persona" ES_3

1.2.3.2 ESKUBIDE SOZIALAK. DIRULAGUNTZETATIK BIZI DIREN PERTSONAK DAUDE, EZ ETORKINAK

- Diru-laguntzen gaia korapilatsua, gertutik ukitzen eta eragiten diena dela adierazten dute. Etorkinak **"punto de miran" daudela sentitzen dute.** Uneoro eta eremu ezberdinetan elkarriketetan ateratzen den gaia da.

"Y en todas las clases, y en todos los cursos que he hecho siempre se ha tocado este tema del emigrante y las ayudas y ha habido compañeros españoles, gente de aquí que ha necesitado ayudas y se les ha negado, y a todos ellos que se les han negado han dicho al vasco, que al que es de aquí, no se le ayuda pero que al emigrante sí se le ayuda".ES_3

- **Diru-laguntzetatik bizitzea ez da jatorri kontua, pertsonaren hautua edo zoria baizik.**Ez da ukatzen diru-laguntzetatik bizi diren pertsonak egon daitezkeenik, eta horrek kezka sortzen die. Baina **orokortzeak min egiten die. Aurreiritzi asko sortuak daudela salatzen da.**

"Hay buenos y hay malos aquí y en China... hay gente que se aprovecha aquí y en todos los sitios." ES_3

- **Horren aurrean beraien indibidualtasuna aldarrikatzen** dute. Ez-ezagutzatik abiatuta **guztiak berdin epaitzen direla salatzen dute,** horrek beraien esfortzua eta ibilbidea itzalean utziz.

"hay gente que venimos a superarnos, si salimos de nuestros países es porque la necesidad nos está agobiando demasiado, entonces tenemos esa necesidad de, de... cambiar, de mejorar nuestra situación, mejorar nuestro futuro y la de nuestros hijos, venimos aquí, y si se nos presente una oportunidad de trabajar hay muchos que aprovechamos y trabajamos. Hay gente que prefiere recibir ayuda y vivir más cómodo, también es cierto, pero no todos estamos a expensas de vivir de ayudas. Hay gente también que queremos superarnos, y trabajar". ES_3

- Eta beraiek **pertsona bezala direnagatik epaituak izatea eskatzen** dute, orokortasunak eta jatorriaren arabera epaiak alde batera utzita.

"mira, mi presencia es mejor que el pañuelo. Si voy a trabajar, voy a trabajar mi mano. No voy a trabajar con el pañuelo de mi cabeza. Tu a ver mi trabajo y luego juzga si he hecho bien trabajo o no. júzgame como una trabajadora, no como musulmana que va pone pañuelo." ES_2

- **Diru-laguntzei ikusten dioten arriskua lanak ematen dizun ona ikusezin bilakatzea da:** besteak beste, lanak harremanetarako ematen dizkizun aukerak, bizi antolaketa bat izateko aukera eta egunerokotasuna izateko aukera.
- Batzuetan **laguntzak eskatzeak lotsa** ere ematen die. Lan egin nahi dutelako, eta laguntza eskatzen dituenaren estigma oso presente izatearen ondorioz.

"y también mi marido quiere trabaja no quiero solicitar el la ayuda. Tampoco queremos también un jubilación con nosotros. Y por eso. Mi marido no le gusta parao ni parao le ayu, le fastia para ir a asiste social a pide ayuda. No le gusta, le da mucha vergüenza. Como está joven... tener fuerza, querer trabajar..." ES_2

1.3 HARREMANAK ETA HARREMAN HORIEK ARGITZEN DITUZTEN ESTRATEGIAK

Behin integrazio sozio-ekonomikoaren erronkei nola erantzuten saiatzen diren ikusita, etorkin berriak dituzten harremanen ezaugarriei arreta jarriko dio azterlanak. Hain zuzen ere, egunerokoan dituzten harremanei, bi dimentsioen arabera erreparatu zaie:

- ✓ Bertakoekin dituzten harremanei, eta horri lotuta
- ✓ Bestelako etorkin berriekin dituzten harremanei.

1.3.1 ABIAPUNTUAN EZBERDINTASUN POZISIO BAT

Etorkin berrien abiapuntua **ez da berdintasun batean kokatzen gainontzeko zaldibiarrekiko. Bi irakurketa** egin daitezke honi dagokionez.

- **Hartzaile den herriarekiko errespetu jarrera** batean kokatzen dira, bestea ikusiz, **bestea ikusgai izanaz**. Herri berri batera doazela kontuan izanik, herri horretan izango duten harrera beraien jarreraren arabera ere badela ikusten dute. Beraien lekua egiten saiatzen dira jarrera umil batetik. Honela, besteen espazioa errespetatzen saiatzen dira, gehiegi sartu gabe, modu onean gauzak eskatuz, exigentziatik at.

"...también te ayuda mucho. Y también, ser amable... con mas... Lo que digo yo también, no puedo meter a ninguna persona para preguntar o cualquiera persona que lo meta en su vida. Si está embarazada tiene niño que le felicito... te... eso, si tiene algo de mal, bueno, buff... no se..."

A: TE ACERCAS RESPETUOSAMENTE NO?

R: sí... No, pero tanto tanto no. porque no quiero que meter dentro..." ES_2

- Baina errespetu horretatik haratago, **batzuetan subordinazio leku batean kokatzen dira, besteekiko menpetasun egoera batean kokatuz**.

Etorkinarekiko dagoen ideia desitxuratuaren kontziente izanda, hori horrela ez dela frogatu behar dutela uste da. Errespetua irabazi behar da, eta horretarako bidea arazorik ez ematea da **bidegabekerien aurrean ere burua makurtuaz**.

"Esto no justifica que nos puedan hacer esto. Fui a donde un abogado y yo quise denunciarle y al final mi marido dijo no. No estamos aquí para hacer problemas a nadie. Sé que tienes razón pero... con los años la gente va a entender que nosotros no hemos tenido la culpa." ES_3

1.3.2 HARREMANEN NONDIK NORAKOAK

HARREMANAK BALDINTZATZEN DITUZTEN ALDAGAIAK

Abiapuntu ezberdintasun hori kontuan izanda, **herritarrekiko harremanen aurrean hartzen duten jarrera honako aldagaiek baldintzatzen** dute:

- **Etortzeko motibazioa eta egoera sozioekonomikoak:** etortzeko motibazioa ekonomikoa den heinean lehen indarrak horretan jartzen dira, harremanak lantzeari beste denbora bat eskainiz. Egoera ekonomikoa egonkortzen doan heinean, joera hori ere aldatzeko aukera gehiago daude.
- **Non proiektatzen den etorkizuna:** Euskal Herrian etorkizuna irudikatzen dutenen kasuan harreman sareak lantzeari energia gehiago dedikatzen zaio.
- **Euskal herrian daraman denborak:** geroz eta denbora gehiago egon, harreman sarea handitzen joateko aukera nagusitzen da eta harreman motak ere ezberdinak dira.
- **Egoera familiarrak:** bakarrik dagoen pertsona, bikotean bizi den ala seme-alabak dituzten harremanetarako denbora, harreman motak eta besteekin erlazionatzeko inguruneak edo eskaintzen zaion denbora aldatzen da.
- **Generoak eta pertsonaren izaerak**

HARREMANEN ARTEAN BI KATEGORIA EZBERDINTZEN DIRA: AUKERATZEN DIRENAK, ETA EZ DIRENAK.

Harremanak eta interakzioa esparru ezberdinetan ematen da. **Helduen kasuan:**

- Eskolaren bueltan seme alaben bitartez
- Lanari lotuak
- Aisialdian garatu daitezkeenak.

Hauetako batzuk aukeratuak dira, eta beste batzuk zoriz tokatzen dira.

Eskolari lotutako harremanak eta lan esparruan sortzen direnak **ez dira hautatzen, horrela tokatzen dira**. Eta hauekiko bizipena eta jarrera aisialdian ematen denarekin ezberdina da. Harremanekin loturiko **esperientzia txarrak hain juxtu lan eremuan** ematen dira. Sumisio gehiago onartzen da eremu horretan eta ez dira berdintasun batean kokatzen.

Aisiaren eremuan eta eremu informalean ez dago babesik eta hor beste elementu batzuk jokatzen dute: jatorrizko herrialdeko ohiturak, baloreek eta izaerak. **Lagunak, aukeratu egiten dira eta norbera den bezala adierazteko hautua norberarena da.**

Halaber, horretan ere eragiten du bizitza estiloak eta familia izan ala ez. **Bakarrik** dagoen pertsona **askeagoa** da aisialdian **jarduerak aukeratzeko**. **Seme-alabak daudenean aisi joerak** aldatzen dira, **zentroa familia** bilakatuz.

HARREMANETARAKO AUKERA EZBERDINA GENEROAREN ARABERA

Genero ikuspegitik begiratuta, emakume eta gizonezkoen artean harremanak sortzera begira ere aukerak eta joerak ezberdinak dira.

Gizonezkoak harremanak lan eremuan sortzen dituzte batez ere. Eremu honetan txertatzen dira bai ala bai, baldin eta langabezi egoeran ez badaude. Izaten dituzten lan motagatik beste pertsonekin harremanak izateko aukerak ere areagotu egiten dira.

Emakumezkoen kasuan aldiz, harremanak seme alaben eskutik ematea ohikoagoa da. Batetik, askok lan egiten ez dutelako eta seme alaben zaintzaren ardura dutelako. Beraz, eskolarekin lotutako esparruetan edo umeak ibiltzen diren espazioetan aurkitu dezakete sozializatzeko aukera. Bestetik, lan egiten den kasuetan ere askotan zaintza eremura mugatzen delako, eremu pribatura, eta beraz sozializazio aukera gutxiago eskaintzen duelako.

HAURREN ARTEAN HARREMANAK MODU NATURALEAN

Harremanen bizipena oso ezberdina da helduen edo haurren artean:

- Eskolaratuak dauden umeen kasuan, **jatorri ezberdinen arteko harremanak naturaltasun osoz ematen dira**. Etorkin berriak diren gurasoak dituzten Zaldibian jaio diren haurren artean jatorri ezberdintasuna ez da harremanetan eragiten duen zerbait. zaldibiar bat gehiago dira. zaldibiar jatorri ez duten haurren artean ere normalean lagun talde naturaletan txertatzeko zailtasunik ez dago, koadriletan errez asko txertatzen dira.
- Horretan **klabea etortzeko momentua** da. Haurrak lagun taldeak sortzeko momentua (bederatzi hamar urteren inguruan) behin pasa dela iristen badira, koadrila naturaletatik kanpo geratzeko arriskua areagotzen da.
- **Nerabezaroa aro kritikoa da**. Norberaren identitatearen eraikuntza prozesu horretan, kasu gutxi batzuetan jatorri ezberdineko pertsonen arteko banaketa bat ematen dela aipatzen da.

Nerabezaroan ematen den egoerak ere lotura du etortzeko adinarekin ere. Euskal herrian jaio diren etorkin berrien seme alaben kasuan identitate talka horren presentzia modu apalagoan bizi da. Euskal Herrira **hautzaroaren azken urteetan iritsitako kasuan talka identitarioa nabarmenagoa** da, ordurako dagoeneko beste herrialde bateko eredu baitan hazi baitira. Eta nerabezaroan, norberaren identitatearen eraikuntza prozesu horretan talka hori

areagotu egiten da. **Identifikazio ereduak arabera, euskal herriko alaguraren jatorriko herrialdearekin loturak sortzen dira, eta kasu batzuetan lagun taldeetan ere aldaketak** ematen dira. Honela, identifikazio horren arabera, joera da jatorri berdineko edo patroikultural antzekoak dituzten pertsonekin harreman berriak sortzea ala ez.


"Yo pensaba que ella, si le diera la opción de irse o de quedarse, me diría que se quedaría aquí. Yo pensaba eso, pero hace unos días se ha tocado el tema y ha dicho: me gustaría irme mamá. Y yo creo que en la edad que tiene también es un poco complicada. Y el otro, el otro no quiere saber. Él dice: yo ama, por favor a mí no me cambies. Es más, cuando le dije que nos íbamos a cambiar a Madrid, él dijo: no, no, no. A mí me consigues un cuarto y yo me quedo aquí, y ya te iré a visitar. ¿Estás loco? le digo, con 13 años. Y él: sí, sí. A mí no me muevas de aquí. Entonces son posiciones distintas." ES_3

1.3.3 HARREMANEN AURREAN DAUDEN POSIZIOAK

Etorkin berriek, modu orokor batean, gainontzeko zaldibiarrekin dituzten **harremanaren balorazio ona egiten dute. Errespetuzko harremanak** direla adierazten dute, baina **azaleko harremanak** dira gehienak. Agurtu, gauza konkretuen inguruan galdetzera mugatzen dira. Herritarren aldetik beraien egoerarekiko interesa ere sentitzen dutela aipatzen dute bakar batzuk, baina harreman hori oso puntuala izaten da.

Aipaturikoa kontuan izanda, **3 jarrera ezberdin** antzematen dira:

- **Harreman gehiago izateko gogorik ez dutenak.**
- **Horretarako denborarik ez dutenak**
- **Harremanak bilatzen dituztenak**



DAGOENAREKIN KONFORME DAUDENAK, EZ DUTE GEHIAGOREN BEHARRA SENTITZEN

Jatorri ezberdineko herritarren arteko **harremanen balorazio ona** egiten da, errespetuzkoak dira harremanak eta **ez da esperientzia diskriminatzaile bizi izan**.

"la gente son muy respetuosas y muy, puedo decir cariñosa. Que no son de... te echan por ejemplo, porque estas extranjero yyyy no te colaboran contigo ooo... eso me llevo bien".ES_1

Astean zehar lankideekin harremana aisialdira zabaltzen da kirolaren eskutik. Esparru horretan harremana jatorri ezberdineko jendearekin dago, eta horren balorazio ona egiten da.

Asteburuetan aldiz harremana jatorri berdinekoekin mantentzen da, aisi ohituretan ezberdintasunak argudiatuz; tabernetan ibiltzea gustuko ez izatea, erlijioan ezberdintasuna...

"yo los bares y esto no me, bueno no me gusta, no soy de ir de bares porque si quiero tomar un café voy y ya esta, alcohol no bebo y fumar tampoco y... no me gusta estar ahí, estar de estar. Aquí hay cultura diferente, porque aquí la gente les gusta ir al bar y... los mayores a echar tragos y vinos y esto".ES_1

Aisi joerak, **ohiturak, naturaltasun guztiarekin eta aske adierazten dira**. Ez da sentitzen ezer ezkutatu beharrik, eta ziurtasun posizio batetik argudiatzen dira joera ezberdintasunak.

"yo a muchos me preguntaban por qué no bebo, por qué no fumo, por qué no pruebo esto, por qué no hago esto... y le he dicho yo respeto vuestras cosas pero yo respeto a mí, porque yo no aprendí a hacer esto, no puedo hacer esto".ES_1

Eskolaren bueltan, beste gurasoekin harremana ere badago, eta **umeen urtebetetzeak dira klabea** ekintzak konpartitze aldera urrats bat gehiago emateko.

"si, siempre voy a recoger y... pa llevar los críos a la escuela y, siempre te saludas con gente, respetuosas. Yo también procuro hacer, saludarlos y respetar y... no tenemos. Y luego en cumpleaños yyy la tema de estas también nos llevamos bien". ES_1

Balorazio positibo horretatik abiatuta **Zaldibiako beste herritarrekin hartu-eman gehiago izateko desio gutxi** azaltzen da. Bizitza lasaia bilatzen da, herri txikiak horretarako aukera ere eskaintzen ditu.

DENBORA FALTA HARREMANETARAKO

Posizio honetatik **familia da ardatza, eta familiaren egoera sozioekonomikoan eta aurrera ateratzean jartzen da indarra**. Horren bueltan eraikitzen da guztia, baita egiten diren aukerak.

Egoera sozioekonomikoaren baitan, **denbora libre ia luxua** balitz bezala ikusten da, beraz ez zaio harremanak lantzeari denborarik eskaintzen.

"Es que lo que pasa, al menos en mi caso, es que me he dedicado mucho a trabajar y a estudiar. Y eso me ha quitado mucho tiempo, y el estar aquí en casa significaba descansar. Llegar a casa para mí era descansar. Y he estado muchos años así porque, hasta hace dos meses, era yo la que sacaba adelante la casa. Entonces, si no trabajaba, estábamos en problemas. Y el hecho de que le dediques tanto tiempo a estudiar o trabajar, no te da opción para otras cosas" ES_3

Eremu pribatura mugatzen da bizitza soziala, eta dauden hartu eman gutxiak **herrialde berdineko pertsonekin burutzen dira**, egun esanguratsuen ospakizunen inguruan.

Conocidos, compatriotas que viven en Orio, pero al año una vez vienen. Hacemos una comida, cumpleaños... le decimos que son cumpleaños y vamos a decir una comidita, y vienen. Pues ellos nos suelen llamar, pero eso, nada más.ES_3

Jatorriko herrialdera itzulera desio ez den arren, **jatorrizko ohiturak eta baloreak mantentzeko saiakera** egiten da, batez ere **eremu pribatuan**, ez publikoan.

"Pero el fin de semana comen como yo cocino! jaja. Está puesto por su madre, y eso es así, y lo respetan. Pero entre semana si coinciden, o en la cena, les suelo respetar cómo quieren comer".ES_3

Ez dago jarrera itxia norberarena ezagutzera emateko, **baina zaldibiar jatorriko herritarrekin dagoen harremana lan eremura mugatzen da.**

DAGOENAREKIN KONFORME, BAINA HARREMAN GEHIAGOREN DESIOA

Bizi proiektua Euskal herrian proiektatzen denen kasuan harremanek egunerokotasunean duten garrantziari erreparatzen zaio. Harremanek gauza ezberdinetarako bidea zabaltzen dutela uste da, tartean lan eremurako.

Besteekiko gerturatzea lan eremua eta eskolatik abiatzen da. Eremu horietan interakzioa izateak aukerak ematen ditu gainontzeko herritarrak ezagutzeko.

"Y luego mi trabajo me ha ayudao mucho... Como estoy de limpieza aquí.... Antes no conozco nadie aquí. Y ni me conozca la gente. Y al fi, bueno me conoces de... de la niña mia..." ES_2

Dauden harremanen balorazio ona egiten da, **beste arloetara ere zabaltzeko prest** eta gogotsu adierazita.

Izaten diren esperientziak asko baloratzen dira, eta ildo horretatik jarraitu nahi da. Posizio honetan kokatzen den pertsona beti dago prest hartu emanetarako.

"Si, he hecho un taller de henna. Yo me gusta hacer, si lo pide otra vez, lo hago. Sin ninguna problema. Me llamó una chica aquí, una mujer, una señora. Me haber si puedo y yo dijo vale. puedo, sin ninguna problema. Eh, no quedamos fuera, e luego, por la tarde, por la noche me ha invitao por la cena también. Por la sociedad... no invitamos con mi marido... Nos fuimos a cenar con ellos todo, y creo... hace dos años si. Respeta mucho, como nosotros no comemos cerdo... nos pide que podemos comer... no dijo que pescao, que va hace prepara pa nosotros algo todo de pescao. Se respeta... se respeta nosotros también." ES_2

Batzuetan hastapenetan akulturazio prozesu bat ematen da harremanetan sakontzeko. Ezberdintzen dituen adierazpenak alde batera uzten dira, esaterako burua estaltzen duen zapia emakume musulmanaren kasuan. **Behin ziurtasun bat sentitzen denean, joera eta ohiturak berrartzen dira** eta bere horretatik erlazionatzen da besteekin ere, berea ezkutatu gabe.

"por que no lo quitas? Hay calor...". Mais es cos el pañuelo primero es la religión de... que obliga. El otro segundo es el costumbre. que ya no cuesta para ponerlo, y ya está. No podemos quitar. Mais al final te preguntan... "y Maria, no es un pañuelo también?" Que hace el pañuelo? Por que no le pregunta a ela de la que no la quita? Y ya está." ES_2

Kasu honetan jarrera irekia eta desioa azaltzen da erlazionatzeko. Bera den hori azaltzeko. Ezta kasualitatea pertsona "publiko" bezala aurkeztea bere burua.

"soy musulmana, yo vivo en País Vasco (risas), eso si... Yo me encanta viajar (risas) me encanta conoce a la gente, yo soy muy publica. (carcajadas)

A: MUY PUBLICA?

B: si... (risas) No tengo ninguna problema. Yo me gusta. Me gusta hablar... me gusta comunicar con la gente... no tengo (tts) la mala cara para ponerlo nerviosa, ni de mala leche... no." ES_2

1.4 EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREKIKO HAUTEMATEAK.

Atal honetan euskara eta euskal kulturari buruz etorkin berriek dituzten hautemateak aztertzen dira. Hasieran esan bezala, etorkin berriek kasu gehienetan **integrazio sozio-ekonomikoa dute lehentasunezko helburua**. Ondoren, eta neurri handi batean **etorkizuna hemen irudikatzen bada, integrazio kulturalak garrantzi** gehiago hartzen du.

Proiektzioa Euskal herrian egiteaz gain **garrantzia dute ere honako elementuek**:

- ✓ **Euskal herriaren inguruan dagoen aurretiko ezagutza eta Zaldibiara iristeko bidea**
- ✓ **Dauden identitate nazionalei buruzko ezagutza eta identifikazioa**

Euskal Herrira lehen salto baten etorri ala estatuko beste herrialde batetik etorri, **Espainiara datozenaren ikuspegia nabarmentzen da, espainiar estatuan dagoen aniztasun kulturalaren berririk izan gabe**. Zentzu horretan euskal herrian dauden kultur eskaintza eta hizkuntza ezberdin batekin topo egiten da.

"me dijo mi marido que.... ¿? Antes no. Y digo, España todo castellano. Hay gallegos por allí por allá, mais no voy ahí... Eso seguro. Mais al final... cuando llegó aquí... y... o sea... hablando euskera..." ES_2

Identitate nazionalei buruzko ezagutza eta identifikazioari dagokionez, bi jarrera hartzen dira:

- ✓ Batzuk euskara eta euskal kultura espainiar nazioaren osagai gisa irudikatuko dute
- ✓ Eta beste batzuk, Euskal Herria nazio gisa irudikaturik euskara eta euskal kulturaren aurrean kokatuko dira

Zaldibiara mugitzean aldiz, kultur eskaintza horren adierazpena mugatu egiten da. Herri euskalduna da erabat, bizitza euskaraz egiten da eta horrela sumatzen dute etorkin berriek ere. **Euskara eta euskal kulturak leku garrantzitsua du. Etorkin berriak euskararen aurrean kokatzen dira nahi ala ez, baina modu ezberdinean egiten da horren balorazioa.**

1.4.1 EUSKARAREN FUNTZIONALITATEAREN HAUTEMATEAK

Euskararekiko harremanean eta hautematean **3 jarrera ezberdin topatzen dira elkarrizketatuen artean:**

Euskararen ezagutzari garrantzia ematen zaio:

- Ikuspegi praktiko batetik plus bat suposatzen duelako, etorkizuneko lan hobeago bat lortzera begira.
- Harremanetarako eta bat gehiago izateko beharrezkoa delako.
- Herriaren hizkuntza delako eta errespetuagatik bada ere ikasi beharra dagoelako.

EUSKARA: PLUS BAT

- Hizkuntzekiko lehen begirada **ikuspuntu praktiko batetik** egiten da.
- **Euskal Herrian bi hizkuntza** daudela ikusten da. Balorazioa egiten da: **mundura begira proiektzio gehiena duena gaztelera nahikoa da lan esparruan murgiltzeko** eta eremu ezberdinetan mugitzeko.
- Beraz gaztelera ez dakitenen kasuan lehen esfortzuak horretara bideratzen dira. **Euskara jakitea plus** bat da.

"el castellano eee se habla en más países y es una lengua latina y es una lengua que se habla en muchos países. El euskera se habla más aquí, en el País Vasco, ¿no se dónde más? Aquí se habla bien, bueno se habla más euskera, pero también te entienden en castellano. Y si era la lengua que se hablaba solo, pues por ejemplo, vas a Alemania y tienes que hablar alemán, no hay otra lengua. Y tenías que saber alemán. Y aquí en el País Vasco, te hace falta también el castellano. Y es suficiente, y si sabes euskera un plus más. Es mejor." ES_1

- **Seme-alabak eskolaratze garaian, praktikotasun ikuspegi horretatik jarraituta berriro ere**, balorazio ezberdina egiten da. **Euskarak balio erantsia** ematen dio pertsonari, **eta aukera gehiago zabaltzen** ditzake etorkizunera begira. **Umeek duten gaitasuna hizkuntzak ikasterako** orduan aitzakiatzat hartuta, seme alabak euskara ikastea baloratzen da, **seme alabak D ereduan** matrikulatuz.

"me parece bien. Yo no tengo contra, porque si saben más mejor, no se sabe el futuro y lo que va a pasar. Ellos si, no se cuantos años viviremos aquí, pues cuando cumple 18 años, yo creo que hay, que puede ser doble nacionalidad, que puede tener. Y si quiere una o... no tengo yo que, tiene que ser nuestro, si ellos eligen luego. Con 18 años si están aquí o..." ES_1

- **Halaber, aipatzekoa da denboran aurrera** egin ahala **euskararekiko** beste begirada bat sortzen hasten da, **gertutasuna** sentitzen hasten da nolabait. **Euskara ez ikasi izanaren errua** halere **konpartitzen** da. Norberaren hautua bezala ikusten da ikastea, baina **inguruak laguntzen ez duela salatzen** da, eremu formaletan adibidez erdaraz hitz egiteak ikasteko aukerak gutxitu dituela aipatuz.

"si, a veces también ya he pensau y... hay algunos que dicen "tantos años ya tenias que saber", si es la verdad que, luego pues, aprendí primero, mas en castellano, porque los jefes también, en trabajo también nos empezó en castellano hablar, yo decía que tenéis vosotros la culpa. Si empecé a trabajar, a aprender mas vasco, que podía hablar mas vasco" ES_1

EUSKARA: ZALDIBIARRA IZATEKO GILTZA

- **Herri honetan bi hizkuntza** daudela sentitzen da, euskara eta gaztelania.
- Biak berdintasun batean izatea lehen desioa izan arren, **Zaldibian harremanak izateko, beste bat gehiago sentitzeko euskara beharrezkoa** dela sentitzen da. Eta onartu egiten da. Ezta bizitzeko beharrezkoa ikuspuntu praktiko batetik, baina bai harremanetarako funtsezkoa.

Bueno, yo me molesta. Porque? No quiere que son están hablando euskera, me molesta que no lo entiendo. Porque cada uno... bueno, yo también respeto con mi idioma. Debe que respeto la tuya también. porque es tu idioma natal. y al final para, debe que aprender para, entiende más. ES_2

- Horretaz gain, **seme alabekiko harremanean lotura ez galtzeko balioa** atxikitzen zaio, ikasketetan laguntzeko eta beraien elkarrizketak ulertzeko.
- Beraz, esfortzuak grazia handirik ez egin arren, **burugogorkeriagatik ere euskara ikasteko erabakia hartzen da.**

te molesta... Algunas veces, me pregunto mi niña... o le escuchado asi... mira la tele con dibujo en euskera y digo "que están hablando, que no entiendo..." o algunas veces ya lo se, que cuando estaba trabajando... algunas veces la gente está hablando de mi, y no me entero y me da rabia. por que? Porque ellos no quiere hablar castellano. Tampoco hablais ellos mais yo tamb, yo puedo hablar. Yo puedo aprender. Entonces, voy a aprender euskera! ES_2

EUSKARA: HEMENGO HIZKUNTZA, ERRESPETUAGATIK IKASI BEHARREKOA

- **Aurrez gaztelera ezagutzen** denez, hizkuntzen ekonomiatik begiratura euskarara gerturatzea ez litzateke beharrezko.
- **Baina euskararekiko kontaktu horren harira sentsibilizazio bat sortzen da** euskara eta euskal kulturaren inguruan. Denbora faltagatik euskara ikasten ez bada ere, desioa badago eta adierazten da.

- Seme-alabak D ereduari matrikulatzen dira, **euskara herri honen hizkuntza dela ulertzen baita, eta hori aitortzera** begira hautu hori egiten da.

"(...) pero aunque hubiese habido, aunque aquí en el pueblo nos hubieran dicho, hay ésa opción de hablar en castellano o que tus hijos hablen en castellano, yo habría preferido que por el euskera eh...porque yo pienso que donde tu vayas tienes que habituarte un poco y que más que el idioma por ejemplo. Es más difícil las costumbres que tienen. Pero yo creo que el idioma, es muy importante. Para mí es mi mayor logro, mi mayor orgullo que mis hijos saben. Éste mi compatriota, al menos el marido de la chica dice, que para él que a él no le importa que su hijo hable en euskera, que como solamente sirve aquí en el país vasco que... que a él no le interesa. Y yo le dije, no es que para mí, mi mayor logro es que mis hijos hayan aprendido. Ahora si nos vamos a vivir a otro lado, de cara a Madrid o a algún otro lado, ya sería algo que ha aprendido ES_3

- Hautemate honetan badago jatorrizko herrialdearekin lotura bat. Oro har **hizkuntza minoritarioen egoeraren bizipena izanik (quechua, guarani...) euskararen egoerarekin berehala enpatizatzeak aukera ematen da.** Honela, hizkuntza hauek ez galtzeko borroka egiten duten pertsonen aurrean **mirespena sentitzen da, baita euskararen alde borroka egiten dutenekiko ere.**

"Y yo aquí admiro a muchísima gente que defiende el idioma, porque en mi país fuera por lo menos una mitad fuera así, no se habría olvidado porque nosotros hablamos el quechua, el guaraní... pero no sabemos hablar. Es más, yo entiendo muy poco y me habría gustado entender y hablar el idioma de mi país, pero...yo aquí entiendo. En un principio me molestaba cuando...en el trabajo mismo tú estás hablando con tu compañera en castellano viene otra y habla en euskera y tú te quedas... ¿Qué están diciendo?...Pero yo entiendo, me molestaba al principio pero ahora entiendo, entiendo que sepan depender de su idioma, que no lo pierdan y espero que no se pierda." ES_3

1.4.2 EUSKAL KULTURARI DAGOKIONEZ

Identitate nazionalekiko dagoen posizioak ez du baldintzatzen euskal kulturarekiko dagoen hautematea. Euskara eta euskal kultura espainiar nazioaren osagai gisa irudikatu edo Euskal Herria nazio gisa irudikaturik, Zaldibian daudela, **euskara eta euskal kulturaren aurrean kokatzen dira, nahiz hautemate ezberdinen bidez eraiki lotura hori:**

- **Euskara eta euskal kulturaren arteko lotura** egiten da kasu guztietan: espainiar nazioaren osagai gisa kokatu ala euskal herriari nazio ikuspegia aitortu, euskal kultura eta euskara batera ulertzen dira.
- **Euskal kultura, espainiar kulturatik at** dagoen kultura gisa irudikatzen da **eta ezaugarri propio batzuk** atxikitzen zaizkio. Esparru batzuetan, konparazioan hobe dela pentsatzen da.

"cultura vasca, pues es muy diferente de a los demás, conociendo cultura ucraniana, cultura rumana y cultura española"

P: ¿Y EN QUE ES DIFERENTE?

R: en todo. Primero en el, en la lengua, luego en el tema de, como es el tema, rural, los caseríos y esto son, que se ve que son gente muy trabajadora y gente muy diferente a los demás, me refiero que son caseros y son gente trabajadores. Y los demás, conociendo a otros, otras provincias de aquí también, un poco conozco también, Asturias también es zona como aquí casi y son más que los de mas... son un poco más, mejores, para el tema de esto. tema de trabajo y en casa son mejores."

ES_1

- **Euskal kultura balore eta izateko modu batekin lotzen da:** euskaldunak dira itxiak, errespetuzko pertsonak, leialak, hitzezkoak, festazaleak, langileak...

"Porque allí son mas, como se dice, hablan y no hacen, y aquí veo que se hacen bastante, porque lo que es, por ejemplo un proyecto, hasta acabar se hace, o se hace unas cosa, se habla y se hace. Un plan, si es un plan pa hacer se acaba la obra o se acaba una cosa que se habla. Son mas serios. Mas de palabra". *ES_1*

- **Adierazpen kultural konkretuekin eta ikuspegi "folkloriko" batetik ere begiratzen da eta hauen inguruko ezagupen bat badago:** musika, dantza, gastronomia...

"lo que me encanta es el trikitixa, esto es un instrumento que me encanta. Como suena, como suena y cuando salís de, de fiesta y esto, cuando se toca me encanta, cuando hay una, me gusta, lo que lleváis este instrumento" *ES_3*

- Gerturatze bat badago, kuriositatea sortzen du eta **aktiboki parte hartzen ez bada ere egiten diren ekimen herrikoi ezberdinetan parte hartzen da eta interesa azaltzen da.**

"Yo conozco la música de aquí porque si me dice un baile fuera de ¿? Hay festivo, siempre voy a mirar. También me um... como te dijo um... a verai... curiosidad, curiosidad para conocer gente, como se baila, como se vestir... Algun diferente" *ES_2*

1.4.3 POLITIKAREN INGURUKO HAUTEMATEAK

POLITIKA hitzarekin bi gauza lotzen dira:

- **POLITIKA**, hizki larritan: euskal gatazka politikoarekin
- **Politika**, eguneroko gaien inguruko politika politika.



1.4.3.1 POLITIKA = EUSKAL GATAZKA POLITIKOA.

Politika hitza aipatzean guztiek egiten dute gatazka politikoarekiko lotura. Horren aurrean, **2 jarrera** nabarmentzen dira:

1. Lehen jarrera batean politikaz paso egiten da. Gatazka distantzia batekin ikusten da, beraiekin zerikusia izango ez balu bezala. **Aitortzen da ez dagoela ezagutza bat barne aldagaien inguruan.** Egoera politikoaren inguruan dagoen **hautematea oso baldintzatu dago Euskal Herriko mugetatik kanpora ematen den irudiarekin**, gatazka politikoa, borroka armatuaren auzia etab. Komunikabideek aditzera ematen duten irudiarekin hain zuzen.

2. Bigarren jarrera honetan gaia distantzia batekin begiratzen duten arren iritzi bat osatzen da horren inguruan. Kasu honetan Euskal Herriko gatazkaren inguruko **ezagutza badago**. Gaia errespetuarekin begiratzen da gehiegi epaitu gabe.

Bigarren posizio honetan kokatzen direnek, herri batek independentziaren alde egitea eskubidetzat onartzen dute, baina honek izan dezakeen **ondorio praktikoarekin lotzen da**. Ikuspegi hau baldintzatua egon daiteke beraien migrazio proiektuaren motibazioarekin. Motibazio ekonomikoa oinarrian izanik, independentziaren aurrean egiten den balorazioa horrek norberaren bizitzan izan dezakeen eraginarekin lotzen da. Horrela, **bi iritzi kontrajarri** azaltzen dira:

- **Ikuspegi ekonomikoari begiratzen dionaren ustez, hobe Euskal Herriak independentzia lortzen badu.** Herri aberatsa bezala irudikatzen da Euskal herria, Espainiar estatuaren osotasunean galtzaile ateratzen delarik. Sortzen den aberastasuna ez da euskal herrian geratzen, eta beraz hobe da independentzia lortzea.

"sí, eso también la tengo vista lo que se hace aquí por ejemplo en País Vasco y lo que se paga a otros laus por ejemplo los impuestos y yyy... que lo que viene va a Madrid y más en Madrid. Lo que es, sería mucho mejor la independencia para el País Vasco, mucho mejor si era independiente. yo considero que si se conseguiría esto, ser independiente y ser un país, como es el País Vasco, pero ser independiente el, no que le mandan otros, no como hacen ahora, sería mucho mejor. Y sería uno, un un como se dice, una base muy fuerte, una estructura muy fuerte pa esto. Te quiero decir que aquí esta laa el esto lo que me comentaba el compañero, que aquí el País Vasco tienes la vaca y Madrid lo ordeña no. Que le saca el producto, la leche le saca". ES_1

Posizio honetan kokatzen denak **independentziaren gaia ikuspegi praktikotik begiratzen den arren, Euskal nazio baten existentzia onartzen du, eta jarrera enpatikoa du.** Horretan **eragina du beraien herrialdean daukaten** egoerak, kasu honetan Errumania eta Ukraina arteko mugartean kokatutako herri bateko jatorria izanik, naziotasun eredu ezberdinak bizi baitituzte. Posizio honetatik ondo ulertzen da administratiboki estatu baten menpean izan eta identitate aldetik beste sentimendu bat izatearen auzia. Horrekin alderatzen da hemengo egoera, **antzekotasunak aurkituz.**

"Y luego no te contó, que nosotros somos de Rumanía pero de nacionalidad ucraniana. Como vosotros vascos, eee españoles en la residencia y os pone que sois vascos no. Nosotros también, pero no nos... el tema de, de independizan, el ser independiente no dejan porque como era el país, de Ucrania ahora han quedau tres pueblos, los demás a cogido todo Rumanía. La cultura también es diferente que un rumano. Porque yo también cuando voy les digo soy rumano pero, en papeles y todo, pero de etnia, como vosotros, de etnia sois cultura diferente" ES_1

- **Hobe indarrak batu** eta independentzia lortzean zentratu baino guztien aurrean **krisi egoeratik ateratzeko** neurriak hartu. Jarrera eta hausnarketa hau oso modu irekian azaltzen da. Independentziak izan ditzakeen ondorio praktikoeekin lotzen da.

"Entonces la gente se ha puesto a pensar que si España siendo todo unida, que está compuesto por tantos... por País Vasco, y todo esto, está teniendo tantos problemas económicos, hay tanta crisis... y no está pudiendo salir adelante, crees que son una parte País Vasco, Cataluña o Navarra, pueden salir adelante? Yo creo que es muy difícil. Entonces yo creo que es muy complicado... sí, entiendo que luchan, todo el mundo tiene el derecho a luchar por algo, pero hay un riesgo muy grande. Siendo sólo el País Vasco tendrá ayuda económica de la unión Europea? Siendo sólo Cataluña, tendrá ayuda? No es mejor unir todas las fuerzas y conseguir una ayuda en común, y controlar más, fiscalizar más lo que es el gobierno central?" ES_2

1.4.3.2 **POLITIKA = EGUNEROKO GAIEN INGURUKO POLITIKA**

Kasu honetan **gertuagotik sentitzen da eta interesa sortzen du**. Lotura hau egiten duten etorkin berriek **denbora bat daramate Euskal Herrian**, egonkortasun egoera batean aurkitzen dira. Eguneroko politika, hartzen diren erabakiak, bere bizitzan eragina dutelakoan, horren jarraipen bat egiten da, egunkariak irakurriz, albistegietan etab.

Politikaren adiera honetan **espainiar erreferentzia hartzen da kontuan**. Oso baldintzatua dago egoera honekiko hautematea, egungo gertaerek eraginda eta nazka sentimendu bat azaltzen da. **Kontuan hartu behar da pertsona hauek batez ere gaztelerazko komunikabideak entzun eta kontsumitzen dituztela**. Politika **ustelkeriarekin eta korrupzioarekin lotzen da**.

"Corrupción, injusticia, eso. Sobre todo injusticia. Yo no creo en los políticos. Habrá muchos que son honrados pero que hacen muy poco para limpiar su imagen, la imagen de sus compañeros, eso es, si no son corruptos hacen muy poco para mantener una imagen." ES_3

1.5 MIGRAZIO PROIEKTUEN HAUTEMATEAK ETA AUERRERA BEGIRAKO ESPEKTATIBA

Migrazio proiektu bat hasten denetik aurrera, beti dago **hasierako espektatibak eta errealitatean jarraitu den bidearen arteko kontrastatze bat**. Balantze horretan kontuan hartzen dira besteak beste:

- ✓ Lan eremuaren egoera
- ✓ Harremanen kalitatea
- ✓ Jatorriko familiarekin mantentzen den lotura eta haien egoera
- ✓ Hartzailea den herrialdean jasotzen den tratua eta aurkitzen diren zailtasunak
- ✓ Dauden zerbitzuak eta hauen funtzionamendua
- ✓ Talka kulturalak sortzen duen sentsazioa

Balantze horren **emaitzen arabera migrazio proiektua birdefinitu eta eraldatzen** joaten da.

Elkarrizketatu ditugun pertsonen artean egiten den **balorazioa ona da: Euskal Herrian luzerako geratzeko leku atsegina aurkitu dute**. Gustura sentitzen dira.

- ✓ **Esperientzia txarrak eta jokaera diskriminatzaileak bizi izan arren, balantzak positiboaren aldera jotzen du.** Errespetatuak sentitzen dira, jendearen laguntza izan dute eta eskertzen dute. Herritarrekiko sentimenduei buruz galdetzean jaso dena adibide:

"Yo lo que más el agradecimiento, porque cuando yo he necesitado han estado ahí, y eso puede haber gente que quiera meterse con nosotros pero tú dices: no, ha habido más gente que me ha ayudado. Y eso prevalece más".

- ✓ Zerbitzuen inguruan egiten den balorazioan bi aldaera daude.
 - **Osasun arloan eta udal zerbitzuen inguruan ezta ezer faltan botatzen.** Gertukoak eta efizienteak bezala deskribatzen dira. Zerbitzuetarako sarbidea eta informazioa lortzerako orduan zailtasunak izan dituztela aipatzen da, baina batez ere informazioa lortzeko jatorriko joerak eta euskal herrikoak ezberdinak direla argudiatuta.
 - **Mugikortasunarekin loturiko zerbitzuetan ikusten da muga Zaldibian.** Ordiziarekin alderatuta zailagoa da garraibide publikoa erabiltzea egunerokoan. Horrek momentu batzuetan herri aldaketa planteatzera eramán ditu, batez ere lanerako praktikoagoa izan daitekeelakoan.

Etorkizunera begira, garraiobide publikoen gaiak eraginda, Zaldibiatik mugitzea planteatu arren, **Euskal Herrian proiektu migratorioa bi aldagaiek baldintzatu dezaketela ikusten da.**

- ✓ **Seme alaben etorkizuneko proiektzioak.** Euskal Herrian geratzeak seme alabei etorkizun hobeago bat eskaintzea helburu duen bezala, seme alabek jatorriko herrialdera edo beste herrialde batera mugitzeko nahia adierazteak beraien migrazio proiektuan aldaketak planteatu ditzakeela aipatzen da kasu batean.
- ✓ **Krisi ekonomikoaren eraginak,** gauzak gehiegi okertuta leku aldaketa bat planteatzera iritsi arte.

Laburtuz, pertsona batek **migrazio proiektuarekin dituen espektatiba eta hauen asebetetze mailak baldintzatzen dute jomuga duen herrialdean bizitzeko modua, onartzen diren egoerak eta hartzen diren jarrerak. Etorkin berriak,** motibazio ekonomikoak bultzatuta, horretan jartzen dute indarra, eta **egoera ekonomiko horrek baldintzatzen du beste guztia,** besteak beste, onartzen diren lan baldintzak, etxebizitza arloan egiten diren aukerak, harremanei eskaintzen zaien denbora.

Zaldibiako etorkin berriek Euskal Herriari lan aukeren ikuskera horretatik begiratzen diote. Herri oparo eta bizi kalitate on baten irudia izan dute aurrez, eta nahiz eta krisiak kezka sortu, irudi hori **mantentzen dute gurean urte batzuk bizi ostean ere.** Bertako hezkuntza sistema, zerbitzuak etab. ondo baloratzen dira, **herri antolatua eta sistema efizientea duena bezala ikusten dute.**

Euskal herrira **iristean** askok **ez dute ideia argi bat, zenbat denborarako** etorriko diren, betirako geratuko diren ala ez. **Lan eremuan** zentratzen dira eta **egoera egonkortzeak** baldintzatuko du **Euskal Herrian egonkortzeko joera** hartu ala ez. Egonkortze egoera horretan urratsak eman ahala **beste eremuetara ere zabaltzen** joango dira, **integrazio kulturalerantz batez ere.**

Bertakoekin izandako **harremanetan denetarik bizi izan dute,** jarrera baztertzaileak beraien azaletan sufritu dituzte, lan eremuan zailtasun handiak, bidezkoak ez diren kaleratzeak etab. **Baina orokorrean esperientzia horiek ez diote esperientzia atseginei itzal egin,** ikuspegia zabalduz **etorkizun hurbila Zaldibian ala inguruan proiektatzera iristeraino. Seme alaben aukerak, jatorriko familian sortu daitezken zailtasunak eta krisi ekonomikoaren ondorioak dira etorkizuna Euskal Herrian proiektatzean eragin dezaketen aldagaiak.**

2

**ESTATU ESPAINIARREKO JATORRIA ETA EUSKAL
HERRIKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN
HAUTEMATE ETA ERREPRESENTAZIO SOZIALAK**

Bigarren atal nagusi honetan **arreta jarri da Espainiar estatuko herrialdetako jatorria eta euskal jatorria duten zaldibiarren hautematetan.**

Bigarren atala antolatzeko garaian, **Zaldibian bizi izan diren bi migrazio olatuak kontuan hartu dira.** Migrazio **olatu hauen aurrean bizipena oso ezberdina** izan da eta beraz **garrantzitsutzat jo da horri atal bat eskaintzea.** Beraz, **lehen zatian Espainiar estatuko jatorria eta euskal jatorria duten zaldibiarren arteko elkarbizitza eta hautemateak** landu dira. **Bigarreanean berriz, pertsona multzo horrek etorkin berriak diren zaldibiarrei buruz dituzten hautemateak** aztertu dira.

2.1 KULTUR ERREFERENTZI EUSKALDUNA EDOTA GAZTELERADUNA DUTEN ZALDIBIARREN ELKARBIZITZAREN BILAKAERA.

2.1.1 ELKARBIZITZAREN ZERTZELADAK 3 BELAUNALDIEN PERSPEKTIBAN

Hasieran esan bezala XX. mende hasieratik gaur egun arte **Zaldibiako biztanlerian eman diren gora-behera nagusiak migrazioei lotuak** izan dira. **Aldaketarik nabarmenena** frankismoaren garaian eman zen, **50 eta 60. hamarkaden artean**, Zaldibian erroldatutakoen kopurua inoizko altuena izatera iritsi baitzen 2.025 biztanlerekin.

LAN INDARRAREKIN BATERA, KULTURA ETA HIZKUNTZAREN ETORRERA

Lanak bultzatuta etorri ziren Euskal Herrira, egoera ekonomikoa hobetzeko asmoarekin. Bilore fabrikak izan zuen eragin garbia Zaldibian. Gehienak bertan lan egitera etorri bai ziren.

Halaber, etorkin hauek lan egitera etorri bai, baina **beraiekin indarra baino zerbait gehiago ekarri zuten: beraien kultura eta hizkuntza alegia**. Honek zaldibiarren artean eta guztien arteko **elkarbizitzan eragin garbia** izan zuen.

Espainiatik etorritako etorkinek, Espainiar iparraldeko lurraldera *mugitzearen* ikuspegia izanik, **ez zeukaten hemengo hizkuntza eta kulturaren inguruko ezagupen handirik**. Hizkuntzarekin egin zuten topo lehenik, nahiz eta ez zen muga bat izan lan eremura begira.

IDENTITATEEN ARTEKO TALKA ETA BI KOMUNITATEEN SORRERA

Halaber, **talka batez ere identitate arlotik etorri zen**. Zaldibiako herritarrek eta beraien **euskal identitate fuerte eta nabarmena, eta espainiar etorkinen espainiar identitatea aurkitu ziren, parez pare**. Integrazio kulturala harremanetarako oinarria izanik, etorkin hauek ez zuten erdal identitatea garatzeko biderik aurkitu. Jatorri zaldibiarreko herritarren aldetik bai ala bai, euskal identitatea mantentzeko saiakera egin zen.

Talka horretan bakoitzak bere postura firme mantendu zuen eta 2 komunitate nagusi sortu ziren momentu horretan, elkarri begira eta aurkakotasunean kokatutako bi komunitate.

- **Euskal identitate nazionala zuten zaldibiarrek espainiar identitate nazionala zutenak mehatxu gisa sentitu zituzten. Horren aurrean euskara eta euskal kulturari tinko heltzeko mobilizatzeko joera hartu zen.**
- **Espainiar identitatea zuten zaldibiarrek aldiz, berea mantentzeko eskubideari heldu eta banatzeko joera hartu zuten.**

"Horrek ekarri zuen, batetik, esan dizut, beldurra. Hemengo jende batentzat, beldurra. Kultura aldean eta pixka bat kontzientziatuta zegoen jende batentzat, hartu zuten Francoren lantzat hori. Aportatu zutena? Lana. Horiek lanera etorri ziren, eta bizi egin behar zuten eta jan egin behar zuten. Eta bestetik zera zen... talde marjinatu... ez dut esango marjinatua, baina zera zen, oso... Bereizita bizi ziren, eh? Ez zegoen harremanik hemengoan artean eta beraien artean batere. Gehiago da, eta gainera haustura ekartzen zuen. Hor Azken Portun bada taberna bat eta anekdota hutsa da, baina esan egingo dizut. Ba hor goian ikusita nago ni egun batean Uztapide eta Baxarri betsoak kantatzen, eta azpian flamenkoa kantatzen besteak". ES_5

BATZUEN USTEZ IDENTITATE BORROKAK ESKOLA EREMUAN ERE PROIEKZIOA

Egindako elkarrizketa batzuetan jaso da bi komunitateen bereizketa eta identitate borroka hori eskola eremura ere iritsi zela. Ikuspegi hau duten pertsonen hautematean ondorengo bereizketa egiten zen:

- **Eskola nazionala erdal identitatearekin lotzen** zen, bertako haurrak espainiar jatorria izan ala ez, kategoria horren barruan sartuz.
- **Euskal giro eta identitatearekin aldiz Ikastola** lotzen zen (Ordiziakoa hasiera batean, ala Zaldibiakoa sortzen den momentutik aurrera).

Egoera honetan eskola bitako haurren artean bereizketa bat ematen zela hautematen da, lagunarte eta koadrilatan bereizketa garbi bat ematen zelarik.

"Ez det esaten harremanik izan ez duenik baina gero kuadrila eta lagunarte hoietan ez dila... Gure aurretik oso bereizita egon da. Eskola nazionalak eta ikastoletara jun zienak. Hemen ikastolaik ez da eon, eta gurasoek erabakia hartu zuen eta parte hartu zutenean ikastolaren sorreran, joaten zien Ordizira. Eta nazionalak erderaz ikasten zutenak Zaldibin, hor bai egon ziela... baztertuta egon die. Nazionalak jendea nik uste det oso baztertuta. Desestrukturatuta izan duela uste det lagunarte hori". ES_8

"Y yo le comento ahora, ¿tu pasaste eso que se ve en las escuelas?". Dice: "mamá yo he pasau como... porque el que es cojo, se meten con su defecto... el que le falta... se meten... pues a mí a lo mejor, por ser mis padres andaluces, a lo mejor me decían "andaluz", pero yo eso me lo pasaba..." ES_4

Puntu honetan halaber **datu historikoek aipatzen dutena jasotzea garrantzitsutzat jotzen dugu gaia kontestualizatzerara begira.**

Zaldibiako ikastola 1968an sortu zen, Goierriko beste herri txikietan bezala. Frankismo garaia zen eta debekatuta zegoen eskola ofizialetan euskaraz hitz egitea. **Zaldibiako ikastola sortu aurretik ez da sekula inor Ordiziako ikastolara joan.** Ikastolan zebiltzan haurrak 3.mailara arte egoten ziren Zaldibian, eta hortik aurrera herrian ikastola mantentzeko aukerarik ez zegoenez, Ordiziako ikastolara joaten ziren. 1979arte debekatuta zegoen eskola publikoetan euskaraz irakastea.

Kontestu honetan **Zaldibian ikastolara joaten ziren haurrak gutxiengo bat osatzen zuten.** Gurasoek hautu kontziente bat egiten zuten, arrisku bat beraien gain harturik ikastolen aldeko apustua egiten baitzuten. Honela, **eskola nazionaletara joaten zirenak herriko euskaldunen gehiengoa eta erdaldunak** ziren, hau da, herritarren artean gehiengo bat. Ikuspegi honetatik beraz identitateen arteko talka hori ez da inolaz ere eskolarekin lotzen. **Herri mailan aurkakotasun eta talka hori ematen zela onartzen da, baina ez da eskola ezberdinetan proiektatzen zen gai bezala ikusten**, eskola nazionalen baitzeuden herriko haurren gehiengo nagusi bat.

ESKOLA BATERATZEA, INFLEXIO PUNTUA

Identitate talka hori modu batean ala bestean ulertu, edozein kasutan argi dago **talka hori neutralizatzerako orduan inflexio puntu garrantzitsua eskola bateratzeko momentua** iristean sortu zen. Zaldibiko eskolen arteko bateratze prozesua 1979an hasi zen eta **1980/81an** gauzatu. Goierri mailan lehenengotako esperientzia izan zen Zaldibikoa. Horretan **herritarren jarrera funtsezkoa eta erabat lagungarria** izan zen.

*"Zaldibin gauza bat gero egon zen oso inportantea... eskolaren batzea! eskola batzea...
(...) Hemen zeuden bi zera: eskola nazionala esaten genuena, eta ikastola. Ikastola zegoen hemen etxe batean, hor Mari Haundi esaten dioten etxe batean. Eta pentsa ezazu gainera hor ere badago beste paradoja bat: apaizek eman behar izaten zuten baimena eskola hori irekitzeko. Ziren escuelas parroquiales hasieran ikastola denak. Eta Zaldibiako apaiza nahiz eta Karlista bere garaian eta hori dena, baimena eman zuen. Orduan hori, ikastola eta eskola nazionala. Orduan, zer gertatzen zen? Ba Zaldibian bi eskoletarako ez zegoen umerik eta gainera horrek... Baina euskalduna nahi zen, eta nola lortu? Orduan hasi ziren hizketan eta poliki-poliki, eta hor hasi ziren herri eskolak..." ES_5*

8 urteren bueltan Zaldibiako irakaskuntza euskara hutsean izatera pasa zen. Honela, batzuen eta besteen arteko **gatazka egoera difuminatzen** hasi zen, **harremana normalizatuz**. Ondorioz, hurrengo belaunaldiak eta behin eredu bakarra dagoela, ez dute bi komunitate horiekiko ezberdintasuna errepikatu.

"Nere atte hemen jaiotakoa da baina nere attone ez zan hemen jaiotakoa. Baina nere attek gero euskera ikasi zon, txikitan jakin ez arren. Ni azkenen bat gehio naiz. Eta edozein kastellanon semek e ondo... normal integrata dare".ES_10

GAUR EGUN BI KOMUNITATEEN EXISTENTZIA OSO APALA

Gaur egun bi komunitate horien existentziarik ia ez dagoela azpimarratzen da diskurtso nagusian. Etorkinen seme-alabak direnak eta euskaldunen seme-alabak direnak bat datoz hautemate honetan. **Espainiar identitatea duten zaldibiarren pertzepzioa erabat integratua daudenarena** da eta horrela ikusten dituzte gainontzeko herritarrek ere.

Guzti honetan eragin garbia izan du:

- **Espainiar etorkin batzuen jarrerak**, beraiek egindako esfortzu zuzena eta haien **seme alabak euskaraz matrikulatzerako orduan**, pertsona hauek euskararekiko gerturatze bat bizi izan dute, jarrera ireki bat mantenduz.

"Gero hori gertatzen zen! Euskaraz ikasten zuten etortzen zirenak! Euskaraz ikasten zuten. Eta claro, horrek, jada ekarri zuen konpentsazioa. Eta orain hemen ez dago erdaldunik, gazteak ere gutxi egongo dira erdaraz. Ez dakit, grazia egiten didate, juntatzen dira hor Arreserenean eta musean euskaraz egiten dute! Tutik ez dakite euskaraz andaluzek, nire adinekoak eta horrela eh? Andaluzak, extremeñoak, eta musean euskaraz!" ES_5

Aipatzekoa da pertsona hauen kasuan akulturazio prozesu bat eman dela, hau da, euskarara gerturatu dira beraiena alde batera utziz. Zaldibian euskal giro horretara gerturatu ez zirenak ondoko herrietara bideratu zuten bizitza soziala, Beasain eta Ordiziara batez ere.

- **Bertan gelditutakoen seme-alaben ibilbideak: naturalki txertatu dira lagun talde eta koadrila euskaldunetan.** Seme alaba hauetariko askok bertakoekin harremanak sortu eta bikote mistoak osatu dituzte.
- **Hezkuntza arloan emandako aldaketak. Euskaraz ikasteko aukera** izateak bakarrik, ez du eman aukerarik erdal hizkuntza eta identitate horrekin askorik identifikatzen jarraitzeko. **Lehen hizkuntzak banaketa bat sortzen zuen bezala, gaur egun batzera daramatza.**

EGUNGO GATAZKA JATORRI EUSKALDUNEKO HERRITARREN ARTEAN

Gatazka hori behin gairatuta, **elkarbizitza gatazka politikaren eremura eraman da.** zaldibiarren artean egungo elkarbizitzan euskal jatorria **duten herritarren arteko gatazka politikoa aipatzen da.** Modu sinplean esanda, garai horietan bi komunitate sortu ziren, euskaldun gehienak bloke bakar batean jarrita, etsaitzat berdina zutelakoan. Behin hori diluitu denean, gatazka balizko komunitate horren barrura iritsi da.

Ikerlan honen helburua hau aztertzea ez den arren, ezinezkoa da honi aipamenik ez egitea. Batez ere elkarbizitzaz galdetzean herritar guztiek horri egiten baitiote erreferentzia. **Jatorri ezberdinetako pertsonen artean eragiten ez duela**

aipatzen den arren, garrantzitsua iruditzen zaigu gaia azpimarratzea, bi arrazoiengatik:


- 1- Herriar **batzuek kezka** adierazten dute, **"etxekoa konpondu bitartean"** **besteekiko jarrera irekiagoa egongo ez dela aipatzen dutelako.**
- 2- **Bestetik**, ezberdinarekiko kokatzen den moduak eragiten du eta eragingo du elkarbizitzan, edozein eremutan. **Hau da, herri batek orokorrean eta edozein ezberdintasunen aurrean elkar bizitzeko duen moduak garrantzia du eta hori kontuan izan behar den aldagaia da.**

Halaber, **jarrera optimista dago horren inguruan**, bizi dugun panorama politiko berriak ere giroa lasaitzen lagunduko duelakoan.

"ta jatorri ezberdinetako jendearen artean nik uste det oso naturala izan dala zuk kuadrilan parte hartu ez hartu, gauzak antolatu, ba batzuk igual irrika gehiagorekin... ea nola esango dizut? Batzuk antolatzaileagoak ziren, beste batzuk ba parte hartu eta sin mas. Baina bueno... nik uste det hemen Zaldibin oso naturala zela. Oain artean behintzat. Gero hemen, eh, Aralar sortzearekin, enpatea egoteakin-eta... oso urte gogorrak izan die, oso oso gogorrak. Puf, herrian bi espaloj ere gutxi! Oso oso min haundia eman du alderdi hortatik. Bai. Eta nik uste det pixka bat sendatzen oaindik gauza hoiek." ES_9


2.1.2 EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN GAINEKO HAUTEMATEAK: BERE ESTATUSA ETA FUNTZIONALITATEAREN INGURUKO IKUSPEGIAK.

Zaldibia **herri euskalduna** da, kaleko hizkuntza, egunerokotasuneko hizkuntza euskara da. 2001eko datuen arabera **euskaldunek eta ia euskaldunek populazioaren % 95a** osatzen dute. Euskararen presentzia bermatua dago eremu guztietan. Zentzu horretan **ezta erreza euskal kultura eta euskararen aurrean ez kokatzea.**



Iturria: EUSTAT, 2006ko datuak

Hori abiapuntu izanik hauek dira euskara eta euskal kulturari buruzko diskurtsoetan antzematen diren jarrerak:



A. EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA ERDIGUNEAN

Posizio honetan kokatzen dira **jatorri euskalduneko herritarrak, euskal nazio ikuspegia dutenak eta ez dutenak ere. Euskara eta euskal kultura posizio zentrolean jartzen dute eta posizio horretatik begiratzen dute mundua.**

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA DA ERDIGUNEAN:

Euskara eta euskal kulturaren artean lotura egiten da. **Euskara** eta euskal kultura da bertakoa, **bertakoei identitatea ematen diena. Hizkuntzak mundua ulertzeko modu bat ematen du**, eta hizkuntza horren bitartez eta mundua ikusteko modu horretatik eraikitzen dena da euskal kultura.

Euskalduna nor den azaltzeko aldagai ezberdinei egiten zaie erreferentzia. Lurraldetasunari bakarrik ez zaio garrantzia ematen, hau da, euskalduna izan daiteke euskal herrian jaio dena, baina batez ere **persona bat euskalduna izango da euskara duelako**, hizkuntza erabiltzen duelako.

Euskara eta euskal kultura eguneroko bizitzari lotuta irudikatzen da, **presente egon behar du bizitzako eremu guztietan**, kalean, eskolan, administrazio mailan, lan esparruan, harremanetan.

Ikuspegi honetatik, **euskaldun izatea harrotasunez** bizi da.

EUSKARAREN ETORKIZUNA EZ DA ZALANTZAN IKUSTEN ZALDIBIAN BERTAN,
BAINA ZAINDU BEHAR DA, BATEZ ERE KALITATEA EZ OKERTZE ALDERA.

Euskal Herrian euskararen egoera delikatua da. **Ezagutza eta batez ere erabilera mailak kezka sortzen du.** Kezka hori ezberdina da eskualde eta herriaren arabera, eta noski herri eta eskualde horietan egon den kultur arteko talkaren arabera. Hizkuntzaren erabilera esparruak, hizkuntzarekiko ikuspegia, erdalduntzerako joera hainbat ingurunetan (eskoletan, gaztetxoan artean...)... Egoera horren aurrean gaude. **Halaber, Zaldibiara mugatuta ez da panorama hori ematen.** Herri euskalduna da, datuetan ikusi dugun bezala ezagutza maila eta erabilera oso altua da. Errealitate honetatik abiatuta, **herri mailan egungo hizkuntza aniztasunak** euskarari ez diola kalte egingo uste da, **ez da mehatxu gisa ikusten. Baina zaindu behar den hizkuntza da,** batez ere kalitateari ere erreparatuz. Inguruko herrietan ikusten joera dela medio kontuan izan beharreko gaia dela aipatzen da.

"ni pixka bat kezkatuta nago nola, Zalbidin, ez... eh? hizkuntz kalitatea. Itsasondokoa pixka bat ni nago beldurtuta, bai? Arraro hitz egiten dalako, parregarri. Eta umetatik hasita, eta joera hoi, ez? Gainera erdaraz gaizki esaten dun umek. Umeak erderaz zerbait gaizki esaten badu zuzendu egiten zaio oso modu onean, baina euskaraz dena onartzen da. Eta... Eta kalitatea gero eta txarragoa da.

Nik uste det nolabait, kutsadura, influentziak hor daude. Bai hitzek baina beste dana ja... puf, ni ikaratuta gelditzen naiz. Esaten dituzte barbaridadeak gainera. ES_9

POSIZIO HONETATIK EUSKARARA GERTURATZEN DENA BIZIKI
BALORATZEN DA.

Esfortzua baloratzen da eta errekonozitzen zaie. 'Ilusioa' egiten du jatorri ezberdineko norbait euskaraz mintzo dela ikustean.

"Gainera ikusten dituzu askotan, ni ikusita nago kanpoko batzuk kanpotarrak baina euskaraz ikasi dutenak eta hemen kulturari eta... eta gainera poztu egiten zara. Joe euskal kulturari behintzat ondo integratu da, eta hori polita da, bai, ondo ikusten dut." ES_11

Erdigunean euskara eta euskal kultura jartzen dira beraz, **baina** abiapuntu horretan **kokatuta kanpotik datorrenarekiko bi jarrera** daude:

- Batzuek **jarrera zabala** mantentzen dute aniztasunarekiko, eta kanpotik datorrenak berea ere mantentzeko aukera ondo ikusten dute. **Kultur eredu ezberdinek elkarri elikatu** ahal diotela uste da.

"aberasgarria dela hainbeste kultura izatea herri batean baita ere. Eta baita ere izango zen interesgarria kultura ezberdinetakoak baina baita ere euskaldunak." ES_11

- Beste batzuek **kanpotik datorrenak zertan integratu behar duen argi** dute alde zurretik. Kultur ereduaren arabera malgutasun bat ala beste izanik.

ABERTZALEA ABERRIA MAITE DUENA

Politikaren gaiari helduz, abertzalea herria maite duen pertsona bezala ikusten da, espainiar abertzalea ala euskal abertzalea izan.

Ikuspegi honetan kokatzen diren pertsonen artean **bi jarrera** daude euskalduna, abertzaletasuna eta independentziari dagokionez:

- Gehiengoak **euskara, euskalduna izatea eta euskal abertzaletasunaren arteko lotura egiten du, ez da ulertzen bata bestea gabe**. Euskara maite duenak eta euskara duenak, euskal aberria maite duela uste da. Ildo honetatik jarraituta, independentzia eskubide gisa planteatzen da.
- **Bestelako ikuspegiak ere badaude**. Euskara maite, euskal kultura maite baina independentziarekiko beste jarrera bat dutenak hain zuzen. Kasu honetan ezta ikusten nazio-estatu euskaldun baten beharra euskara eta euskal kultura maitatu ahal izateko.

B. EUSKAL HERRIA, HERRI BIKULTURALA

Diskurtso honetan kokatzen diren pertsonak, espainiar jatorria edo euskal jatorria izan arren ama hizkuntza gaztelera eta espainiar estatuaren erreferentzia dute.

Posizio honetatik Euskal herria bikulturala den herrialde bezala ikusten da, elkarrekin parekotasun batean elkar bizi diren bi kultura daude. **Euskara eta euskal kulturaren berezitasuna eta lekua aitortzen da, estatu espainiarraren barne dagoen herri bezala eta berdintasun batetik**.

EUSKARARI DAGOKIONEZ:

Hizkuntzari dagokionez **elebiduna den herrialde batean kokatzen dira**. Hau da, gaztelera eta euskara berdintasun batean kokatzen dituzte.

Diskurtso honetan kokatzen diren zaldibiarrek **jatorriz gaztelera dute ama hizkuntza eta ez dute euskara erabiltzen**. Denbora bat herrian eman ondoren **euskarara gerturatze bat izan dute**, baina ez da beraien egunerokotasunean erabiltzen den hizkuntza. **Lan eremuan ere ez dute beharrik izan**.

Euskaldunen hizkuntza euskara dela aitortzen da. Eta **euskalduna euskara erabiltzen duenarekin lotzen da, eta euskal identitatearekin**. Erabili ezean "benetako" euskaldunak izateko aukera kenduz. Diskurtso honetan kokatzen diren herritarrek **beraien burua ez dute euskalduntzat**, jatorriz euskal herrikoa izan ala ez, ez baitute euskara erabiltzen.

EUSKARA BERDINTASUN BATEAN KOKATZEN DUTE GAZTELERAREKIKO.

Ikuspegi elebidun horretatik **biak ikusten dira beharrezkoak herri honetan eta biei lekua egin behar zaiela** sentitzen da. Aurreko diskurtsoan euskararekiko harrotasuna nabarmentzen zen bezala, diskurtso honetan kokatzen direnak **gazteelerarekiko harrotasuna sentitzen dute**.

EREMU FORMALEAN ELEBITASUNA EXIJITZEN DA

Zaldibiako kaleetan euskararen presentzia erabat onartzen den arren, **eremu formalean (administrazioan, eskolan...) bien presentziaren beharra ikusi eta exijitzen da**. Elebitasun horretan bizitzeko eskubidea aldarrikatzen da. Honela, kritikatu egiten da eskolan edo administrazioan euskara hutsean aritzen den kasuetan.

EUSKARA, "TRESNA" ERABILGARRIA DA

Zaldibian, euskara tresna erabilgarria da bi gauzetarako:

- **Harremanerako eta integraziorako. Beharrezko tresna ikusten da** erabiltzen bada gainontzeko herritarren errespetua irabazteko modua bezala ikusiz.
Norberaren hautu bezala geratzen da beraz euskara ikasi ala ez. Ikasteak aukerak zabaltzen ditu, ikasten ez baduzu hainbat eremuetan muga izango duzu, Zaldibian behinik behin. Baina beti ere hizkuntzari ikuspegi praktiko batetik begiratzen zaio. Hizkuntzaren balio sinbolikoari ez zaio erreferentziarik egiten.
- **Balio praktiko bat ere badu: lan eremuan atea zabaltzeko.** Euskara jakiteak etorkizun hobeago bat eskaintzeko aukera ematen du lan eremuan. Honela, etorkizun bat hemen irudikatzen duenak txikitatik hizkuntza badu aukera gehiago izango ditu, bestela aurrera begira ikasi beharko duen zerbait da.

SEME ALABEK EUSKARA JAKITEA GARRANTZITSUTZAT JOTZEN DA, GAZTELERAK JAKITEA BEZAIN BESTE.

Euskara ikasteak balio komunikatiboa du, **beharrezkoa da Zaldibian harremanetarako eta integraziorako**. Askok beraien azalean bizi izan dute euskara ez jakitearen ondorioa, eta seme alabei beste aukera bat eman nahi izan die.

"E: yo quería que aprendiesen .Que aprendieran y que se integrasen en el pueblo porque, es que no había otra. Lo mejor es integrar, que si no... nunca vives feliz.

G: ¿A SI QUE ERA IMPORTANTE?

E:Para mí sí, para otros no. Pero para mi si." ES_4

Zaldibian dagoen berezitasuna D eredua besterik ez dagoela da. Beste ereduan ikasi nahi bada inguruko herrietara joan beharra dago. Horrek, zailtasunak ekartzen ditu, batez ere seme alaben sozializazio eremuari dagokionez. **Beste herrialdeetara joan beharrak herri bertako lagun taldeak sortzerako orduan eragin handia** izango duelako.

Beraz, ia kasu gehienetan, seme alabak D ereduan matrikulatu dituzte.**Baina kasu batzuetan Zaldibian B eredua egongo balitz bertan matrikulatzeko aukera ezta baztertzen, D ereduan egoteak** **gastelerarekiko maila ona izatea bermatzen ez duelakoan.**

"porque aquí, si les matriculas en otro modelo, me parece que no les dan, que les mandan fuera. Entonces si alguien que... te ofrecen los tres, pero si hay una persona, claro no tienen infraestructura para darles clase, entonces creo que les

ponen taxi y les mandan a Ordizia. Pues entonces no me parecía, pero si yo hubiese vivido en un Beasain o en un sitio así, posiblemente le hubiese terminau apuntando en el modelo B. Pero me hubiese pensau mucho mas. Simplemente creo que es un poco mas positivo para su futuro laboral o personal o no se como explicarlo, el que dominarían o que, eso que dominarían mas el castellano." ES_6

EUSKAL KULTURARI DAGOKIONEZ:

Euskal kultura, tradizio eta adierazpen kultural konkretuekin lotzen da: dantza tradizionalak eta gastronomiarekin batez ere, **eta nekazaritza munduarekin.Baina kasu honetan ez da hizkuntza aipatzen.**Honela, euskal kulturako elementuren bat beraien egunerokotasunean txertatua dagoen galdetzean, gastronomia eta janaria prestatzeko moduari egiten zaio erreferentzia.

POLITIKAREN INGURUKO HAUTEMATEAK

Politika hitzarekin zer ulertzen den galdetu zaie. Kasu honetan politika zuzenean gatazka politikoarekin lotzen da eta ez da interes handirik sentitzen. Euskal kultura eta euskara politikatik bereizten dira.

"Pero tampoco le doy demasiadas vuelta. Yo, a mi no me gusta la política" ES_6

Politikan sartuta, **abertzale hitzarekin egiten den lotura** oso baldintzatua dago gatazka politikoaren inguruan euskal herriko mugetatik kanpo ematen den irudiarekin. Abertzalea **jarrera separatista bat duen pertsonarekin** lotzen da, erradikala. "Hemengoak" eta "hemengoak ez direnak" hari horren arabera banatzen dituen pertsona.

"muy radical separatista, tampoco, a mi no me gusta la política. Yo considero que es, pues de estas personas que, que si que tienen o tenemos que estar separadas de España yyy, pues son muy radicales, no piensan, bueno no es que no piensen mas que en eso pero, que es así y no les harás en la vida cambiar de opinión".ES_6

Abertzale **hitzaren estigma kenduz, euskaldunek beraien herria sentitzeko duten eskubidea ez da ukatzen**. Bikultualtasun begirada horretatik **errespetu handiz begiratzen zaio Euskal Herria bere sentitzen duenari. Baina euskaldunek beraien herri sentitzen duten bezala, euskaldun ez direnek berea sentitzen ez uztea kritikatzan da**, eta beraien ikuspegia errespetatzea aldarrikatzen da. Hau da, Euskal Herri bikulturala da, guztiona, ez batzuen besteei baino gehiago.

"Otro ejemplo, parece que, esto es suyo, y esto es de todos, yo pienso que es así, la persona es buena aquí, y es buena en Andalucía, y la persona que es buena y que es legal y en todos los sitios somos iguales, poco más o menos. Y el que tiene cariño a una cosa, le tiene a su tierra, le tiene al de aquí le tiene al de allí, le tienen a todo, le tenemos todos. Yo creo, mi opinión." ES_4

C.- ESPAINIAR ESTATUAREN BARRUAN MENPEKOTASUN EGOERA BATEAN KOKATZEN DEN EUSKAL AZPIKULTURA

- Oso **minoritarioa den jarrera** da, **euskara eta euskal kultura espainiar estatuaren barne menpekotasun egoera batean kokatzen duena. Ez da zuzenean jaso den diskurtsoa egin diren elkarriketetan, baizik eta hirugarren pertsonen jaso dira erreferentzi hauek**. Hau da, jarrera hau daukaten pertsona batzuei buruz hitz egin dute.
- Hizkuntzari dagokionez, espainiar kontzientzia nazional baten ikuspuntutik, herritar nazional guztiak komunikatzeko tresna normalena gaztelera da. **Gaztelera komunean badago euskara ikasteari ez zaio zentzu askorik ikusten**.Gazteleraren ezagutza komunean izanik **euskararen erabilera soila egitea ezta ontzat hartzen**.
- Era berean, **euskal kultura distantzia batetik bizi eta begiratzen dute**, nahiz eta euskal kulturarekin eta adierazpen kulturalarekin lotutako elementu batzuetan kontaktua izan.
- Diskurtso honetan kokatzen direnak **oso integratuta egotearen pertzepzioa dute, integrazio sozioekonomikoari erreparatzen baitzaio soilik**, integrazio kultural edo politikoak inolako garrantzirik izan gabe.

2.2 ETORKIN BERRIAK BESTELAKO ZALDIBIARREN BEGIETARA.

2.2.1 ETORKIN BERRIEKIKO IKUSPEGIA

A. ETORKINA: IMAGINARIOAN EGITEN DEN ERAIKUNTZA

Kontzeptutik abiatuz, Espainiar eta Euskal Herriko jatorriko zaldibiarrek etorkin berriekiko sortzen duten imaginario sozialean etorkina nor den ala ez kontsideratzeko orduan ezberdintasunak daude. Eta **egiten den eraikuntza sozialean aldagai ezberdinek eragiten** dute:

- **Etorkin hitzarekin zer ulertzen den**
- **Ze ezaugarri atxikitzen zaizkion**
- **Ezberdintasunarekiko nola kokatzen den pertsona**

ZER ULERTZEN DA ETORKIN HITZAREKIN

Etorkin hitzarekin zer ulertzen duten galdetuta, diskurtso ezberdinak antzematen dira. Etorkin hitza bera arrotz suertatzen zaie. **Etorkina kanpotik datorrena da**, inork gonbidatu gabe bere kabuz etortzea erabaki duen pertsona. Horretan denak ados azaltzen dira. **Hortik aurrera aldiz, ezberdintasunak daude etorkin kontzeptuarekin ulertzen denaren inguruan:**

- **Euskal kontzientzia nazional bat duten pertsona askorentzat, etorkina, Zaldibiatik kanpoko beste herri batetik etorri den pertsona da:** Euskal Herritik, Espainiar estatutik edo Espainiar estatutik kanpoko herri batetik.
- **Euskal kontzientzia nazionala izan arren, batzuek etorkina "atzerritik" datorren pertsonarekin lotzen dute, espainiar estatutik kanpoko herrialdeetatik alegia.** Bereizketa bat egiten dute: **etorkina estatu espainiarretik kanpo datorrena da, eta kanpotarra estatu espainiarretik datorrena.**
- **Azkenik, Espainiar nazio ikuspegia dutenek aldiz, etorkinekin zuzenean estatu espainiarretik kanpoko pertsonak irudikatzen dituzte, hau da, etorkinak etorkin berriak dira hauen begietara.**

"para mi inmigrante es, pues gente de otros países, bueno igual tu me dirá que yo soy de otro país, o no soy de otro país... Pues gente que viene de fuera de la

península, Portugal tambien evidentemente, no se gente que viene de Madr, es que de Madrid ¿emigrante?, a mi emigrante me suena a gente que viene, pues eso, fuera de la península.” ES_6

ZER ULERTZEN DA “ETORKIN BERRIAREKIN”

Etorkin berriak, **Espainiar estatutik kanpoko herrialdeetatik datozen pertsonak** kontsideratzen dira.

Gehienetan Euskal Herrian baino baldintza okerragoak dituzten herrialdeetako pertsonekin lotzen dira. Motibazioa zentzu horretan lan egitearen arlotik dator. Emigratzeko erabakia lan eskasia eta bizi baldintza txarrak izateak bultzatu duela uste da.

Halaber, badira Euskal Herrira etortzeko beste motibazioak ere ikusten dituzten zaldibiarrek, bizi baldintza hobeago batzuen bila etortzea baino **hizkuntza ikasteko edo bertako kulturara gerturatzeko** motibazioak etortzera bultzatu dituztenak. Hemen kokatuko lituzkete, esaterako, irlandarrak edo holandarrak.

EZBERDINTASUNAREKIKO KOKAPEN EZBERDINAK


Jatorri ezberdinetako pertsonen artean, edozein jatorritakoa delarik, **ezberdintasunak badaudela** argi dago, ohituretan, izateko era ezberdinak, pentsaera ezberdinak ... Hori errealitatea da, aniztasunak hori eskaintzen du.

- **Ezberdintasun batzuk nabariagoak dira,** esplizituagoak. Askotan eremu publikoan azaltzen direnak. Jantzkerak, aisi ohiturak, erlijioari lotutako joerak...
- **Beste batzuk sutilagoak dira eta eremu pribatura mugatzen dira.** Gastronomía, entzuten den musika, bizitza ikusteko eta mundua ulertzeko modua, , harremanak sortzeko modua ...

Etorkinaren aurrean daukagun hautemateak ezberdintasunaren aurrean kokatzen garen moduarekin harremana badu. Honela, 3 jarrera ezberdin egon daitezke:

- **Ezberdintasuna ikusten da,** baina ez da epaitzen. Aniztasuna aberasgarri dela sentitzen da, **parekotasun batetik.** Etorkina izan edo ez, pertsonak du garrantzia eta **horren aurrean jartzen da.**
- **Ezberdina dena ikusten da, baina distantzia batetik, indiferentzia batetik** begiratzen zaio. Ez du bestelako ezer eskaintzen ez ekartzen, eta ez da mehatxu sentitzen. Hor dago, besterik gabe.
- **Ezberdintasuna eta ezberdina dena mesfidantza begirada batekin** begiratzen da. Aurrean jarri baino ikusezin bilakatzen da.

B.-IKUSPEGIAK



Hasieran esan bezala, eta besteak beste, etorkin hitzarekin zer ulertzen den, atxikitzen zaizkion ezaugarriak eta ezberdintasunaren aurrean kokatzen denaren arabera **3 diskurtso jaso dira etorkin berriekiko hautemateei** dagokionez:

1. IKUSPEGIA: IKUSPEGI ZABALA ETA PERTSONEN BALIOENGAN ZENTRATUA.

- Etorkina, kanpotik etorri den oro
- Egoera ezberdinek bultzatu dezakete etortzera, nahiz eta gehiengoan lanera etorri
- Sentsibilizazioa egin behar duten ibilbidearekin
- Lan egitea eta bestelako 'aberastasuna' ekartzen diote herriari
- Modu berdinean ikusten dira jatorri ezberdinetako etorkinak

Nortzuk dira etorkinak?

Etorkinak kanpotik etorri direnak dira, jatorria edozein delarik. Euskal nazio ikuspegi batetik begiratzen dituzte diskurtso honetan kokatzen diren pertsonak.

"Etorkina? kanpotik datorrena. baño bueno, etorkine mota askotakoa izan leike, ez? Esan nahiet, etorkine izan leike (tts) a ber, beste herri batetik datorrena... o bueno, ya gero ya izango zan beste herrialde batetik datorrena, Euskal Herria eztan beste herrialde batetik". ES_7

Etorkin berria aldiz **Estatu espainiarretik kanpo etorritako** pertsona da, **motibazio ezberdinek bultzatuta** etorri dena. **Gehiengoaren** kasuan **beraien herrialdeetan daukaten egoera eskasa dela eta** etortzen direla kontsideratzen da. **Baina bestelako arrazoiak ere** ikusten dira: hizkuntza ikastearekin, esperientzia bat izatearekin lotura esaterako.

"gaur egun erasmus ta holako gauzekin, emigratzea, emigrar viajar bezelako kontzeptu hoiek, beste mundu batzuk ezautuz ta hoi, modan jartzen ai da, adibidez nik daukaten kanpoa juteko idea hoi ez da behar, beno behar bat bada ba hizkuntza ikasi beharra dauketelako gaur egungo egoeragatik, ez baleo hau ez nintzen jungo... baino aukera bat bezela da..." ES_10

Diskurtso honetan kokatzen diren pertsona gehienek arrazoi bat ala besterengatik kontaktua badute etorkin berriekin. **Ezagutza batetik abiatzen dira** eta horrek **sentsibilizazio jarrera batean kokatzen** ditu gaiarekiko. Etorkin berriek Euskal Herrira etortzeko egindako ibilbidearen

ezagutza badago eta bizi izan duten egoera kaxkarra kontuan dute. Jarrera enpatiko bat azaltzen da zailtasunei dagokionez.

"zuk emiratzen dezunen baitare, hok beharragatik emigrau due gehienak, ordun ia zoaz bizie bilatzea. Ordun gehio arriskau beharra daukezu, gauza batzuk gehio beidau beharra daukezu... joe, ez dakit nola esan. Eh... zuk bizitzeko jokaera oso diferentea da. Gu oso komodo gare. Ni paron nao baino oso komodo nao. Netzako oso diferente bizi gea. Aldameneko etxen bizita re bere bizie ta nerea oso diferentek die. Nik dirue dauket, beak ez dauke diruik. Eta ez da dirue bakarrik. Bea bakarrik, bueno, bakarrik ez dau baino bere heritik kanpoa dau, deskonfiantzak ta igual gehio dauzke. Normala iruitze zait. Ni kanpoa jun ezkeo gehio deskonfiatuko nuke inguruko jendeaz baita, zeatik, da sistema bat ez dezuna ezautzen, herri bat ez dezuna ezautzen, gainea umek dauzke..." ES_10

Aipatzekoa da ikuspegi hau dutenen posizioa "egonkorra" dela, **ziurtasun egoera batean daude, lana izan ala ez, familiak babesten eta lagunarteak jasotzen dituen inguru eta herri batean.**

Zer aportatzen dute?

Etorkin berriek **lan eskua** aportatzen diote euskal gizarteari, **baina aberastasun iturri bezala badira**. Zaldibiaz eta Euskal Herriaz haratago beste mundu bat ere badagoela ikusteko aukera eman dute, **jendearen ikuspegia zabaltzeko aukera. Mundua ikusteko modu bat dute, gauzak ulertzeko era ezberdin bat** eta beraingandik asko ikasi daiteke.

seguro daudela 500.000 mila ikasi leizkenak, zeatik, beraiek eukikoitue beraiek historik, beaien kultura... eta beraien kontu pila bat nun ikasi leiken. ES_10

Desberdintasuna ikusten da, baina horren **epaiketarik ez da egiten**. Desberdintasun mota asko daudela ulertzen da, pertsona ororen baitakoa, eta aberasgarria dena.

Bai. Diferente ikusten diela, bai. Eta esaten duenak ezetz, nik uste gezurretan ai dala. Hasteko gainea diferentek dielako, ez onagok eta ez txarragok, baina diferentek die. Ohitura diferentek dazkae eta gauza pilla bat dauzka diferentiak dienak.

Etorkina izatea beste kategoria bezala ulertzen da, pisurik jarri gabe. Ezta etorkin kategoria horren barruan mailaketa bat egiten. Halere, jatorriaren arabera, eta ezberdintzen dituzten aldagaiengatik integrazio mailan eragin dezaketela komentatzen da, komunean gauza gehiago daudenean harremanak sortzea errazagoa dela argudiatuta.

Sentimendu ezberdinak egozten zaizkio horren aurrean, etortzeko motibazioaren arabera. **Errukia, pena, baina jakin-mina eta interesa ere.**

2. IKUSPEGIA: INDIFERENTEA

- Etorkinak pobrezia egoeran datorren pertsonarekin erlazionatzen da
- Ikuspegi utilitarista batetik begiratzen zaio.

- Ezta mehatxu bezala ikusten, bigarren maila batean kokatzen bai dituzte.
- Aniztasunak lan eskua batez ere dakarrela kontsideratzen da

Etorkinak dira kanpokoak diren oro diskurtsoan, baina **ezaugarri jakin batzuekin lotuak** dauden etorkinei buruz hitz egiten da gero:

- Etorkina bere **herrialdean jatekorik ez eta baldintza oso txarrekin bizi denarekin** erlazionatzen dute, beste aukerarik ezean hona etorri diren pertsonak bezala ikusten dira. Batez ere errukia sentitzen da beraien aurrean.
- Etorkina da **lanera datorrena**.

Beraz, **bi elementuren arteko lotura** egiten denean zailtasuna sortzen da "lehen munduko" horiek izendatzerako orduan, alemanak, eskoziarrak...

Begirada hau daukaten pertsonak ekonomikoki egonkortasun batean kokatzen dira. Etorkin berriekiko ez dago ezagutza handirik, kontakturik ere ez da ematen, interakzioa minimoa da, horrela suertatu den momentuetan. Aurreiritzietik hitz egiten da.

Ikuspegi utilitarista batetik begiratzen dira etorkinak. Ikuspegi horretatik **aniztasunak** aportatzen duenaren inguruan galdetzean, ezta askorik aipatzen. **Ez du ezer aportatzen ez kentzen**, hau da, ez da aberasgarri edo mehatxua den zerbait bezala ikusten. Etorkinak **lan aspirazio gutxi dituzten pertsonak** bezala ikusten dira, eta beraz ez dira aurkariak.

*"esa persona normalmente no tiene estudios, pues si le dan un trabajo pues de barrendero o, o tipo de cosas aquí no. Y hasta ahora la gente de aquí no queríamos eso. Te quiero decir que nosotros aspirábamos a mas y, la gente, no ese tipo de gente, no quiero decir eso, pero, ya sabes los trabajos de camarero o de cuidadora de ancianos o de barrendero o de la limpieza o... de lo que nosotros no queríamos."*ES_6

Jarrera honetan badago **ñabardura bat**. **Aniztasuna bera baino, immigrazio mugimenduekiko** sentitzen da **kezka**, honek **herri mailan izan dezakeen inpaktua** hain zuzen. Zaldibia herri txikia izateak dituen alderdi onak galtzeak, esaterako guztiak elkar ezagutzea, ematen die errespetua.

3. IKUSPEGIA. MESFIDANTZATIK ERAIKITAKO DISKURTSOA

Etorkinak, **Espainiar estatutik kanpoko pertsonak** bezala irudikatzen dituzte. Baina **praktikan** etorkinak ondorengo ezaugarriekin lotzen dituzte:

Aurreko diskurtsoan bezala, **beraien herrietan pobrezia egoera batean daudenak** bezala ikusten dira. Konnotazio konkretu bat dauka etorkin hitzak berak. Hortaz alemaniarrek eta eskoziarrak adibidez kategoria honetan txertatzea kosta egiten da.

Jatorriaren arabera eta sentitzen den distantzia kulturalaren arabera mailaketa bat egiten da. Eta **ezaugarri batzuk atxikitzen zaizkio** jatorri bat ala bestekoa izan. Beraz, alemaniarrek, errumaniarrak eta marokoarrak etorkin oso ezberdinak bezala ikusten dira eta batzuen eta besteen aurrean modu diferentean kokatzen da.

"los alemanes son, por ponerte una esto, inmigrantes de primera. Los rumanos pues, de segunda y los del norte de África... Aunque igual nooo, no lo , no se muestra e, pero a mi me da la impresión, porque oyes igual en corrillos y tal, que los, los consideran diferentes, por ejemplo que los alemanes." ES_6

Edozein kasutan, etorkin berria paradisu batego bezala irudikatzen da, bere menpekotasun egoera erabat ezkutatu. Euskal Herrira iristen dira, ia dena egina eta erraztasun asko ematen zaizkien herrialdera.

"Es que hemen ematen diozu etxea, ematen diozu umearen jangela, ez dakit zer... eta nola ez dira ba etorriko handik! Han bizi diren miseriarekin esaten dutenez... Gero ez dut esaten hemen lanik egiten ez dutenik, baina niretzat, ez dakit..." ES_11

Ikuspegi utilitarista batetik begiratzen da, denak lanaren inguruan ematen du buelta. Egiten duten **aportazio bakarra lan eskua** da, bestelako aberastasunik ikusi gabe.

"Hombre lana ematen diote behintzat. O sea, lana egiten dutela beraiek esan nahi dut." ES_11

Gehiengoak dirua irabaztera datozen pertsonak dira, epe konkretu baterako, dirua egin eta bertako kulturen murgiltzeko gogo eta asmorik izan gabe.

"Si que hay gente que igual, le da igual integrarse o le da igual integrarse o, le dices hola y no va mas allá, porque creo que están aquí, ellos saben que están de transito, van a estar dos tres años y se van. Entonces tampoco les hace, no quieren echar raíces en ningún sitio o o, yo creo que muchos, o sea muchos, no quieren echar raíces, porque saben que se van a ir, luego los crios para que no, para que sufran lo menos posible, pues cuando menos arraigaus estas luego menos sufres al irte. Yo no soy racista, yo creo que todos tenemos un poquito de racista." ES_6

Asimilazio joera bat hartu behar izana aurre suposatzen zaio. Bertakora egokitu behar du nahiz eta epe baterako izan, eta esfortzua egin.

Etorkin berrien aurrean, **ezberdintasunak ikusten dira batez ere, mesfidantza batetik begiratzen zaio.** Etorkin berriengan konnotazio negatiboa duten ezberdintasunak ikusten dira. Hori dela eta, **estereotipo negatiboak maiz agertzen dira,** etorkin berriei ari garelarik.

"Ez dakit, beti jaleoetan dabilta, ez dakit... Ez dakit nola moldatzen diren, agian arrazoia izango duten gehienetan, baina ez dakit... Egia da hori, gehienetan jaleoak izaten dituzte. Irakasleei kristoren erantzunak ematen eta horrela. Hori izan da nik ikusi dudana, duela lau urte edo." ES_11

Ezagutzen den gutxi horretatik ikusten dena oso gogoko ez izateaz gain, **gehiago ezagutzeko desiorik ere ez** dago. Horrek nolabait **ikuspegia gehiago okertuko ote duen beldurrez**.

Diskurtso honetan kokatzen diren pertsonak eta zaldibiar jatorria ez dutenak direnen kasuan, beraien burua nekez kokatzen dute etorkin kategoriaren barruan.

"yo no soy de aquí, no soy de Zaldibia, ni siquiera soy del Euskal Her... del País Vasco o de Euskadi. Pero no me considero inmigrante" ES_6

2.2.2 ETORKIN BERRIEKIKO HARREMANARI BURUZKO GERTURATZEAK ETA DISKURTSOAK

Etorkin berriak eta Espainiar estatuko beste herrialdeetako nahiz euskal jatorria duten zaldibiarren arteko harremanei buruz hitz egiten dutenean, honako ideiak jasotzen dira beraien diskurtsoetan:

- **Elkarbizitzarako harremana beharrezkoa ikusten da**
- **Egun, harremana oso puntualak dira, azalekoak eta esparru konkretuetan ematen dira**
- **Helduen artean lan eremua eta eskolaren bueltan ematen da interakzio gehiena. Aisialdian eta eremu informalean ez dago apenas interakziorik.**
- **Umeen artean harremanak naturalak dira.**
- **Integrazioaren inguruan ikuspegi asimilatzaile baten zantzuak badaude. Egon diren gatazka edo talka adibide urriak ohitura eta tradizioen eremuan izan dira.**
- **Jatorri ezberdineko harremanen artean baino, pertsonen arteko harremanaren krisia ikusten da honetan eragiten duen aldagai bezala**

Elementu hauetako asko bat datoz etorkin berriek harremanak irudikatzen dituzten moduarekin. Honela, harremanen osasunaren inguruan egiten den balorazioa eta harremanak bizitzeko moduan aldagai asko komunak dira.

Etorkin berriek egiten zuten **balorazio berdina** egiten dute espainiar jatorriko eta euskal jatorriko zaldibiarrek harremanen egungo osasunarekiko.

Guztien hitzetan jaso da **errespetuzko gutxieneko harreman bat** mantentzen dela herritar guztien artean. Gutxieneko harreman hori **agurtu eta gai konkretuen inguruko jarraipena** egitera mugatzen da. Interesa azaltzen da, jatorriko herrialdeetako bizimoduaren inguruan zerbaitek arreta deitzen badu, baina horretara mugatzen da.

"la convivencia yo creo que es la justa, la de... de educación, "buenos días" y poco mas."
ES_6

2.2.2.1 ELKARBIZITZA HARREMANAREN ESKUTIK DATOR

Elkarbizitzaz hitz egiten denean, diskurtso nagusian **harremanei eta interakzioari** egiten zaie erreferentzia. **Integratua** dagoena **herrikoekin harremanak dituena** dela kontsideratzen da, **lan munduan soilik txertatzea ez da elkarbizitzara begira nahikoa.**

"Integratzeakin? Ba azkenen bertako jendeakin ibiltzea, bertako jendeakin konfiantza eukitzea... bertako jendek iten ditun gauzak itea. Gauza batzuk ez daukezu in beharrik, klaro. Bertako jendea ibiltzen dan lekutan ibiltzea iruditzen zait nei izango dala integratzea. Ez? Bertako jendeakin amistadek eukitzea, ba... adibidez, zure pareja kanpon daonen beste pareja batzuekin jutea, beste pareja batzuekin planak itea, o bestekin geatzea. Beste bat gehio izatea". ES_10

Ikuspegi honetatik elkarbizitzaren osasuna apala da, harremanak oso azalekoak baitira.

HARREMANETARAKO LAGUNGARRI ETA OZTOPO DIREN ELEMENTUAK EUSKAL JATORRIA ETA ESTATU ESPAINIARREKO JATORRIA DUTEN ZALDIBIARREN BEGIETARA.

Harremanetarako lagungarri eta oztopo gisa jokatzen duten aldagaiak honakoak direla aipatzen dute:

HIZKUNTZA.

Hizkuntza, elementu kohesionatzailea ala banatzailea izan daiteke. Argi dagoena da **komunikaziorako funtsezkoa dela elkarren artean hitz egiteko modua bilatzea**. Edozein hizkuntza izan daiteke sarbide, baina bat bederen komunean aurkitu behar da. Beraz, harremanen eremuan gerturatzeko lehen oztopoa komunikazioaren aldetik dator.

"Zaila da komunikatzea, emakume askok erderaz oso juxtu dakielako. Eta hoixe da. Orduan da betikoa. Pazientzi handia eskatzen badizu eta zerbait esan nahi badiezu ba... azkenean esfortzu hori ebitatu egiten dezu. Azkenean juxtukoa egiten dezu. Oharren bat etorri bada bai baina... Eskolako kontuak bai baina..." ES_6

Euskararen beharra Zaldibian

- Zaldibia **herri euskalduna izanda, sakonak diren harremanetarako beharrezkoa den hizkuntza da euskara**. Espainiar etorkinekin salbuespena egiten den arren, oro har gaztelerarekin gertutasuna izan dezakezu, baina laguntasuna izateko aukera nabarmen gutxitzen da.
- Hizkuntzak, **euskarara gerturatzeko egiten den saiakerak eta ezagutzak baldintzatuko du era berean gainontzeko herritarren jarrera ere**. Euskarara gerturatzen saiatzen dena jarrera irekiago batekin hartzen da.

Zaldibia etortzen bazea ta ez bazu euskeraz ikasten, nik zaila ikustet integratzea pertsona. Badare extremeñok o zaragozanok integratuta, baino gaur egungo gaztek, etorri honea ta ez bado euskeraz ikasten... oso zaile da integratzea, ze guk konbersazio guztik euskeraz ematen diteu, ordun, nei etortzen bazait tipo

bat, hombre, nik beakin hitz eingo det erderaz, atzerritarrek ikasten dute erderaz, hitz eingo det erderaz baino nere zirkulon nik ez det hitz ein behar erderaz! De eso paso! Eta ez da lotsagabea ta ez ezer. Guk gure hizkuntza daukeu ta guk gure hizkuntzan iten deu.” ES_10

Ildo honetatik, **Zaldibiara iritsi aurretik gaztelera jakiteak zailtasunak** sortzen dituela aipatzen da. Jatorri hizkuntza gaztelera duten hego eta Erdialdeko Amerikatik datozen etorkinek, edo zaldibiara estatu espainiarreko herrialde batetik bigarren salto batean iritsi direnek **euskarara gerturatzeko** zailtasun gehiago dutela nabarmentzen da. **Esfortzu ezberdina** egingo dute dagoeneko euskal herrian aurkitu daitezkeen hizkuntzetako bat menperatzen delako.

Dena den, harremanean laguntzeko **hizkuntza** bakarrik ez dela nahikoa aipatzen da. **Faktore eta elementu klabea da, baina ez bakarra.** Bestela, etorkin berriak euskara menperatzerakoan harremanetarako bidea zabalik izango lukete. Eta ez da horrela. Beraz, beste aldagai batzuk ere eragiten dute.

ETXEAN JASO DEN HEZKUNTZAK ETA ESPERIENTZIA.

Etxean ikusi duzunak, **transmititu dizutenak eragiten** du. Honela, etorkinekiko jarrera zabal bat izatea erakutsi bada posizioa beste bat izango da. Jaso den hezkuntzak alegia eragiten du.

"Hoi azkenen, eske ez dakit, hoi da pertsona bakoitze nolakoa dan, zure inguruan ze jaso dezun, ze erakutsi zaizun. Joe nei beti gurasok ta aiton-amonek beti erakutsi diate ondo hartzen jendea. Amak ta beti razismoan kontrako jarrera erakutsi diate. Hoi inportantea da, nei iruitzen zait, baino...” ES_10

Era berean, **norbere esperientzian bizitakoak ere laguntzen du.** Norberaren azalean gauzak bizitzeak besteekiko jarrera enpatikoagoa bat izatea ahalbidetzen du.

- Etxean **gurasoak etorkinak izan direnen kasuan**, beste begirada batekin begiratzen dira etorkin berriak, **enpatia jarrera** batetik.

"markau eitten izu, baño en el sentido de, bueno, ba... eztakit, ba zuk jakinda zure aitte kanpokoa zala ba oain ikusten dezunen baitta herria kanpokoa datorrela ba nik esaten det ba len garai baten, ze azkenen honea etortzen zienak zien e españitik etortzen zan jendea ta oain ai zaigu pasatzen pixkat ya eremue zabaltzen ai dala. ta ordun esatet "ze esan behar det, nire aitte ere kanpokoa zan"... hoixe". ES_7

- **Berdin atzerrira joatea pentsatzen ari den pertsonaren kasuan**, ala inoiz etorkin bezala beste herrialde batean egon bada.

ETORKIN BERRIEN EGOERA EKONOMIKOA.

Espainiar jatorriko eta euskal jatorriko zaldibiarrek **etorkin berriekiko harremanetara begira oztopoa den aldagaia bezala beraien egoera ekonomikoa** irudikatzen dute. Bizitza aurrera ateratzean zentratua egoteak, **lanetik etxera eta etxetik lanera** ibiltzea suposatzen die, **harremanetarako aukera eta denbora gutxi** utziz.

"Nik ustet integratzean aurretik bilatzen dona dala bere bizimodua aurea ateatzea, ta umeena, ta integratzea bigarrenko puntu baten uzten do. Lehenengo ikusten do, ea, hasiko naiz integratzen, ni lasaitzen naizenen igual, ta umeen geroa aseguratzen detenen, ta oain aurena, lehenengo nere bizimodue bilau ta nere esfortzu guztie zentra behar det lan hobea bilatzen o ordu gehio sartzen o... ez dakit zer. Klaro, etortzen bada tipoa, ta... eh... diruz ondo daona ta tal y cual, integratzea bai da errezagoa, nik uste det." ES_10

ETORKIN BERRIEKIKO SENTITZEN DEN DISTANTZIA KULTURALA.

Distantzia handiagoa nabaritzen da kulturalki ezberdintasun handiago dagoen pertsonetikiko, eta harremanetan eragiten duela uste da. Erligioaren adibidea aipatzen da, horri lotutako joera, balore eta jarrerekin batera. **Antzekotasun gehiago** sentitzen diren heinean **gerturatzeko aukera edo bide gehiago** ikusiko direla aipatzen da, honela harremanetarako lehen pausua erraztuz.

SEME ALABAK ZALDIBIAN IZATEA.

Haurrek zabaltzen dute **harremanei begirako aukera**. Babes bat dira, **kalera ateratzera behartzen zaituzte**, plazan egon, beraien lagun taldeak ere beste herritarrekin osatzen dituzte. Eta azkenean gurasoak ere harremanak izatera bultzatzen dute, nahi ala ez.

" los crios. De nacer los crios, a empezar a salir y... y es cuando empiezas a hablar con uno y con otro y te integras. A mi los crios, los crios 100 por 100." ES_6

Harremanak sustatzen dituzten aldagaiak aipatzen direla, **kuriosoa den egoera bat** identifikatzen du herritar batek. Zaintza eremuak harremanak izateko aukera ematen duela ikusita, **logikaz pentsa genezake pertsona helduekiko zaintzaren ardura duten etorkin berriei adibidez harremanak izateko aukera gehitzen zaiela**. Paseoan ibiltzen dira, herritarrekin harremana dute, tabernan topo egin dezakete... **Baina kasu honetan aukerak murriztu egin daitezke** zabaldu baino. **Arrazoiak: zaintzaren ardura duen pertsonak etxe barruko gertaeren ezagutza handia duela**. Eta herrira begira **kontatu dezakeenaren beldurrez, ez zaio harremanak egitera bultzatzen**.

*"Ertamerikako emakume hauena ta... Eta hor gauza kurioa, eh, akordatzen zea nola mahai buelta bat egin genun, sentsazioa da igual eh, baina nik hartu nuna izan zan, eh, batzuk, ba, esan ziela ba nolabait: segi, segi lasai. Eta beste batzuk, izaten da ba, erreparoa, bakizu, Euskal Herriko etxetan zer izaten dan, hau ze kontatzea ote dijo?
G: ahhh, beldurra, agian?
E: Bai, eta nik uste det igual, nik perzepzio hori hartu nun. Eta gero bueltan ematen aritu nintzen, eta esaten nun, litekeena da, nolabait etxen eutsi nahi izate hori, ea bestela etxeko kontuak kontatu behar dituen honek. Eta nik sentsazio hori izan nun." ES_9*

2.2.2.2 ESKOLA ETA LANA INTERAKZIO ESPARRU. AISIALDIAN ETA EREMU INFORMALEAN INTERAKZIO EZA.

Aurreko atalean komentatu bezala eremu batzuetan ditugun harremanak zorizkoak dira, beste batzuk aukeratu egiten ditugu. Honela interakzio esparruak dira

- Lanaren eremua
- Eskolaren inguruan sortzen dena
- Aisialdia eta eremu informala

Etorkin berrien ikuspegiarekin bat egiten du gainontzeko herritarrek daukaten pertzepzioak. Hau da, **harremana eskola eta lanaren inguruan ematen da batez ere, aisialdian eta eremu informalean interakzioa nabarmen jaisten delarik.**

ESKOLA ETA LANA INTERAKZIO ESPARRU

- **Etorkin berrien pertzepzioarekin bat eginda, helduen artean lan eremua eta eskolaren eta umeen bueltan ematen da interakzio gehiena,** baina ez da beste esparruetara zabaltzen.

Lan eremuan, lan motaren arabera noski, **interakziorako aukera badago eta kontaktu zuzena.** Eremu honi loturiko espazioak konpartitzen dira, baina ezta hortik aurrerago joateko urratsik ematen. Lan eremuan kafe bat hartzea naturalizat jotzen den bezala ez da eremu informalera pasatzeko saltoa ematen.

A: LANETIK APARTE BADUZU HARREMANIK ADIBIDEZ LANKIDE HOIEKIN?

B: ez, zeatik... eztielako batzuk, ez eztiela hemen zaldibin ezti zaldibin esateiat hamen gurekin badaona ta beste rumanok e baño hoikin ba tabernako... zea. Tabernako ta behintzat han lantokitik bai, baño hemen ez. Kanean ikusten geanen o kafetxo bat hartu o..." ES_12

Eskolak eta umeek ematen dute jatorri ezberdinetako pertsonen artean harremanak izateko **aukera**. Eskolako atarietan, umeak jasotzera joateko orduan... Baina lan eremuan agertzen den bezala, ez da beste pausu bat ematen. **Kasu gutxi batzuetan** harreman hori urrutiagora joaten da, **urtebetetze festetan elkarrekin** egoteraino. Dena den, lehen pausu bat da, eta kontuan izatekoa.

"eztakit ba ba juten tzea... ba ni igual oain umen bila jutean bere ondon jartzen naiz hizketan hasten gea baño ezta sortzen zea bat "ba bueno, geldittuko gea gero... segimentu bat itteko..." o..." ES_7

- **Jatorri ezberdinetako pertsonen arteko interakzioen ondoriozko talka kasuak anekdotikoak dira, baina eskola eremuan honetan nabaritzen dira: Santo Tomaseko txistorraren kasua adibide.**

Ikastolak erlijioak galarazita txerria jan ezin duten umei gazta emateko erabakia hartzearen aurrean gatazka sortzen da gurasoen artean. Gatazkaren muinean diferentzia hori markatzea bidezkoa den ala ez dago, hau da, erlijioaren baldintza horrengatik haur horien ezaugarrietara egokitzea. Horren aurrean guraso batzuk kexu dira, eta ikastolatik horren inguruan eztabaidatzeko espazio bat zabaltzen da.

"eske lenau ematen zitzaien, bueno o hasieran o... nik eztakit ba noiz hasiko zien, hasi zienen ume hoik, kanpokok etortzen, ba ematen zitzaien txokolatekin.

G: BAKARRIK BERAIEI?

E: beraiei, eta bestei txistorra. Baño urte baten, eztakit zergatik, atera zan eztabaida hori, eta gurasok ezetz, eman behar zitzaiea txistorra, zeatik bere umei, batzuei etzitzaiea eztare gustatzen txistorra ta ordun etzitzaiea ematen txokolatea. Eta hor sortu zan... holako zea bat... Eta gu esanez ba bueno, bere ohitturak ziela horrela eta errespetatu in behar zielako. Bueno horrelako zea bat." ES_8

Aipatzekoa da etorkin berriak, hau da, haur horien gurasoak, eztabaida horretan ez dutela parte hartzen. Beraz, eztabaida eta gatazka horretatik kanpo geratzen dira hain juxtu beraiekin zuzenean lotua dagoen egoera horretan.

AISIA ETA EREMU INFORMALEAN INTERAKZIO FALTA

Aisialdian eta eremu informalean ez dago apenas interakziorik. Espainiar estatuko jatorria eta jatorri euskalduna duten zaldibiarrek arrazoi ezberdinei egozten dizkiete interakzio falta hori:

- **Ohitura eta joeretan ezberdintasunak.**

Ezberdintasunak ikusten dira estatu etorkin berriak eta estatu espainiarreko gainontzeko herrialdeetako eta euskal jatorriko herritarren artean. **Asteburueta joerak ezberdinak dira, sozializazio esparruak etab. ez dira gehiegi konpartitzen.**

"bueno, el ocio, según tus hobbies, yo por ejemplo, aquí en Zaldibia, o todo el mundo va al monte ooo, aquí sobre todo el monte, o van a pasear o van a... yo por ejemplo nooo, no es miii, yo no tengo esas esos hobbies. Pero mucha gente de aquí que es castellano parlante que si que le gusta ir a pasear y tal. Los que son emigrantes marroquíes y así, yo no les veo, pues por ejemplo que vayan al monte ooo, pues eso, la costumbre que hay aquí o las esta de aquí, no les veo hacer, se meten mucho en casa, entre ellos y... pues los fines de semana y tal. Al parque y eso si, el parque siempre es lo recurrente, pero luego ya fuera de ese tipo de hobbies, no les veo hacer lo mismo de aquí." ES_6

Aisi joeretan **ezberdintasunak ere ikusten dira emakume eta gizonezkoen artean**. Eremu pribatu eta publikoaren partekatzea modu ezberdinean ematen da zentzu horretan. **Gizonezkoak tabernetan zertxobait** ibiltzen diren arren, **emakumezkoak batez ere zaintzarekin lotutako eremuetan** elkartzen direnaren pertzepzioa dago, **parkeetan eta umeak elkartzen diren espazioetan**.

- Dirua, **Euskal Herriko aisia garestia** dela aipatzen da.

Egiten den asko kontsumoarekin lotua dagoenaren pertzepzio subjektiboa dute zaldibiar askok. Ikuspegi honetatik, etorkin berri askok duten egoera dela eta ohitura horietara gerturatzeko zailtasuna dagoela uste da. Ikusi beharko litzateke beraz, pertzepzio hau konpartitzen den ala ez.

"Economie re badao tarten. Guk iten diteun gauza batzuk, o galestie baldin bada, emigrantek normalen ez die etortzen sobrau de pasta, diruz, ordun mugatuta dare, baino..." ES_10

- **Koadrilatan helduak izanda txertatzeko aukera gutxi.**

Txikitatik etorritako pertsonen kasuan eta talde naturaletan txertatu badira ez da arazorik ikusten. Ez ordea dagoeneko koadrilak osatuak dauden momentutik aurrera. **Koadrilak** badu ezaugarri hori, **"pertenentziaren" aldagaia, eta zaila da aldaketak egitea**.

Koadriletan txertatzeko aukera hori zabalagoa da herriko pertsona batekin bikotea osatzen bada, ala etorkin berria bakarrik badator.

"O sea por ejemplo, hay un chico que es de Beasain, que se caso con una chica alemana, pues bueno con la pequeña cuadrilla de Beasain si, pero porque el la cuadrilla del marido, pero pues dos de fuera venir y juntarse con una cuadrilla o lo que sea no. Yo no he visto." ES_6

- **Jarrera eta disposizio falta.**

Jarrera falta horretan **elementu ezberdinak** identifikatzen dira. **Batzuk etorkin berriei egozten zaizkie, besteak gainontzeko herritarrei.**

- o **Euskal jatorria eta Espainiako beste herrialdeetako jatorria duten herritarren aldetik, gerturatzeko iniziatibarik ez.**

Etorkin berriengana **gerturatzeak batzuetan esfortzu bat eskatzen** duenaren pertzepzioa dago. Lehenik eta behin hizkuntza muga bat gainditu beharra dago. Horretaz gain, gerturatzeko aitzakia bat izan behar dela aipatzen da. Batzuen kasuan harreman horri etekinik aterako ez diotela sentitzen da. Beraz, **edozein arrazoi dela eta, askotan errazagoa egiten da gerturatze ezaren jarreran mantentzea.**

- o Etorkin berrien aldetik **ere beraien gertukoekin edo jatorri berdinekoekin biltzeko joera** antzematen da.

Etorkin berriek, batez ere **kopuru aldetik gehiago direnen kasuan** (marokoarrak eta errumaniarrak Zaldibian) jatorri berdinekoekin taldeak sortzeak harremanetarako oztopoa ere sortzen duela aipatzen da. **Errazagoa da bakarrik dagoen pertsona batengana gerturatzea, talde batean dagoenarengana baino.**

"E1: ... Elkartzen badira talde bat bezala zure gelan, bi atzerritar baino gehiago elkartzen badira, o sea, horiekin jada ezberdin bezala. Bakarra baldin bada, beti ere..."

E2: Ya, baina bi bakarrik... Errazago bat bakarrik baldin bada." ES_11

- **Zaldibiarrek eman dezaketen irudia: persona itxiak.**

Zaldibiarrek pertsona "itxiak" direnaren irudia eman dezaketela aipatzen dute herritar batzuk, horrek besteak gerturatzerantz animatzeko zailtasunak sortuz. Zaldibia herri txikia da, guztiek ala ia **guztiek elkar ezagutzen** dute. Kanpora begira zaldibiar jatorriko herritarrek 'itxiak' direnaren sentsazioa izan daiteke. **Testuinguru horretan harremanak izatera gerturatzea ez da erreza**, are gutxiago etorkin berriaren kasuan.

"Hemen, gero, badau beste fenomeno bat, kanpotik ematen... oso herri itxie garela. Bai? Ez dakit. Ehhhh, eske zeate! Izan daike aurreneko inpresioa. Baina, bai, zaldibitarrek badeu fama itxinak. Nei komentatu izan didate, eske Joxepanean sartu eta denak bruuuuuaaa jiratzen zeate, eta da como iskinera jun eta eman zaidazu kortadu bat.. Izan daiteke baita." ES_9

- **Zaldibian egon daitekeen aisi eskaintza apala eta kolore bakarra.**

Herri txikia izanik **sozializazioan laguntzen duten eremu informalak ez dira asko**. Elkarte askorik ez dago. Tabernetan asteburuetan egon daitekeen eskaintza mugatua da, eta horretaz gain kolore bakar batekoa. **Aisian garatzen diren ekintzak euskaraz izan ohi dira, eta kultura eredu bakarrekoak**. Ez da testuinguru lagungarria interes ezberdinak dituzten pertsonen arteko harremanetara begira. Honela, **eskaintza zabalago bat eta**

anitzagoa nahi duen pertsonak inguruetako herrietara jotzen duela aipatzen da.

"Egie da herri handiago baten, pues, seguraski eskaintza gehiago ditezula, gauean ateratzeko taberna gehiago, edo afinidade gehiago? Ez dakit..." ES_9

2.2.2.3 UMEEN ARTEAN HARREMANAK NATURALKI

Harremanen esparrua eta bizipena oso ezberdina da helduen ala umeen kasuan. Etorkin **berriek nabarmentzen zuten bezala**, espainiar estatuko eta euskal jatorria duten zaldibiarrek jatorri ezberdineko **haurren arteko harremanak oso naturalak** direla aipatzen dute. Ildo beretik, **klabea etortzeko momentua** dela ere aipatzen dute. Hautzaroan datozen pertsonak aukera gehiago dute lagun taldeetan txertatzeko adinean gora doazenak baino.

"E1: Ez, eta gainera koadrilak ere itxiak bezala gara. Kanpotarrekin ez gara zera, harremantzen edo.

E2: Bai, zaila izan behar du zeren... Non zen? Seguran, edo ez dakit non badago baita kubatar bat, gurasoak kubatarrek edo zituen eta tipo hori euskaldun euskalduna da.

E1: Baina hori behintzat da txiki-txikitatik hemen jaiotakoa delako. Behin etortzen baldin bada kanpotik guk koadrilak formatuta izan eta gero...

G: BADAGO BERAZ ADIN BAT INTEGRAZIOA ERRAZTEN DUENA? HARTU EMANETARAKO AUKERA EMATEN DUENA?

E1: Bai, gazte-gaztetatik hemen egon baldin bazara hori koadrilakoa bezala hartzen duzu." ES_11

2.2.2.4 PERTSONEN ARTEKO HARREMANEN KRISIAREN ERAGINA

NORBANAKOAN ZENTRATUTAKO GIZARTE BATEN ISLADA

Etorkin berriekiko harreman eza eta interakzio maila apala pertsonen arteko harremanen krisiaren egoera bati egozten diote **batzuk**. Sozializazio esparruak aldatu dira, ohiturak aldatzen ari dira, erlazionatzeko moduak ere. Ez bakarrik Zaldibian, orokorrean Euskal Herrian eta beste hainbat herrialdeetan ere. Harremanen kalitatea ere aldatu da. **Gizarte askoz ere indibidualistago batean bizi gara, "bakoitza berera" doan gizartean**. Norberaren beharretan eta egunerokoan zentratua egonik esfortzu gutxi egiten da bestearekiko gerturatzea areagotzeko. Honek noski bere eragina du jatorri ezberdinekiko gerturatze prozesuan ere.

HARREMANAK MANTENTZEKO ESTILO ALDAKETEN ERAGINA

Zailtasuna ere **harremanak mantentzeko estilo aldaketetan** dago. Teknologia berriak eta duten eragina hor dago, eta harremanak izateko

moduak ere aldatu dira. **Erraz harremantzen gara munduaren beste puntan dagoenarekin, eta ez gara gai albokoarekin luzez hitz egiteko.**

2.2.2.5 AISIALDIA ETA EREMU INFORMALEAN HARREMANETARAKO JARRERA

Atal honen hasieran esan bezala, **aisialdian eta eremu informalean harremana eta interakzioa oso eskasa** da. Aurreko atalean Espainiar estatuko nahiz euskal jatorriko herritarren ustez interakzio falta horretan eragiten duten aldagai ezberdinak identifikatu dira. Ondorengo lerroetan errealitate horretatik abiatuta **3 jarrera nagusi** ezberdin antzeman ditugu **etorkin berriekiko harremanak irudikatzeko moduan.**

- **Pertsonaren aberastasuna balioan jarrita gerturatzeko nahia adierazten dutenak**
- **Jarrera indiferentea baina irekia dutenak**
- **Jarrera indiferentea baina itxiak daudenak**

Jarrera hauetan ere, besteak beste, hiru elementuk eragiten dute:

- **Pertsonaren adinak**
- **Etorkinekiko dagoen ikuspegiak**
- **Herriaren garapena ulertzeko moduak**

Aldagai hauek ez dira ulertu behar modu isolatuan. Hiru **aldagai hauek elkar eragiten dute, hauen konbinazioan pertsonaren arabera aldagai batzuek indar gehiago hartuko dute besteek baino eta emaitza ezberdina izango da.** Honela, adibide bat jartzearen, adinean gorantza joanaz, etorkinekiko ikuspegi zabala izan ala ez, errazagoa da jarrera indiferente irekian mantentzea. Baina nahiz eta oso gaztea izan, gerta daiteke herri atxikimendu maila oso fuertea izatea aldaketarako erresistentzia izateraino, eta horri etorkinekiko ikuspegiak baldintzatuta jarrera indiferente itxia izatea.

Ondoren azaltzen diren jarrerak beraz joera gisa ulertu behar dira:

1. PERTSONAREN ABERASTASUNA BALIOAN JARRITA GERTURATZEKO NAHIA

Diskurtso honetan kokatzen diren pertsonen **aniztasuna modu aberasgarrian ikusten dute.** Jarrera enpatiko bat azaltzen dute etorkinaren aurrean. Nolabait etorkinarekiko ikuspegia zabala eta pertsonen zentratua denarena da.

Posizio honetatik harreman eza edo eskasiak kezkatuta, harremanen balioari heldu eta sustatu behar direla uste da. Pertsonak berarekin dakarrenari ematen zaio garrantzia, pertsona orok duen balio erantsiari. Harremanik egon ez bada aldagai ezberdinengatik izan dela ikusten da. Dauden aukera gutxi horietan gerturatzeko saiakera bat egiten da, nahiz eta askoez ere gehiago egin daitekeen aipatzen den.

"Eske eztakit, azkenen da dena ez? Esan nahi detena eske eztakit, pertsonak... denok dakeu ze aportatu. Esan nahi det era batekoa o bestekoa zealako o kultura batekoa ala bestekoa zealako, bizitzeko eragatio... eske gauza pila bat izan leizkie".

ES_7

Diskurtso honetan kokatzen diren pertsonak badute eremu informalean kontakturen bat etorkin berriekin, inoiz etorkin izan dira ala atzerrian denboraren bat eman dute. Beraz **lehen ezagutza** batetik abiatzen dira. zaldibiar etorkin berriekin harreman handirik ez duten arren **beraien kulturei gerturatzeko gogoa eta nahia, edota disposizioa** azaltzen dute.

Ez, ez dauket hola hartu eman... Ez. Ez dauket arazoik baina ez dauket harremanik. Ez dauket arazoik egoteko. Parken baldin banago eta ez dakit zer, lau kontu iteko edo bost kontu egiteko, baina harremanik ez dauket. Hola... ez, oain igual lagun talde bultan-eta, haber. Gogo haundia dauket.

G: Osea gogoa badezu.

E: kristona dauket gogoa ja honekin... Juteko arrazoi bat... ES_9

Harremanak ez izatearen ardura ez dute soilik besteengan jartzen. Guztien artean harremanak izateko esfortzua egin behar dela nabarmentzen da eta bideak bilatu nahi dira harreman horiek sortu ahal izateko.

"Ya, baina zu parkean baldin bazaude umeekin askotan edozeinengana joaten zara, harramena egiten duzu umeekin zarella, baina ez da jendea joaten normalmente horrengana. Gehiago ikusten dituzu agian umeak izandakoan familiak... Bueno, emakumezko bat beste batekin agian lagunak egiten dira, baina ez dituzu ikusten horiekin, eta hori baita, ez dakit... Gu gara nik uste dut mugak jartzen ditugunak askotan." ES_11

Elkar ezagutzak eta harremanak izateak zabaltzen dituen aukerez jabetzen dira. Ezezagutzatik aurreiritzien gainean egiten eraikitzen ditugula argudiatuta.

"Ez dakizunen, eta beraiekin hartu emanik ez daukazunen, buenooooo, gizonezkoak erabat... eta gero da nolabait beraien etxen zer bizi izan duen, zeatik hemen gizonezkoen arauak, ez gea... ez da urrutikoa. Ez? Baina iruditzen zaigu magrebiarrak dien etxe guztietan izan behar dula baita, eta... aurriritzi hoiek bai puskatzen diela beaiek ezagututa. Ez det esaten ematen ez danik, eh, etxe batzuetan edo euren arauak dituztenik edo ez dauzkeanik. Baina dala pixka bat pertsona ezagutzen dezun garaien, izen bat jartzen diozun garaien, eta berarekin hartu emana egiten dezun garaien, ba nola bizi duen." ES_9

2. INDIFERENTZIA IREKIA

Jatorri ezberdineko pertsonen arteko harreman nahiko estatiko bat mantentzen da, blokeetan bizi diren pertsona talde bezala. **Espazioa konpartitzen da**, kontaktua badago, baina ez dago harremanik. **Eta ez da bereziki kezka sortzen duen gaia** ere. Harreman horiek izateak zer

eskaintzen duen ala eskaintzen ez duen ez da ikusten. **Nagusiki, etorkinekiko begirada indiferentea duten pertsonak** kokatzen dira hemen.

Halaber **kasu honetan ere harremanik ez izatearen ardura ez da bestearengan soilik jartzen, baina norberaren posizioa justifikatzen da.**

"Eske esateizut, eztao hor... eztet ikusten... Ikustet garena grupotan bezela. Eta bueno, ba ikastola juteko pues igual ateratzen die... baño gero igual ya eztie ikusten edo beste ordutegi baten ikusten die... Ba eak, ean rolloa esango genuke. Baño bueno, nik uste ya geoz ta gehiao... rollo horta goazela denok."
ES_7

Harremana modu naturalean ematen bada ez da ukatzen, baina ez da bilatu edo probokatzen. Interakziorik ez dago, horretarako aukerarik ez dagoelako, eta dagoen aukera urrietan ere esfortzu berezirik giten ez delako.

3. INDIFERENTZIA ITXIA

Ezberdintasunetik abiatuta eta horretan oinarrituta, **ez da ikusten asko eskaini dezakeenik eta ez da sentitzen gerturatzeko beharra.**

"Ez que nik ez dakit zertaz hitz egitera joan behar dudan horrengana. Agian esaten badidazu: "Joan zaitez horrengana honetaz hitz egitera". Ba joango naiz. Baina ez daukat zera hori, berarekin hitz egiteko behar hori." ES_11

Distantzia handi batekin ikusten dira etorkin berriak. **Elkarren artean komunean ezer ez dutela eta behin behineko egoeran daudenaren iritzian babestuta, harremanak izateari ez zaio interes askorik ikusten.** Ezberdintasunetan jartzen da fokua, eta horretan babesten da.

"Eee, yo no soy racista, entiendo que sean como, o sea con cualquier padre, cualquier padre de aquí e, pero entiendo que son diferentes. O sea son diferentes pues por todo, por el idioma, por la cultura... pues no comparten igual, pues el tipo de educación a los críos, las tradiciones, las costumbre... yo le hablo a una marroquí, igual que si le hablaría a cualquier otra e, hablar, pero por ejemplo no me iría a tomar café con una de ellas. Pero no por nada, si no por que ellos tampoco quieren, no son de ese tipo de cosas que hacemos aquí. Para mi en principio eee, eso por ejemplo las marroquíes, otras son mas abiertas, si son mas abiertos pues igual." ES_6

Etorkin berriak oro har "goitik" begiratzen dira, mailaketa **eskala batean azpiko posizioan**. Beraiekiko begirada horrek **harremanak izatekotan harreman benefikoa** izatera mugatzen du **eta ikuspegi asimilazionista batetik** begiratzen zaio. Hau da, etorkin berria bertako ezaugarri kulturaletan asimilatzen utzi behar da, beraien jatorriko hainbat aldagai alde batera utzita.

"Bai hori da. Eta beraien kulturarekin jarraitzen dute gainera. O sea, batzuk, marokoarrak adibidez, beraien kulturen baldin badago zapia eramatea ez dakit

*zenbat urtetatik aurrera, eurek zapia eramango dute. Ez dira hona etorri eta...
bueno hemengo kultura... ezer ez."ES_11*

Harremanak izan ala ez, **etorkin berriek ikasteko gehiago dutela uste da,beraiei interesatzen zaiela gehiago** baieztatzen da. Eta hortaz, harremanaren ardura beraian jartzen da.

Posizio honetan dauden pertsonen artean **mehatxu bat sentitzen da etorkinekiko harremanen aurrean**. Mehatxua bi mailatan izan daiteke:

- **Maila indibidualean:** harremanak izateari arrisku bat ere ikusten zaio, **gustuko ez diren gauzak ikustea eta jakitea**. Beraz, ez nahastea hobe dela kontsideratzen da.

"¿igual si conoceríamos más? Sería igual mejor, o pero igual, conoceríamos más cosas peores para nosotros que no quisiéramos, no lo sé, es que..." ES_6

- **Maila kolektiboan:** herri nortasunean izan dezakeen eragina. Herri atxikimendu fuertea izanik, hori mantentzeko modua gehiegi ez nahastea dela iritzi da. Bera **etorkin berriekin harremanak izateak aldaketak ekar ditzakeela ikusita mehatxu gisa bizi da**.

2.3 ESKUBIDE SOZIALAK

Etorkin berrien hautemateak jaso dugun atalean azaldu bezala, eskubide sozialez, administrazio publiko ezberdinek eskaintzen dituzten hainbat zerbitzu publikoz (hezkuntza, osasuna ...), eta babes sozialeko neurriez goatzeko eskubideaz ari gara. Atal honetan jaso dira honako hautemateak:

- ✓ Herriarren eskubide sozialei buruz oro har
- ✓ Eta bereziki etorkin berrien eskubideei buruz.

Honako diskurtsoak jaso dira gai honi dagokionez:

ESKUBIDE BERDINTASUNA BEHIN SISTEMAN SARTUTA

Lehen posizio honetatik herriarrek eskubide sozialak izateko aukera berdintasuna baldintza batzuk betetzearen eskutik dator. Beraz, **etorkin berriak berdintasun batetik begiratzeko dituzte**, beste edozein herriar bezala. **Eta eskubide berdintasun batean kokatzen dira behin gizarte sisteman sartu direlarik.** Hau da:

- ✓ **Administrazioek jarritako baldintzak betetzean** kokatzen da pertsona **berdintasun batean** eskubideei dagokionez.
- ✓ **Baldintza horien artean** daude besteak beste **lana egitea eta zergak ordaintzea**. Aipatzekoa da, krisiaren ildotik, eta jatorri ezberdinetako pertsonen berdintasuna zalantzan jarri gabe, administrazioak herriar guztien laguntza eskaerei erantzuteko duen gaitasunak sortzen duela zalantza.

*"Protekzio ofizialekoa baldin bada beharra daukenai, marrokie izan o extremeñoa izan o igual dit. Beti re bere papelak... papelak ez daukienak, papelik gabe ezin dezu ezer egin... Gauzak legal daukezun bitarten. Inpuestok pagau baditu. Netzako eskubide guztie daukea. Beak kotizatzen bado kotizau beharrekoa... igual hemen asko sartua baitare kotizau gabe ezer ez. Esan nahi det, hasita ta lanen... hasi ta 2 urtea igual sartu da etxe hoitan. Bertan jaiotakoa dala? Ba iasta! Eta ze? Hemen jaiotzek ez dizu ematen hainbeste... ez dakit ze eskubide."*ES_10

- ✓ **Jatorri ezberdineko pertsonak modu berdinean kokatzen dira esparru guztien aurrean.** Beste ezaugarrien arabera baloratu behar dira, ez jatorriaren arabera. Honela, **jatorriari erreferentzia eginaz diskriminazio positiboak egiten direla dioten aurrean haserrea** adierazten da.

"Nik uste dut, eta hor ez daukat inolako zalantzarik, pertsonak pertsonak garen aldetik behar ditugula eskubide berdinak. Eta bat hona etortzen bada eta seguridade sozialean zera... seguridade soziala ordaintzen ari bada, eta gero esatea: "Horri medikuetarako txanda guri baino lehenago ematen diote"... ba iruditzen zait fantasia, ez dut, ez dut onartzen! Eta paroan gelditzen baldin bada eta paroa behar baldin badu, ba gu bezalaxe, berdin! O sea que, behin hona etorri gero eta behin onartuz gero..." ES_5

- ✓ **Kezka dago krisiaren aurrean ez ote den diskurtso xenofoboak indartuko.** Krisiaren aurrean errudunak bilatu behar izaten direla aipatzen da, eta horrek etorkin berriengan bereziki eragingo ez ote duen kezka sortzen du. Ez da jarrera hori nabarmenki ikusten, baina bai kezkatzen duen zerbait.

"Eta oain krisiarekin ere bai. Nik uste det berriz atzera bueltatzen ai dala.

G: Atzera bueltatzea esaten dezu...

E: Bai, ba, Diru laguntzan historiakin batez ere. Gauzak zailtzen dien garaian errudunak bilatu behar izaten die, ez? Beldurra ematen dit, joera handituko ote den, baina ez dakit herria beida, nik ere komentariok, ba bai, diru laguntzen bueltako hoi. Nik bi oso gogoan dauzket. Udaletxetik ikusiz gero familian bat jaisten: hara, hoiak oain ere jun die diru eske!" ES_9

ADMINISTRAZIOAREN SISTEMA JARTZEN DA ZALANTZAN

- ✓ Ikuspegi honetatik, **eskubide berdintasuna onartzen da**, baina **administrazioak duen sistema bera jartzen da zalantzan**, batez ere laguntza sozialei dagokionez. Etxebizitza eta lan mundura begira ez da sistema salatzen.

"hoi ya lege aldetik, pues eztaikit. Batzu batzuetan nei ere pertsonalki etzaizkit gauza batzuk justuk iruitzen baño hoi ya, ba legea eztao ondo inda ta punto." ES_8

- ✓ Laguntza sozialetan **etorkinekiko diskriminazio positiboa egiten denaren ustea dago**, eta **herriar guztiek berdintasun batean egon beharko luketela aldarrikatzen** da. Edozein kasutan **ezezagutza batetik eraikitako diskurtsoa** da, aurreiritzietatik abiatutakoa.

JAIOTERRIAREN ARABERA LEHENTASUNAK

Posizio honetatik pertsona guztiek ez dituzte zertan eskubide berdinak izan behar. Etorkin berriarekiko duten ikuspegia mailaketa batean oinarrituta dago. Hau da, goitik begiratzen dituzte, **eta ez dute pertsona osotasunean ikusten, baizik jatorria. Eta horren arabera atxikitzen zaizkion ezaugarriak.**

- ✓ Legez ala bada ere, jatorri ezberdinetako pertsonak ez lukete eskubide berdinak izan behar. **Estatu espainiarreko sistemaren barruan kotizazio denborak ematen du eskubide lehentasuna.**

Administrazioek jarritako baldintzak betetzen badira ere, eskubide sozialetarako sarbidean (batez ere babeseko diru laguntzez ari garenean), **estatu espainiarrean jaiotakoen lehentasuna izan beharko lukete**, beste gauzen artean, denbora gehiagoz kotizatzen egon dela kontsideratzen baita.

- ✓ **Norbera eta familiak kotizatu duenak ere kontatzen du.** Norbera eta bere familiaren ibilbidea ere aintzakotzat hartzen da. Zuk eta zure familiak urteetan ordaindutako zergak eta egindako ekarpenari ere erreparatzen zaio, horrela eskubide gehiago dituzula kontsideratzen delarik.

"hombre, eeee, tienen derecho a que se les de... a que se les de ayudas, bajo mi punto de vista, pero creo que se les debería dar antes a la gente de aquí. Eso sí yo creo. Imagínate que han llegau hace dos años, trabajan unos meses y se quedan sin trabajo, y pues la, la asistente social les ayuda, pero hay mucha gente que se ha quedau sin trabajo, que llevaba muchos años cotizando y que por lista de espera están detrás o lo que sea, yo considero que la gente que es de aquí, aunque no sean ellos, sus padres o sus familiares han estau pagando este, este estado de bien estar antes y creo que se les debería dar antes. Hay casos extremos eh! Yo conozco gente emigrante que... casos extremos de que si que deberían ser los primeros, pero normalmente las familias así... pues igual con un miembro trabajando o los críos ya integraus y un poquito normal, con la vida mas o menos normal, creo que deberían eee esperar a que, se les diese antes a la gente de aquí que necesita".ES_6

- ✓ Posizio honetatik, **administrazioak ematen diren laguntzekiko egiten duen jarraipen eskasa salatzen da**, nolabait administrazioak laguntza horietatik bizitzea 'baimenduko' balu bezala.

"Hay otros que ves que, no sé como explicarte, eeee, que no se lo merecen o que ves que, por ejemplo están recibiendo ayudas sociales, pues porque no pueden pagar el piso... y luego les ves con un móvil, última generación, mucho mejor que el tuyo. Ese tipo de cosas no, no, no las soporto. No me gusta nada. Entonces esa gente sí que me... Igual no es culpa de ellos, igual es culpa de la asistente social porque no ve en que gastan." ES_6

2.3.1 ESKUBIDE SOZIALEN INGURUKO ATALAN JASOTAKOAREN LABURPEN GISA

Eskubide sozialen aferaren inguruko hautemateari dagokionez, diskurtso ezberdinen artean **jasotako ideien ondorio gisa** honakoa esan genezake:

HARTU-EMAN LOGIKA BAT DAGO BETI ESKUBIDEEN AFERAREN ATZEAN.

Etorkin berrien hautemateekin pasatzen zen bezala, **eskubideak eta betebeharrak multzo bateratu batean** sartzen dira. Eskubideak eskubide dira, baina betebeharrak batzuk eskatzen dituzte, administratiboki, ala moralki. Modu ximple batean esanda, **inori ez zaio zerbait ematen "besterik gabe"**.

POSIZIO ARGI BAT IZATEKO ZAILTASUNA

Eskubide sozialen gaia **kezka sortzen duen gaia** da. Gai delikatua dela aipatzen da. Norberaren iritziak, aurreiritziak eta 'zuzena' dena nahasten dira. **Honen aurrean posizio argi bat izatea ere kosta egiten zaie herritarrei.**

DISKURTSO BAZTERTZAILEAK LANA ETA ESKUBIDE SOZIALEN EREMUAN

Etorkin berriekiko sortzen diren **diskurtso baztertzaileen zantzuak ildo honetan daudenaren pertzepzioa** dago. Aurreiritziak eta diskurtso baztertzaileek harreman estua dute etorkin berria ikusteko dugun moduarekin. Beraz, ikuspegi utilitarista batetik begiratzen baditugu, sortzen diren diskurtso baztertzaileak lanaren eremuan eta laguntza sozialekin lotuak izango dira.

- **Jarrera baztertzaile esplizituak beti 3. pertsonan**

Zaldibian orokorrean jarrera baztertzaile espliziturik ez dagoela aipatzen den arren, guztiek ala ia guztiek diote kasuren bat entzun dutela, beti hirugarren pertsona batean hitz egiten delarik. "nik entzun dut, esaten dute" erabiltzen da diskurtsoetan. Honek **ateak zabalik uzten ditu proiektzio maila bat ere egon daitekeela pentsatzeko**. Hau da, besteen ahotan jartzea norberaren ideiak.

"asko entzun det gañea, asko asko asko, ba rumanok edo marrokiarrak edo holako, atzerritar jende honi, "eske dana ematentzaie! jangela debalde, ordue etortzen die nahi duen bezela, eztakit zer...", batzuetan juten diela beren herria ta iñok eztiela ezer esaten, eta "dana emanda" eta ordun beti jasotzen ai diela, ta ez duela ezer itten da... Holako komentariok bai." ES_8

Proiektzio honen atzetik ideiak diren bezala ez azaltzeko beldurra ere egon daiteke. Gizarte honetan zuzenak diren diskurtso batzuk badaude, eta hortik ateratzen denaren diskurtsoaz egin daitekeen epaiketak kezkatuta hirugarren pertsonan esatean neutralizatu egiten da ideia.

- **Bizipenaren aurrean diskurtsoa mantentzea zaila**

Hirugarren pertsonaren diskurtso horretan arakutzen hasita, gutxi batzuk onartzen dute **diskurtsoan gauza bat esan, baina kasu batek gertutik 'ukitzen' zaituenean koherentzia mantentzea zaila** izaten dela. Bizipenetik beraz diskurtsoa mantentzean zailtasunak sortzen dira.

Adibide bat jarrita, seme alaba langabezi egoeran ez dagoen bitartean etorkin berriak ez dira mehatxutzat ikusten. Baina lanpostu baterako etorkin bat kontratatzen bada seme alaba kanpoan utziz, amorrua sentitzen da bertakoak eskubide gehiago dituela kontsideratuz. Etorkin kategoria kasu horretan baztertzailea da eta kontraesanetan erotzen dira beraien buruekin.

"Irutzentzat, zeatik batzuetan igual kuadrillan hola, ta hasten die diskutitzen, da nere burui esaten diot, ze, zetan ai gea... ez arre ta ez so, kontradizio hutsen eroitzen gea, eta aitzen gea "bubububu...". ba adibidez gertatzen baldin bada eztakit zer, ba bai, igual ateatzen da ez, "jo eske beidaiozu...!", ta egie da igual, gehio kontra ateatzen geala.

G: KONTRA ESAN NAHI DEZU?

E: kontra esan nahi det, ba eztakit, kontra eee, ba igual bere eskubiden kontra. Ezteu, ezkea kontuatzen pertsona dala baitare, baizik eta bakarrik ikusten deu atzerritarra dala eta ya esta, ya horrek dauke etiketa bat ez, ordun bara hori, gure baran, ta gero igual izango deu, osea harreman oso ona baño, momentu puntual batzuetan, nik uste det, kontra jartzen geala." ES_8

- **Eskubide sozialen gaiari lotuta, etorkin berrien diskurtsoan antzematen zen bezala, estatuari paper garrantzitsua egozten zaio eskubideen egikaritzan.** Eskubideen aukera berdintasuna zalantzan jarri ala ez, behin ematen direnean administrazioak duen kontrol sistema eta egikaritzan ikusten da arazoa. Hortik, **kontrola beharraren diskurtsoak** sortzen dira.

3

**JATORRI ETA KULTUR ERREFERENTE EZBERDINETAKO
ZALDIBIARRREN ARTEKO ELKAR EAGUTZA, AITORTZA
ETA BIZITZARAKO AUKERAK ETA OZTOPOAK**


3.1 DISKURTSOTAN ANTZEMAN DAITEZKEEN HARREMAN EREDUAK.

Sarreran aipatu bezala, azterketa hau hiru kapitulu edo bloke nagusitan antolatu da: lehen kapituluak etorkin berrien hautemateak aztertu dira; bigarren kapituluak Espainiar estatuko jatorria nahiz euskal jatorria duten pertsonenak. Horren ostean, eta hirugarren kapitulu honetan, harremanetan jarriko dira elkarriketatu guztien hautemateak gai zabal baten harira: **jatorri eta erreferentzi kultural ezberdinetako zaldibiarren elkar ezagutza, aitortza eta bizitzarako aukerak eta oztopoak.**

Orain arte batzuk eta besteen pertzepzioak kontuan hartuta, eta diskurtsoen berregiteari zentzua emanez, 3 eredu ezberdin topatu dira nabarmenki, kulturen arteko harremanak irudikatzeari dagokionez:


1. Aniztasunaren balioaren oinarrian kulturartekotasunaren ereduak.
2. Kultur aniztasunaren ereduak.
3. Ikuspegi asimilazioaren ereduak.

Hiru eredu horiek ez dira beti modu itxian agertzen, hots, pertsona batek izan dezake batez ere lehenengoak kokapena baina bigarrenetik pixka bat edota alderantziz. Horrez gain, fluxuak gerta daitezke eredu batetik bestera elementu zehatz batzuk eraginda.



ANIZTASUNAREN BALIOAREN OINARRIAN KULTUR ARTEKOTASUNA:

Kultura guztiekiko errespetua abiapuntu izanik, **berdintasun batetik** eta inork besteak baino botere gehiago izan gabe kultura ezberdinen arteko **hartu emanean jartzen du** oinarria.



"casi cinco familias yo creo que estamos aquí. Yo creo... A ver, o sei. No estoy segura, yo creo que sei. Mais al final, nosotros también pidimos que algún trocito pequeñito para dejar a nosotros alguna de pan, también del nuestro, del dulce nuestro. Eso seguro le gusta a la gente aquí. Alguna cosita de nuestra que (tts) le enseñamos como se hace, y también nosotros nos disfruta de esta fiesta de octubre también. porque es e... yo creo que es un semana toda, toda entera semana o diez día yo creo. Se disfruta la gente... de fuera Zaldibia viene, de DOnosti... de ondo, viene toda la gente aquí. Mais el sitio nuestro no hay. Como ellos tiene luego para hacer el pan... eso como se llama...?"

A: EL TALO?

B: el talo... Es así, que me encanta a mí también. Y también nosotros queremos, de dar un poquito a ellos si ellos hacen algo sí, si compartimos la cosa... la cultura (tts) Ahora somos un parte pequeña de Zaldibia, no somos tanto tanto... um... um numeroso como dice, mais somos un parte de ellos. Si no dan un hueco también integramos con ellos mas." ES_2

Aniztasuna, gaur egungo errealitate bat dela aitortu eta aberastasun bezala ikusten da. Harreman interkulturaletan **aniztasunarekiko errespetuan eta elkar osagarritu eta aberasteen oinarritutako harremanak eraikitzen dira.**

"Orduan hori herri txikira ekarrita egin behar dena da ba hori ulertu. Besteengatik interesa: Oye, eta zu nondik etorri zara? eta zer egiten duzu? eta zer bizimodu egiten duzue han? eta... Ez kuriositate morbosoa moduan, baizik eta zu aberasteko, eta bestea ere ahal baduzu zure aportazioarekin aberasteko. Hartu emateko, eta hori bai dela interesgarria." ES_5

Honek **ez du ekiditen gatazkak** egongo direnik. Baina **hauek errespetuz, elkarrizketa** bitartez ematen zaie irtenbidea. **Komunikaziorako espazio horizontalak** sortu beharko dira, **sinergiak bilatu** beharko dira.

Ikuspegi honetatik, etorkinek beraien kultura mantentzeko eskubide osoa dute, gurea errespetatzea bidezkoa den bezala. **Ezberdintasunekin berdintasun batean bizitzeko aukera eman behar da.** Ez da beldurrik sentitzen bestearen aurrean, bestea ezagutuz eta konpartituz geurea ere hobe zainduko dela uste baita. Zaldibian euskarak kultur artekotasunean duen kokagune zentrala ipiniz honakoa da jarrera:

"Landu egin behar dala hizkuntza, onartu bai beste hizkuntzak hor daudela, eta gainera aberasgarri dala bakoitzak bere hizkuntzen hitz egitea, hitz bat, bestea, hoi aberasgarria dala hartu emanerako, eta eskola mailan iruitzen zait gainera erabat lan politak egin daitezkeela. Eh, nolabait gainera jakinda Zaldibiko etxetan bestelako hizkuntzak hitz egiten diela, ba eman protagonismoa horri. Erakuts ditzatela hitzak, bestea... Zuk onartu, eta nik uste det besteak onartzen dituzunetik hobeto zaintzen dezula zurea. Bai? Eta ez dala... ez burruka hortan... eske ez dala erdera, ba ez. Ba landu zurea, eta nik uste det hainbeste dauden garaian, eta hainbeste hizkuntza eta zurea... "joe ba euskaraz nola esaten da?", eta zurea ez dan beste hizkuntza hoiek ikusten ditezunean, ba nik uste det positiboa dala. Altxor batzuk diela eta zurea gehiago maitatzeko arrazoi bat dala." ES_9

Ikuspegi eraikitzailearen oinarritik, bakoitzak berarekin dakarrena kontuan izan beharko da: norberak dakarrena ezagutu, errespetatu, baloratu eta integratu. Horrek ez du esan nahi besteengandik datorren guztia onartu behar denik, ezagutzatik abiatuta **elkarren artean egiteko modu berriak eraikitzea da planteamendua.**

Kultur artekotasunaren bidean urratsak eman ahal izateko, hasteko, kultura ezberdinen arteko **harremanen konplexutasuna ulertu behar da.** Horretarako, **elkar ezagutza funtsezkoa** da.


"Zuk horrelako harremanak baldin badituzu eta ulertzen baduzu bestea interesatzen dela zure bizimoduaz eta... Lehen esan dizudan bezala, ez kuriosidade morbosoa batean, baizik eta enpatia duzulako eta ezagutu nahi duzulako... Bera ere hobeto sentituko da. Norbait izango da, norbait da. Zuen kulturak ere balio du hemen." ES_5

Eta bestalde, jatorri eta kultura ezberdinetako **pertsonen arteko elkarrizketa sustatu** behar da.

Kultur artekotasuna, aniztasunaren aurrean eta elkarbizitzara begira izan daitekeen jarrera aldekoena bada ere, ez da bakarra. Kultur aniztasuna eta jarrera asimilazionista ere aurki daiteke.

ANIZTASUNAREKIKO INDIFERENTZIAN OINARRITUTAKO EREDUA: **HARREMANIK GABEKO KULTUR ANIZTASUNAREN EREDUA**

Kultura, jatorria edo arrazaren arabera **diskriminaziorik ez egitean indarra jarri eta eskubide berdintasuna sustatzen duen eredia da, ezberdintasun kulturala onartuz**. Pluralismo kulturalaren lehen espresioa da, asimilazioaren aurkako filosofiaren barruan.



Ikuspegi edo eredu honetatik, **jatorri eta kultura ezberdinetako pertsonak elkarrekin gizarte batean berdintasun batean biziko dira**. Kultur arteketasunarekin daukan ezberdintasuna, **harremanak eta interakziorik sustatzen ez dela** da. Beraz, berdintasun hori aldarrikatu bai, baina elkarbizitzaren hartu eman horretan sartu gabeko eredua litzateke.


Ikuspegi honetatik ez da aniztasunaren bestelako aberastasunik ikusten. Eredu honen baitan, herritarrak eroso sentitzen dira. **Interakziorik ezean, gatazkarako ere aukera gutxi** izan daitezke. Hainbat **espazio konpartitzen** dira, interakziorik gabe, edota oso interakzio juxtuarekin.

Diskurtso honetatik abiatuta, **elkarbizitzaren osasuna ona dela adierazten da, gatazkarik ez dagoen bitartean.**

"Yo creo que convivimos. Normal, no no, no conozco yo ninguna movida que haya habido entre gente inmigrante, ni con gente de aquí, contra gente de aquí. No conozco ninguna situación así." ES 6

KULTURALISMO ASIMITZAILEAREN EREDUA

Kulturalismo asimilatzailearen ereduaren arabera, integrazio prozesuan zehar eta harremanak sortzera begira, **kultura eta etnia ezberdinetako pertsonen beraien balore eta jokaerak alde batera utzi behar dituzte, hartzaillea den gizartearenak barneratzeko.** Hartzaillea den kultura besteen gainetik kokatzen da, eta beraz konfrontazio horretan garaile gisa ateratu behar du.



"Ofrecer no sé, integrarte pues... no sé como lo explicaría, pues ceder o lo que has dicho, pues aunque no te guste... no sé, una tradición por ejemplo, lo que he dicho antes, pues intentar entenderla ooo, pues hoy hacemos no sé lo que, aunque no te guste, o tengas tu otras cosa, pues oye..." ES_6

3.2 ANIZTASUNAREN BALIOAREN OINARRIAN, KULTUR ARTEKOTASUNAREN EREDURA GERTURATZEKO AUKERAK ETA OZTOPOAK ZALDIBIAN

Ereduetan jaso denaren arabera, **jatorri ezberdinen arteko elkar ezagutza, elkar aitortza eta elkarbizitzaren bidean aurrera egiteko kultur artekotasunetik abiatu behar** dela baieztatu genezake.

ABIAPUNTUA, INTERAKZIO GUTXIKO ELKARBIZITZA

Aurreko ataletan jasotakoa laburki gogora ekarriz, jatorri ezberdineko herritarren arteko harremana irudikatzerako orduan, zaldibiarrek **batez ere kulturartekotasunaren eta kultur aniztasunaren eredu horietan kokatzen** direla esan daiteke, nahiz eta asimilazio joera bat ere antzematen den egoera batzuen aurrean hainbat diskurtsoetan.

Diskurtso nagusian, **harremanak kultur aniztasunaren eredu horretatik ikusten dira, hau da, aniztasuna bai, baina interakziorik gabe**. Elkarbizitzaz elkarren artean, eta ezberdinen artean harremanak izatea ulertzen bada, zaldibiarrek urrun daude errealitate horretatik. Herritarrak bloke ezberdinetan biziko balira bezala daude. Batzuk hor, besteak hemen, baina gehiegi nahastu eta harremandu gabe. **Halaber, eredu honek ongi sintonizatzen du etorkinekin eta zaldibiar jatorria dutenekin**.

- ✓ Etorkin askorentzat eroso da, integrazio sozioekonomikoaren bidean jartzen da esfortzua.
- ✓ Berdin bertako jatorria dutenentzat, berera jarraitzeko aukera da, aldaketarik eman gabe, ez txarrera, ez onera.

Ildo beretik, **gatazkarik ere ia ez dago. Halaber esperientziak erakusten du interakzioa dagoen kasuetan sortzen direla talkak**, orduan sortzen baita bata eta besteak elkarri egokitzeko beharra. Horren kasu da ikastolan Santo Tomaseko txistorrarekin gertatutako adibide anekdotikoa. **Gatazkak beharrezkoak dira ikuspegi eraikitzaile batean aurrera egin nahi bada**.

Abiapuntua hori izanda, **kulturartekotasunaren eredu horretara gerturatzeko aukerak asko** dira, ereduaren azalpena egitean jasotako aipuek adierazten duten bezala, **baina lanketa bat ere egin behar da**.

HERRI TXIKIA IZATEAREN ABANTAILA ETA DESABANTAILAK

Zaldibia herri txikia da. Herri txikiek dituzten desabantaila eta abantailak: **harremanak gertukoak bai, baina askotan intimitate gutxi** izateko aukera dago, dena berehala jakiten da. **Harremanak gertukoak** direla esatean esan nahi da gertukoak **fisikoki**, espazio gutxi izanik konpartituak baitira. Eta gertukoak **emozionalki**. Belaunaldi ezberdinetako jendeak elkarrekin egoteko ohitura baitu. Jatorri ezberdinetako pertsonen elkarbizitzara begira horrek aukerak zabaltzen ditu. Eskola eremuan esaterako, haurrak gurasoen eskutik doaz, irakasle eta gurasoen arteko harremana egunerokoa da. Kontaktua badago alegia.

Intimitate faltaz gain, herri txikien beste desabantaila bat, dagoen eskaintza da. Herri lasaia izatea ongi baloratzen bada ere, batzuetan lasaiegia ez ote den ere aipatzen da. **Aisialdian eta eremu informalean interakziorako espazioak gutxi dira eta estilo bakarrekoak**. Horri aisialdian joera ezberdinak daudela gehitzen badiogu, eskola eta lan esparrutik haratago **harremanak naturalki emateko aukerak gutxitzen** dira.

ELKARREKIN HARREMANAK SORTZEKO MOTIBAZIOAREN GARRANTZIA

Harremanak sortzeko **zailtasun** bezala **herritar askoren gogo falta** aipatu daiteke. Interakzio askorik egon ez arren, herritar gehienek ez dute faltan botatzen, eroso sentitzen dira horrela. Bai zaldibiar jatorriko herritarrek, bai etorkinak ere. Eta **erosotasun edo konfort espazio horretatik ateratzea zaila** da. Hori egiten bada, norberaren baloreak birplanteatu, aurreiritzien aurrean aurkitu eta bestelako 'efektuak' izan baititzake. Horrek **energia eskatzen du, denbora eta gogoa**.

Halaber, badago gaiarekin sentsibilizatutako jendea, **aniztasunak dakarren aberastasuna ikusita nahasketa horretarako erabat irekia eta gogotsu agertzen dena**. **Pertsona horien motibazioa baliagarria da oso**.

EUSKAL KULTURA INDARTSU BATEN AURREAN KOKATZEAREN AUKERA ETA OZTOPOAK

Zaldibiak duen beste berezitasun bat euskara eta euskal kulturaren aldetik dator. Euskal herriko herri askotan ez bezala, **espainiar eta euskal identitateen arteko talka modu oso apalean** ematen da gaur egun. Hezkuntza eredu, herri bizitza euskaraz egiteak ... euskal kulturara modu natural batean gerturatzeko aukera ematen du. **Aukera horri etekina atera dakioke**.

Halaber, euskal nortasun fuerte bat izateak ere badu bere **arriskua, euskal kulturara gerturatzarekin hau erabat asimilatu behar denaren jarrera hartzea**. Eta jarrera horretan kokatzen diren herritar batzuk badira. Ideia honek lotura du integrazioaz ulertzen denarekin.

INTEGRAZIO KONTZEPTUAREN EGOKITZAPEN BEHARRA

Gaur egungo etorkin mugimendu berriekiko jarrera eta diskurtso nahiko zabal bat mantentzen den arren, kasu batzuetan **integrazioarekin ulertzen denaren atzean** honakoa aurki daiteke:

- ✓ **Integrazioa norabide bakarrekoa da:** iristen diren horiek egin behar dute dagoen honetan integratu, esfortzua batez ere beraien aldetik egin beharrekoa da.
- ✓ **Integrazioa hasiera eta amaiera duen prozesua da:** pertsona bat erabat integratuta dagoela esatera iristen garen momentu bat dago.
- ✓ **Argi dago non eta zertan integratu behar den,** zuzena zer den argi izanda.

Aniztasunaren balioan oinarritutako kulturartekotasunaren ikuspegitik eta interakzioa bultzatzen den neurrian **integrazioarekiko ikuspegia ere aldatzea komeni da**. Eremu honetan lanketa berezi bat egitea garrantzitsua izango da.

- ✓ **Integrazioa bi norabideetan edo norabide anitzetan oinarritzen da.**

Hau da, aldaketak bai hartzailea den gizarte horretan eta bai iristen denarengan emango dira, guztiok egin beharko dugu esfortzua horretan. Zentzu horretan, zaldibiar herritar askok harremanak sortzeko esfortzua alde bietatik egin beharreko zerbait dela ikusten dute. Beraz indargune bat izan daiteke.

- ✓ Integrazioa **prozesu bezala ulertu behar da, ez du amaiera jakin bat, baizik prozesu dinamiko bat da, etengabe birsortu eta berritzen doana.**

Pertsona berriak etengabe datoz, beraien balore, ibilbide, egiteko moduekin. Eta norbanakoak ere eraldatzen joaten dira bere bizitza ibilbidean. Beraz, integrazio eta egokitzea ikuspegi honetatik begiratu behar da, bizia den prozesu bat bezala.

- ✓ Horretaz gain, **beste ideia batekin ere apurtu behar da: integratua egoteko zertan integratua egon behar den ere aurrez argi izatea.**

Diskurtso nagusian integrazioa hasi eta amaitu egiten den prozesu bezala ulertzen da, datorrenak zertan integratu behar den ere argi izanik. Zaldibian euskal kultura ardatza izanik, **arriskua dago etortzen denak horretara argi eta garbi egokitu behar duela pentsatzeko, ikuspegi asimilazionista batetik.**

Euskal kulturaren nagusitasunaren testuinguru horretan, **etorkin berriekiko jarrera irekia** mantentzen den arren, **espainiar estatutik etorritako pertsonen eta erdal identitatea mantentzen duten pertsonen ez dute beraien kultur garapena modu askean bizitzeko aukera izan**, harremanak eta bizitza soziala kasu askotan inguruko herrietara bideratu beharrekin aurkitu direlarik. Zentzu honetan, **elkar aitortzarako aukerak urriak dira espainiar etorkinei dagokionez.**

"E1: Es que Zaldibian horiek transformatu egiten dira, ez? Ez daude. Ez dakit, daude euskaldunak eta erdaldunak. Eta erdaldunak joaten dira Ordiziako koadrilarekin.

E2: Bai, nik baeukan lehen baita koadrilan neska bat ba euskaraz bazekien baina ez zen... galiziarrek zituen gurasoak eta, eta ikusten zen ez zela gure girokoa. Eta gero Beasainen egin ditu lagunak eta beste giro batekoak.

G: O SEA, GEHIAGO JOTZEN DUTE ORDIZIARA EDO BEASAINERA.*E1 eta E2: Bai.**E2: Es que hemen azken finean daukazuna hori da.**E1: Izan behar duzu euskalduna edo bestela..." ES_11*

Etorkin berriek bi identitateren arteko talka askorik bizi ez duten arren, adierazpen eta identifikazio batzuk modu askean egiteko aukera ere murrizta dela sentitzen dute. Adibide bat jartzeagatik, kaletik Espainiar selekzioko kamiseta jartzea ez dute oso egokitzat jotzen, baina ez lukete zalantza berdina izango kamiseta Alemaniako selekzioarena balitz.

"Mi hija me ha dicho una vez a mi pequeño cuando él decía "yo soy español, yo soy español", no digas eso. Aquí ni se te ocurra eh! Dentro de casa sí pero fuera no. Y es por eso que ahora dice que es vasco, porque mi hija le ha llamado la atención. Yo le digo: no, no tienes por qué llamarle la atención, a la gente le molesta. Se nota que a la gente molesta. Es más, ponerte una camiseta de España ni se te ocurra aquí." ES_3

INTEGRAZIO KULTURALEAN ETA SOZIO-POLITIKOAN URRATSAK GELDITZEN DIRA

Jatorri ezberdinetako pertsonak herri honen bizitzako **eremu ezberdinetan** (politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean) **aktiboak eta parte hartzaileak izatea sustatzea komeni** da.

Zentzu honetan Zaldibian arlo sozioekonomikoan txertatze neurria altua den arren, arlo kulturean parte hartzea oso urria da. Ekintza konkretu batzuetan parte hartzen da, eta batez ere kontsumitzaile jarrera batetik. Arlo sozio-politikoari dagokionez, etorkin berrien lekua oso exkaxa da.

4

AURRERA BEGIRA EGITEKO GOGOETAK

